



Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

Euskerazaintza

LXXXIII Zenbakia • 2019. urtea-1

**Euskalerraren
edestia XI**

Euskerazaintza

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpidesaria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zenbakietan.

Gure kontuen zenbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2^a eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com

www.euskerazaintza.org

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK

www.diseinuetakomunikazioa.com

Laguntzaille

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Euskalerrriaren Edestia

<i>10garreneko atalaren antzera, oar txiki bat emen:</i>	7
<i>1.2. 10n atalean ikusi genduna</i>	7
<i>1.3. 11n ataleko sarreraren aurkezpena</i>	10
<i>1. 4. Leen, 1.869ko urtetik, IIn Isabelen erbesteratzea gogoratuko dogu, eta bai ta amendik aurrera ibili ziran gudal agintari nagusi batzuk aurkeztuko doguz, jakin degun, zelako antzezlarriak ibili ziran, azkeneko karlisten guda onetan</i>	11
<i>1.5. IIn Isabelen erbesteratzea</i>	11
<i>1.6. Prin ta Prats´tar Juan jenerala</i>	12
<i>1.7. 1.834-1.840ko urte bitartean, Prin´en leen karlisten guda</i>	12
<i>1.8. Prin, politikako arloan</i>	13
<i>1.9. “La jamanzia” edo ertsaldia</i>	14
<i>1.10. Prin, Kataluñako irabazkien, edo mozkiñen babes, ostera diputadua</i>	16
<i>1. 11. Prin, Turkia eta aurrekoien urte biak</i>	17
<i>1.12. 1.857-1.862ko urte bitartean, Prin, “Liberalen Bilketako” inguruan</i>	18
<i>1.13. Marrokos´eko guda, eta “Kastillejoseko Gizandia”</i>	18
<i>1. 14. Mexiko´tik ibillaldia, eta Liberal Batuen artu emonaren apurketa</i>	20
<i>1.15. 1.863-68ko urte artean, aspikaritzaren ekintza, ta Aurrerakoi Alderdia</i>	21
<i>1. 16. 1.868-1.870eko urte bitartean “La Gloriosa”ren matxintasuna</i>	24
<i>1. 17. Kuba</i>	25
<i>1. 18. Prin, erregearen billa: I Amadeo</i>	25
<i>1. 19. Madrillen Prin´eri, egin eutsoen gaiztakeria</i>	26
<i>1. 20. O´Donnell´tar Leopoldo</i>	26
<i>1. 21. O´Donnell´tar Leopoldo eta Karlisten guda</i>	27
<i>1. 22. O´Donnell´en erbezteratzea eta matxinada</i>	27
<i>1. 23. O´Donnell´en Laterriaren aurkako matxintasuna, eta lendakaritzak</i>	28
<i>1. 24. 1.865-1.866ko urte bitartean, O´Donnell´en azken jaurpena</i>	29
<i>1. 25. 1.867ko urtean. O´Donnell´en eriotza</i>	29
<i>1. 26. Lizarraga ta Eskiroz´tar Antonio, euskal karlisten gudal nagusia</i>	30

1.27. Dominguera ta Dorregaraitar Antonio, karlisten "judas" gudal nagusia	32
1. 28. Saballs eta Massot´tar Franzizko, karlisten "judas" gudal nagusia.....	32
1. 29. Ziraukiko La Kalle ta Yabar´tar Tirso, "Urgun" edo "El cojo de Zirauki", Liberalak euken iltzaille madarikatua.....	33
1. 30. Martinez ta Kanpos´tar Arsenio, liberalen gudal nagusia	34
1.31. Gudalarien aldarrikapena, eta Borboi leiñuaren lengoratz e do berregintza.....	35
1.32. Kesada ta Bizente´tar Jenaro, espainitar liberalen aldetik.....	36
1. 33. Espainitarren Askatasunezko guda	38
1. 34. Kesada, VIIIn Fernando erregearen denboran.....	38
1.35. Kesada, karlisten leenengo gudan.....	39
1. 36. Perula ta de la Parra´tar Jose, karlisten gudal nagusia	39
1. 37. Mendiri ta Kolerat´tar Torcuato, karlisten gudal nagusia.....	40
1. 38. Borbon´tar XIIIn Alfonso espainitarren errege	41
1. 39. IIIn Isabel erregetzatik kentzea, ta XIIIn Alfonsoren ikas bideak	42
1. 40. XIIIn Alfonso, errege al izatera.....	43
1. 41. XIIIn Alfonsoren ezkontza, eta euki zituzen alaba-semeak.....	44
1. 42. Kanobas ta Jauregui´tar Antonio.....	45
1. 43. Kanobas eta Jauregi´tar Antonio´ren ilketa	48
1. 44. Mateo ta Sagasta´tar Praxedes	49
1. 45. Sagastaren denboran, sei urteko aldi demokratikoa deitu zana.....	51
1. 46. 1.874ko urtean, Borboien erregetza barriztea.....	51
2. Euskalerrriaren Edestiari osteratuz	52
2.1. 11n Atal onetan, Euskalerrriko edestien autueta, edaste edo kondaira	52
2. 2. Ekintza onen oartxo bat	54
2. 3. Karlistadaren bigarren edo irugarren go gudaaren amaiera	56
2. 4. (16) SABINO.....	62
2. 5. (17) Sabino.	64
2. 6. (18) Arana´tar Santiago, Sabinoren aita.	65
2.7. Euskalerrriaren diru kontuak, espainitar Sakratuzko Katoliko Aberkide zapaltzailleakaz	67

2. 8. (19) <i>Arana ta Goiri tar Koldobika</i>	69
2. 9. (20) <i>Arana ta Goiri tar Koldobika, Sabino, eta Juan</i>	70
2. 10. (21) <i>Arana ta Goiri tar Sabinoren buruz, aipamen batzuk</i>	83
2. 11. (22) <i>Sabino, Abertzale bezela</i>	85
2. 12. (23). <i>Oar txiki bat emen</i>	86
2. 13. (24). <i>Sabino ren Abertzaletasunari ostera ebatuz</i>	88
2. 14. (25). <i>Oar txiki bat emen</i>	92
2. 15. (26). <i>Arana ta Goiri tar Sabino, kristau bezela</i>	93
2. 16. (27) <i>Sabino ren Nortasuna eta Nafarroa</i>	96
2. 17. (28) <i>Sabino, Gizon bezela</i>	102
2. 12 (23) <i>Sabino Erri-gizon bezela</i>	103



www.euskerazaintza.org

**610.000
BISITARI**

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589



EUSKALERRIAREN EDESTIA XI.

10garreneko atalaren antzera, oar txiki bat emen:

Atal onetan izki-etzan edo (kurtziban) idazten diran zatiak, nire eritzi edo neure oarkizunak izango dira.

Eta izki-etzan eta baltz idazten direnak, ataltxoen izen-buru, eta Arana ta Goiri'tar Sabinoren sendiari egokitzen jakozenak izango dira, Sabinoren bizitza eta beren sendiaren kontakizunak, gure dauanak, errez batu egiezan.

1.2. 10n atalean ikusi genduna.

10n ataleko sarreraren aurkezpenean esan gendun, XVIII, XIX eta XXn gizaldietara elduta, Euskaldunentzat bere askatasunezko demokrazien gora beran, garrantzi aundiko gizaldiak direla, or, beartu egiten dozkuelako euren amaibako gudalozteen zemankutza, ta Europako konstituzionalisten laguntzagaz, espainitar konstituzioaren menpetasunezko eritziagaz atara eben espainitar garnet-agiria, gure euskal nortasunarena izan balitz bezela eroan degun, euskal borondatearen, guztiz aurkakoa dana.

Eta eurak, Goiko Jaungoikuaren agindua izan balitz lez, katolikotasunaren sakratuzko aberkuntzan batzangotzeko siñiskai edo ziñeskintzatutako izen buru orregaz, maltzur eta guzurrezko fazizta eritzi orren aurrean, buruak makurtu dagiguzen.

Ikusten dogu be, IIen Isabelen erregiñatik, bere zori gaiztoko jaurkintzagaitik asi ta, euki zituzen karlistaren guda gogor bigaz, bera erregetzatik kendu arte, eta espainitarrak nai jaurriko gauzatan oso txarto ibili arren, Europako jaurgotiar edo konstituzionaliztaren laguntzagaz, beti joan direla sarreraren maltzurrezko guzurratik asita, guzur geiagoagaz okerrak zuzentzen, guzur aundiagoetan sartzen gaituna. Eta egiaren arloetan, aiiñ utsun aundia eginda, guzurragaz samaraiño egokituta, ur-laster edo urbi-ziaren aurka lez, guzur arteko igerian gabiltz.

Bai ikusi gendun be, espainitarren liburuetatik artukoai, emon geuntzezan erantsunak.

Eta 1.841eko urtetik 1.875eko urteraiño, gure euskal gordetzailleak egin ebezan dirutza aundiakaz, zelan diru orregaz, Euskalerrriaren lantegi ta langintzazko tresnerien iraulketa egingo ebela, bigarren karlista gudatik aurrera.

1.841eko urtean Boluetako Santa Ana; 1.854ko urtean Ibarra ta Lagundia; 1.882ko urtean "Bilbaoko laba nagusietan, burdiñezko lantegi ta galtzairuzko lantegietan biurtu zirenak"⁽¹⁾. 1.878ko urtean "Etxebarría S.A. 1.892ko urtean "La Basconia". 1.882ko urtean "La Vizcaya". 1.890 "Iberia 'ko Lagundia". Eta 1.902ko urtean askeneko irurak, "Bizkaiako Laba Nagusietan"⁽²⁾ biurtuko zirenak.

(1)Altos Hornos y fábricas de acero y hierro de Bilbao. (2) Eta 1.902ko urtean askeneko iru lantegiak Bizkaiako Laba Nagusietan biurtuko zirenak = las tres últimas fábricas se convertirían en los Altos Hornos De Vizkaia, al mismo tiempo con la aparición de plutocracia (aberats.nausitza).

1.844-1.860ko urte bitartean, karlisten bigarren guda esan eutsoenai, ikusi gendun.

1.862ko urtean Dagonillaren 25ean zelan jaio zan Arana ta Goiritar Koldobika, ta ortik aurrera, beltz, izki makur, eta zenbaki bereziakaz marratuz, Sabinoren sendi ta beren edesti orreitan antzezleri garrantzidunezkoa lez, egokitzen dan lekuan ezartzen asi, beren edestia batu gura dauanentzat, errezagó izan zedin.

Espainitar erregetzan, Saboyako I Amadeoren ibil laburra ikusten dogu, eta beragaz, aldatzen asi ziran antzezleri jaurgotiar menperatzaille orreik, ta askatasunezko demokrazi izena ikurra lez artu arren, demokrazien aurkakoa egin ebela Frankoraiño egin eben guztia, eta Frankoren ostean bardiñ, euren guzurretik kanpo, ez daukielako ezeren almenik.

VIIIn Karlos ikusten dogu be, bere erregeñai alegiñetan, 1.874ko zati onen oarpe-raiño, beren sinisbeteko eritzi onetara elduz:

Argiago ikusten dogula, espainitar zaletasunezko borrokan, ez zirala izan espainitar katoliko erlijioaren aberkide liberalak bakarrik, IVn gizaldian Nizean, Mundu osorako artu ziran erabagiakaz, Ludi au katolikotasunezko aberkidetzan batzangotzeko, Europakoen aberats ta liberal katoliko erlijioaren aolku bidez, egon zalako jaurgotiar edo guda konstituzioaren erabagi ori, eta ez eutsoen ardura andirik emoten, guda ori luze edo laburra izan zedin, eurak euken indar, diru eta gauza guztien kontrolagaz, jakin ebelako garaipendun urtengo ebela.

Europako liberaltasunen aberkide katoliko ardurak, menpeko araudiaren ezarpenetan egokitzea izan zan, eurak asmatzen eben sasijainkotasunezko andikerian bizi gindezan.

Eta katolikotasunezko menperatzail arauditasun ori da gaur, txebera edo sare-arte oso baten antzera, gaiñetik daukaguna, argi erakusten dautsoezelako mundu onen gizatasunari, gaur lez, menpetasunaren lapurkerizko ekintza orreik egiteko, maltzurrezko arauditasun orren sare arteko txeberan danok arrapatuta gagozelako, dala.

Eta konturatu gindezan, menpetasunezko eritzi orreri esker, zelako antolakuntzazko ezarpenean gagozan gaur egokituta, kontuan artu bear dogu, katoliko liberal orreik 1.879ko urtearen ezkerotzik, askatasunerako iraultzak izan arren, beti, lengo Erromatar Godo-Lege katolikoetara itzuli zirala, eta sekula ez dabela izan gura, naita Jaungoikuak bereztasumean legezstatuakoa izanda be, gizaren bereztasunezko antolakuntza orreik, lotsa edo begirunezko kontuan euki.

Errigizarteko antolakuntzan: "Arbaso, Amon, Aiton, Guraso, Izkuntz, Sendi, Sendiaren Aitorle, Aita, Ama, seme alabak, Auzune, Erri, Aberri" ta abarrezko itzak, errenkuraz⁽¹⁾ edo zeetasunezko leian zaindu bear diran itz sakratuak dirala orreik, menperatzailleak, euren naikerian ibiltea gure dabelako, salda, zuku edo saltsa orretatik, eurak geien urrupatu, edo irabazle urteteko.

Begitu bestela P.P.koak, Rouko Barela espainitar eleizako lendakari, eta epaiketetan lagun dabizenak, zer eta noren jaungoiko errigizarteen begira dabiz, egiten dabezanakaz.

Atzo, Epailaren 11n, Madrillen egin eban lez, "Ikarabidezko Illen Lagundia" edo gazteleraz, "A.V.T.koak" liberalaren katolikotasunera edo liberalaren talde lez biurtuta, Madrilleko tximist gurdiaeren istripuan sortu ziranak, gaur zortzi urte geroago eta zeaztasun guztiagaz epaituta egon arren, ostera E.T.A.ri leporatu gurean dabizela, bai aur-galtzeko legearekin, eta beste legeekin egiten dabezanakaz, fede-zain, inkizizio edo Frankoren denboretara atzeratuazoteko alegiñetan dabizelako eta abar.

(1) Errenkuraz = queja, remordimiento, inquietud, desasosiego, escúpulo, etc.

Ostera gure dabe menperatasunaren katoliko fede zaindietara itzuli gindezen, eurak diruzko edo "urrezko zekor sasijainkoari gurtzeko".

Espainitar orrentzat, eta Europako katolikoarentzat, JAUN-GOIKORIK ba ote da ?

Europako gizarteak erne egon bearko leukie, espainitarrek benetan, euren ari edo antze-koak izanda be, beste gauza bat direlako.

Orregaitik itandu egiten dogu:

Zelan izan leike, sasikatolikotasunezko erlijio aldetik: "Gure bizitz fisiko onen Ekandu arloetan, arrazoi bardiña emon, Menperatzaille edo ta Menperatuta dabiltzanai ?"

Eleiza katolikoa era baten, edestiko borroka guztien ostetik, naita beti ezeren lotsa barik menperatzaillearen alde egon, bereztasunezko legean bizi direnai menperatu ta gero, zergaitik sekula ez dautso esan oneri, arrazoian dagozela edo ta, ez daukenik ?.

Arrazoiaren eretxi edo uste orreitan beti, maltzurtasunez jokatu dau eleiza katolikuak. Ez da izango, berak daukala orren errua IVn gizalditik, Nizeako batzarraren ezkeroztik ?.

Geiago, "jakinda", emen sortzen dan lez, alderdikerizko norkerietan zapaltzaille dabiltzanai, eta Jainko legean berezko nortasunean, zapaltzaille orrein ekintzari aurka egiten dautsen artean:

Bata, maltzurtasunaren sasiasmalaria dala.

Eta bestea, Jainkoaren Legebidea zaintzen dabena, gure arimaren gai-giza bereztuta daukagun eskubidetik.

Gure adimenean, eta epaiketazko almen bidetik, artu bear doguzan erabagiak: "bardiñak ote dira GUZURRA ta EGLA ?.

Argi dago, emen zeozterrek, ustel usain andia daukela, edesti guztian, sare arteko txebera orren ekintza izan dalako Euskalerrriaren zabaltasunezko Jendekuntzari, murriztu egin dautsoena, gaur gagozan lurralde txiki onetan geratu arte.

Kadizeko espainiar jaurgo aldeko Norkeri orren sasikatoliko ta sasimerkantilista asmatzailleak, naita PPko, Sozialista, edo ta Errepublika zaleak izan arren, ez dira egokitu-ko arik ta Euskalerrria ezereztuarte, 1.812ko konstituzio maltzur orrek barruan daukana, menperatzailleak asmatutako lege araudi sorta dalako.

Noz konturatuko dira, jaurgotiar⁽¹⁾ edo konstituzio ori, gurea ez dala, eurena baiño, eta, gurera gudaloztearen indarragaz sartu gure izan dabelako edesti guztian ?.

Nork emoten dautsie jabetasun ori, egin dabena, maltzur, eta gudalozteko indarraren lapurtzagaz egin ba dabe ?.

Argi dago, erlijio edo sasikatolikotasunetik agertzen jakiela lapurrezko jabetasun ori.

Eta Euskaldunak, gure izatasunezko azturan Jainkoaren Legeari begira, eta errigizarte arloan oiturazko entseguka⁽²⁾ jokaturaren beti Paleolitiko-Neolitikotik, eldu giñela Europako Mendebal onetan daukagun demokrazi aundira.

Orregaitik, Norkerizko guzur ta menperatzaille asmatzail orreik, batzangotasunezko eritzian daukien aurkari aundiena "EUSKALERRIA" izanda beti, eta nik esango neuke, bakarra izan dala. Europako Mendebal onetan, ez ziralako egon euskaldunak baiño besterik ainbat milla urtetan.

(1) Jaurgotiar = adicto a la constitución imperialista española. (2) Entseguka = empíricamente, investigación empírica. Entsegu = ensayo, prueba experiencia.

Ortizik agertzen jakuz zitalez, aldi guztiko erasoak euskaldunai, katolikotasunezko erlijio ori, demokraziaren aurka asmatuta dagoelako.

Euskaldunak, orregaitik “ulertu” bear dogu, “elburu” bakar bateri begira ipini bear doguzala, daukaguzan bereztasunaren arrazoizko indar guztiak.

Eta naita menperatzaileak kaizar eritziekin beartuz, euskal nortasunezko izatasun gorpua zatitu egin bada be, eta euskaldunak daukaguzan alderdiekaz jokatu bearrean aurkitu arren, JAUNGOIKO ta GIZONAREN aurrean, gure artean kontu andian euki bear dogula nortasunezko leen ardura lez, ez daukagula beste arrazoirik: “EUSKERA ta EUSKALERRIAK” daukana baiño.

Mundu au danon ardurazkoa izanda, eta batzango baten ulermenara eldu bear bagarela, gaiak eta gaitutako gizak daukan eskubidearen bidetik eldu bear garela.

Ala..., Mundu fisiko onetan, alango egun baten, lapurkerietan asi gintzazalako, eta norberkeri orregaitik menderatuta, “Bizitzako Legetan biurtuko ote doguz, lapurtzak?”

Beste alde batetik begituta, ez dira galdu bear, erantzuteko aurkezten jakuzan aukerak, legunean agertu jakun antzera, espainitar gortetan Rajoik birriten Iñaki Antiguadaderi esan eutsonean: “beragaz ez eukala, iñungo zorrik”.

Zelako erantzuna ote da ori: “espainitarrak Eta Europarrak, euskal izatasunezko bizitzaren arloan, Euskalerrria menperatuta eukiteagaitik, euskaldunekin zor aundienak edo ta guztiak eukiten dabezanean?”

Espainitar gorteko batzarraren aretoan egun orreitako jaurgoitiarrak, eta gobernuko lendakarien aotik, arro esanda entzun ginduzen: “200 urte dira jaurpidetzen asi ziralta Kadizeko jaurgoarekin, gudalozte, polizia ta guardia zibillaren laguntzagaz”.

Ez ebena esaten, lenengo egunaren arazoak, gaurko arazoak dirala, Euskaldun, Katalan ta Galleguak askatasunezko erriak izanda, ez dogulako onartzen iñungo maltzurrezko menpetasun zikiñik. Berezkotasun onetan gaituta egonda, daukagun arrazoizko araudien kanpotik, ez dogulako maltzur eta guzurrezko legerik onartzen.

Teresa katoliku Santuak esaten eban: “Jainkoa, lapiko artean ebillela”.

Eta egia da, Goiko Jaungoikuaren egia ontzat artzen ba dogu, Beren Legeakaz topo egin dogulako.

Araba´ren galduera be ikusi gendun, eta 1.875eko urtean Uztaillaren 7an, Kesada´tar Jenaro´raiño eldu giñan, gu, 11n atal onetan bertatik asteko.

1.3. 11n ataleko sarreraren aurkezpena.

1.875eko urtean Uztaillaren 7an ikusi gendun, zelan Kesadatar Jenaro, XIIIn Alfonso errege liberalaren gudal nagusi barriak, Perula karlista gudal nagusiari atzeratuazota, beartu egiten dautsola Nanklares eta Subijana bitartean babesten.

Baiña Kesadak, jakin eban lez, zelan karlistek Gazteiz osterata inguratuta eukiela, Trebiño ta Zumeltzutik Gazteizera bideratzen da.

Tello liberal gudal nagusia geratu zan Kesadaren atzerakadea, gudalaneke babesean⁽¹⁾, eta karlistekin aurkituta, aukeratuaren egin bear izan eben, karlistek, Gazteiz betiko, eta Arabako lurralde geiena galduta.

(1) Kesadaren atzerakadako gudalaneke babesean = que el general Tello quedó en defender la retirada de Quesada.

1. 4. *Leen, 1.869ko urtetik, II In Isabelen erbesteratzea gogoratuko dogu, eta bai ta amendik aurrera ibili ziran gudal agintari nagusi batzuk aurkeztuko doguz, jakin degun, zelako antzezlarriak ibili ziran, azkeneko karlisten guda onetan.*

- II In Isabelen erbesteratzea.
- Prin ta Prats´tar Juan jenerala.
- O´Donnell´tar Leopoldo.
- Lizarraga, karlisten gudal nagusia.
- Dorregarai, espaintar liberalen gudal nagusia.
- Masot eta Saballs´tar Franzizko, karlisten judas gudal nagusia.
- Ziraukiko La Kalle´tar Tirso “Urgun” edo “El cojo de Zirauki”, liberalaren iltzail *madarikatua*.
- Martinez´tar Kanpos, liberalen gudal nagusia.
- Kesada bizente Jenaro, liberalen aldetik.
- Perula karlisten gudal nagusia.
- Mendiri ta Korrea´tar Torkuato karlisten gudal nagusia.
- Borboi´tar XII In Alfonso, espainitarren errege.

1.5. *II In Isabelen erbesteratzea.*

1.862ko urtetik aurrera II In Isabelek ez eban jakin gura Aurreraoiezko alderdiagaz ezer, eta eginkizun orrek Prin´eri, matxintasunezko bidera bota eban, sutsuzko etsai biurtuta Borboien aurka.

1.866ko urtean Prin´ek egin eban gudarien matxintasuna, iltasunezko zigorrean kokatu eutson. Alperrik baiña, ortik aurrera, errien ospe ta maitasunak beragaz egon ziralako.

Prin´ek Lisboatik aldarrikatu eban: “Bera, Aberriaren gudaria zala. Orregaitik, beraren bidetik aurkezten dot nere bizitza, bera aurkezten dan joputzazko aukeratatik askatzeko”.

1.868ko emaitza, agertu zan matxintasuna zan, II In Isabeli Donostian egoala, opozkerreko egoeratik, Frantziko etzerritasunera bialdu eutsona.

1.870eko urtean II In Isabelek, XII In Alfonso, bere semeen eskuetan itzi ebazan eukezan erregeñaren eskubideak, Gaztelako Kanobaseri aginduta, espainitar erregeen ondorengo berrizketak edo konponketak egiezan.

1.868-1.874ko seigarren matxintasunezko jaurkintz ugarien ostean lortu zana, XII In Alfonso erregeen ezar lekuan ezartzeagaz.

1.876ko urtean agertu zan erdiugarte onetan II In Isabel, politika arloetan sartu ez egian, zainpe andi bategaz.

1.878ko urtean baiña, Kanovas´ekin euki ebazan eritzitasunezko kirri-marrak edo beste eritzibateko izan zirelagaitik, II In Isabel Perisera atzerriratu zan betiko.

1.878ko urtean il zan II In Isabelen ama. 1.885eko urtean bere seme XII In Alfonso il zan. 1.902ko urtean il zan bere senarra, eta eukezan ia maitale guztieien ostean, 1.904ko urtean il zan II In Isabel.

1.6. *Prin ta Prats´tar Juan jenerala.*

1.875eko urte onetan, nai Prin espainitar gudal nagusi au ilda egon arren, daukon garrantziagaitik, bertan aipatu bear dogu, leenengo errepublikea, jakiteko nundik nora gatozan.

Reus´eko kondea, Kastillejos´eko markesa, eta Brutx´eko konde-ordearen izen bu-ruak euki ebazan Prin´ek.

Espainitar gobernuko ministro batzordearen lendakari izatera be, elduta.

Bere gudal bizitzan, karlisten leen gudan ibilita, Afrikako gudan be egon zan, eta 1.868ko iraultzan, gudal nagusitasunezko maillan, antzezlari nagusi baten biurtu zan, bera izanda, Saboyako I Amadeo ekarri ebena espainitarren errege izateko, eta bereala il eben.

1.814ko urtean Abenduaren 6an, Reus´en jaio zan Prin, bere aita Prin ta Estape´-tar Pablo agiri idazlea, Kataluñaren askatasunezko gudan kapitaiña izanda, eta urte batzuk geroago leenengo karlistaren gudan, II In Isabeleko tiralarien batalloi taldekoa izan zana, eta bere ama, Prats ta Bilanoba´tar Teresa bidez.

1.7. *1.834-1.840ko urte bitartean, Prin´en leen karlisten guda.*

1.834ko urtean eta bere aitaren eskutik, 19 urte eukezala lerrotu zan, II In Isabelen liberal gudalozteetan.

1.834ko urtean Dagonillaren 7an euki eban leen gudako ekintza, Llaude ta Kamins´tar Manuel, Kataluñako liberal gudalozteen, orokorrezko gudal kapitain nagusien aginduan.

Prin´ek, ez eban militarren oiturazko jakituririk euki, eta gitxiago, zaldunezko senditik etorkizunezko agerpenik, eta orre in eragipenik euki ezik, lenengo be maillatik asi bearra euki eban.

Denbora gitxi barru, agintari eben, eta ortik aurrera errez igon ebazan gorarteko maillak.

1.835eko urtean Dagonillaren 2an, ta karlisten aurka egin ebanagaitik, teniente egin eban.

1.838ko urtean kapitain egin eben, eta Serradell´eko San Migelen karlistaren aurka egin ebanagaitik, leen maillako San Fernandoren ereñuztatuko gurutzeagaz xingolatu eben, eta komandante agintari egin eban.

Ortik aurrera, eta Ager´en egin ebanagaitik, komandanteen gaiñetik, agintari nagusi⁽¹⁾, egin eben, eta Solsona-Kastellbell egin ebanagaitik, bai ta gero ibili zan borro-

(1) Agintari nagusi = mayor.

katan, oster a San Fernandoren ereñuztatuko beste gurutz bat emon ondoren, koronel maillakoa egin eben.

Karlisten leenengo guda amaitu zanean eta 26 urte euki ebazanean, bere izena aipatua izan zan gudarien artean.

1.8. *Prin, politikako arloan.*

1.836ko urtean, San Idelfonso Jai-etxean matxinatu ziran guda nagusiak, Borbon´tar Maria Kristina, In Isabelen ama beartu eban, 1.812ko konstituzioaren jaurpidea, oster a aldarrikatu egien, eta ori izan zan espainitar guda nagusiak agertu eben matxintasuna, liberalaren aldetik. Aurrerantzean, aberkide katolikoek laterrizko politika orreik eroateko.

Eta 1.840ko urtean matxintasun au, liberal eta aurrerakoienezko alderdietan bananduz, Kalatraba´tar Jose Maria, eta Albarez ta Mendizabal´tar Juanengaitik bideratuta egon zan aurrerakoiak taldean, lerrotatu zan Prin ta Prats´tar Juan au.

1.841-1.856ko urte bitarteak izan ziran bere politikazko lanak, liberalaren aurrerakoi lerrotan jokatu.

1.841eko urtean aurkeztu zan diputadu lez Tarragonako lurraldean, eta lortu be, eukan diputaduen ezar lekua.

Karlisten guda amaituta, nai beste batzuri aginduzko lan postuetatik kendu ba ebazan be, berari, guda lozteen artean eukan oiartzunagaitik, guda lozteko koronelaren maillakoa izatea on artu eban, eta Andaluziako muga-zain edo xixpadunen⁽¹⁾ bigarren ikuslearen ordegotzarako izendatu eben.



Prin ta Prats´tar Juan jeneralaren irudia.

(1) Muga-zain edo Xixpadunen = carabinero.

Andaluziako lanpostu onetan egon zanean, Narbaez'tar Ramon'ek, Maria Kristina ostera errege ordearen lekuan ezarri gura eban, eta bideak moztu eutsioezan Narbaez'eri, Jibaltarretik espainitar lurraldetan sartzea. Bai O'Donnell'eri be Iruñan sartzea, ostera itzuli bear izanda Frantziko atzerrira.

Espartero ta beren gobernuagaz asarratu zan Prin, Ingelesari ez eutsielako ezarten zerga nagusirik oial arloetan, Kataluñako oialgintzaren ondamera zalako.

Bartzelonan, askatasunaren matxintasuna agertu zanean, eta Esparterok egin eban bonba erasoakaz, or banandu ziran betirako gudal nagusi bi orreik.

Emen esan eban Esparterok, Kataluña, 50 urteko epeetan, bonbakatu egin bear zala, euren nortasunez euki ebazan askatasunezko eskubideak, aienatu jakiezen.

1.842ko urtean Azaroaren 20an, Madrilleko gortetan Prin'ek, Bartzelonari emon eutsoen arrera edo jardunbide okerragaitik, aurkari agertu zan, eta Esparteroren bildur Paris'era atzerritu zan.

Esparterok, Prin baztatu ebenean, Reus'eko konde eta Brutx'eko markesaren izen buruak ipini eutsioezan.

Prin'en kondaira berezi bat:

Reuseko erritarrak esaten dabe, akar edo larderiatu⁽¹⁾ egin ebala Prin, euren artera urduritasuna ta atxikidura edo ertsaldia⁽²⁾ eroan ebalako, ta berak, ziurta ebazan erritarrak, an bertan, berari zalatu eutsoen lekuan, oroit-arri aundi bat ipiniko ebela, bera zaldi gaiñean dala.

Egian biurta zana, zabalgune edo enparantza ori, Prin enparantza deitzen dala-ko, erdi erdian, bere zaldi gaiñeko irudi ederra dala.

Prin Bartzelonan egoala, "Espainitar Guda-Mail"en⁽³⁾ ordego bategaz alkartu zan, aurrerakoiezko alderdiaren katalanen aldetik, beste ainbeste asarre artuz.

Madrillera joan zan Prin, baiña burudun edo zentzunezko alderdikoak, Balentzian lurreratu ziran, eta ariñeketa baten Madrillera joan ziran

Prin baiño egun bat ariñago eldu zan Madrillera Narbaez gudal nagusia, eta gudal nagusien ordezkoa izendatuz⁽⁴⁾, bere agindupean ipini eben Madrillaren orrokorrezko kapitaintza.

A ta guzti Serrano gudal nagusiak, koronel baiño mailla bat geiago dekon brigadier maillagaz izendatu eban Prin, Bartzelonan, gudaren sakela⁽⁵⁾ eroan ebalako.

1.9. "La jamanzia" edo ertsaldia⁽⁶⁾.

Esparterok espainiatik iges egin ebanean, Kataluñan sortu zan erdiko batzarragaz ez zan pozik geratu, laterrien jaurkintzan, txikerra izan zalako egin zan aldaketea.

Berak gizartearen demokraziarentzako lortu gura ebezan berrikuntzat, begirune edo lotsagizun aundiagoak eskatzen ebazalako, ta gauza orreik izan ziran errukariak, erregeen ordezkariartagaz euken jaurkintzazko arduretatik atarateko.

(1) Prin, akar edo larderiatu egiten ebala = represión, reprimenda, increpar, regañar, castigar, intimidar, amenazar.

(2) Atxikidura edo ertsaldia = inhesión, represión, presión, urgencia, aprieto. Urduritasuna eta atxikidura edo ertsaldia ta odota eroan ebalako = le reprendieron, porque no les llevó otra cosa que agitación, represión y sangre. (3) Espainitar Guda-Mail = Orden Militar Española. (4) Gudal Nagusien ordezkoa izendatu = le nombraron teniente general. (5) Gudako sakela = cartera de la guerra. (6) La Jamancia edo ertsaldia = instancia, presión, premura.

1.843ko urtean orregaitik Madrilleko gobernuan egon ziran aurrerakoi ta zentzudunezko elkartearen artean, Prin Bartzelonako jaurleri izendatzea zan euren elburua, Dagonillaren erdian Bartzelonan, “La Jamanzia”ren izenagaz sortu zan matxintasan gogorragaz, amaitu egien.

Prin´ek, erritarren aurka kokatuta, alde egin bear izan eban Uritik, berak antolatze-ko euken gudaloztea bien bitartez, Sabadell, Gerona, Figera, eta Reuseko jazargo edo mantxino orreikaz alkartu zalako. Eurakaz batera, Zaragoza be matxinatuta.

1.843ko Urrilla-Azaroko illen bitartean Prin´ek, ikaragarritzko ingurutasun bat egin eutson Bartzelonari, menperatu edo etsaimendu zan arte. Eta urrengo illetan Prin´ek, banan banan joan zan eskuratzen matxinatu ziran uriak, arik eta Jerona, Figera ta Reus 1.844ko urteko asieratan etsaimendu arte.

Prin´ek, Bartzelonan izan zan, esan oneik bota zituzenean: “ Il Kutxa, edo Jeneralaren gerria”. Eta Serrano gudal nagusiak, jeneralaren gerrikoa ipini eutson asken baten.

Ikaragarritzko eta odoljariozko sarraskintzagaz etsaimendu ebazan Prin´ek bere aberriko katalanak, nai ta berak, ordain aundiak ordezkatu bear izan andik aurrera, bere erriaren nazka, gorroto ta ikusi-eziñ aundiak artu ebalako.

Prin´ek denbora gitxi barru, Madrillera joan zan, eta gobernukoak Zeutara bialdu eutsoen agintari nagusi lez, berak ez ebana onartu, eta atzerrira joan zan.

Prin, Parisetik Madrillera joan zanean, Narbaez il gura eban azpikeriz, “trabukodun” alkarte bategaz bat eginda egoalako, eta Narbaez´ek zalatu eutsoanean, barkatu ba eutson azpikerizko Joko orreitan ibilteagaitik, Prin, sei urterako zigortu eben Marianas´eko ugartetara bialduz, azpikerietan ibilikoa lez.

Ezijara baztertu eben, emendik, atzerrira joanda.

1.847ko urtean, Narbaez´ek, erregeñaren senarragaz eztabaida aundiak euki ebalako, itzi ebazan, gobernuagaz euki ebazan ardureak, eta Isturitzen jaurri labor baten ostean, Patxeko´tar Joakin Franzizkorekin osotu eban jaurkintzagaz, barkamena emon ebalako atzerrian egon ziranentzat, Prin osterata itzuli zan espainitar lurraldera.

Eta Prin´en laguna izan zan Kordoba´tar Fernandez gudako ministruak, Prin Madriletik urrun eukitearren, Aberats-Kaien⁽¹⁾ orokorrezko kapitaiña izendatu eban.

Aberats-Kaiara eldu zanean, ez dirurik, ez ezer barik eldu zan, laster bete ebazanak baiña, erregearen-ordego lez, maltzur ta gogor jokatu. Abila´tar Jose Iñazio “Arranoa”-ren izena euki ebanagaz erakusten dauan lez, espetxetik atara ondoren, osterata atrapauta tiroz ilda, berari berbea emon ondoren, ez ebalako alde egin ostu eutson zaldiagaz.

1.848ko urtean, Frantziaren ardurapean egon zan Martinikako ugartean, jopu, us- tarpeko edo menpeko gizartea⁽²⁾ matxinatu zan, joputzatik askatzea eskatzen ebalako⁽³⁾.

Askatasunezko barri orreik, bolbora, sutats edo lerrautsak sua artu balitz bezela zabaldu ziran, eta Prin´ek, menpeko baltz orrentzat artu ebazan neurriak oso gogorrak izan ziran, azal-baltza euken gizonen, aurkari amorratua izan zalako.

1.848ko urtearen Uztaillako 2an, Aberats-Kai onduan eta Saint-Kroizeko ugartean, Dinamarkako Danes´en ardurapean egon ziran joputasunezkoak matxinatu zi-

(1) Aberatz kaia = Puerto Rico. (2) Yopu, ustarpeko edo menpeko gizartea = esclavos. (3) Joputasun edo joputzatik askatzea eskatzen ebalako = que pedian la abolición inmediata de la esclavitud.

ran, Prin´ek, bere gudalozteak bialduta matxintasun orreik ezereztuteko, eta gogorrak izan zirelako egin ebazan aurkari orreik, Aberats-Kaian egon ziran Ingeles ordezkariak, euren jaurlariei esan eutsoen, 40 gizaki baltz il ebazala.

Prin´ek, berak egin ebazanak zuzendu edo legeztuteko aitzakiakaz: egin ebazanak, Aberats-Kaia Martinikako kutsapenetik⁽¹⁾ babestearren egin ebazala esan eban, eta Dinamarkako Danes orreik, Dannebroj´eko⁽²⁾ Eraikeraren xingolagaz xingolatu eban.

1.848ko urtearen Iraillan baiña, eldu zan Aberats-Kaiara askatasunezko kutsapen ori, eta baltzen artean tiros egineko ilketa asko, ta besteai 100 zartada⁽³⁾ emoteko zigortuagaz, amaitu ziran azukretegiko matxintasunak.

Ez zan izango azkeneko matxintasuna sortuko zanai, gerazi egin bear izan ebena.

1.848ko urtean sortu ziran askatasunezko arazoak ziran, Prin bere errege ordezko agintaritzatik kendu ebenak, eta ostera itzuli bear izan eban Ugarterdi onetara.

1.10. *Prin, Kataluñako irabazkien, edo mozkiñen babes, ostera diputadua.*

Prin, Kataluñako lurralde ezberdiñ batzuegandik agertuko zan diputadu, eta Bitx´eko lurraldeagaitik aukeratuta, gorteak ezereztu egin zira lez, geroago egingo ziran auteskundeai itxaron bear izan eutson.

1.851ko Loraillaren 31n egin ziran auteskunde orreik, eta Prin, Bitx´eko lurraldearen gaitik ostera aukeratuta, Madrilleko jaurkintzalariei urduritasuna sartu jakien, eta berriz, Aberats-Kai´aren orokorrezko kapitaiñ gudal nagusi izatea agindu eutsoen lez, berak onartu eban eskeintza ori, nai ta gero, auteskundearen ostean, Aberats-Kai orren gudal nagusitasun ori, Madrilleko jaurkintzazkoak maltzurtasunez ezereztu.

Joko zikiñ orregaz, Prin lanbide barik geratu zan.

Eta Prin´ek, lanpostu barik geratu zan lez, aurrerakoi diputadu batek, erri-alde biko diputaduen ezar-lekua lortu ebazanak, Barzelonako ezar-lekua itzi eutson berari, ordegozko lanak egiezan.

Bartzelonan ez eban euki maitasunezko zaletasunik Prin´ek, eta erriari eskeiñi eutson itz emonda: “bere utsegiteak zuzenduz, bera izango zala liberalkeriaren aurrera-zaleetan leena, katalanen eskubideak zainduko ebazanak, eta batez be diru kontuetan”.

Erriak, sinistu eban Prin´ek eskeiñi eutsoena, eta bera ortik aurrera aukeratua izanez gaiñ, bere zentzun aundiko itzaldiakaz, Madrilleko gobernuari, Kataluñagaz egiten ebazan okerkeriai, bide guztiak sarratu eutsoezan.

Eta katalanaren ikurra aurrera eroaten buruzagi biurtuz, Kataluñan bakarrik egoan langintzagaz arduratu zan, Madrilleko gobernuari saleros-aukerean edo saleroskeraren askatasunagaitik egiten ebazanak zalatuz. 1.851ko urtean eta Azaroko illean, diputaduen biltzarrean egin eban lez, esan onekaz:

¿...será que se les guarda rencor [a los catalanes] por el mismo movimiento centralista?. Si esto fuera así, ciertamente que mi suposición honraría poco al Gobierno, porque, en primer lugar, debíais haber sido más generosos con aquellos valientes que, después de todo, no hicieron más que exigir el cumplimiento de una palabra que se les había dado en momentos de peligro, por un poder que vosotros habíais reconocido. (...)

(1) Aberats-Kaia, Martinikako kutsapenetik babesteo egin ebala = Que él hizo lo que hizo, para proteger Puerto Riko del contagio de libertad que podía provenir de isla Martinica. (2) Dannebroj Eraikiaren xingolagaz xingolatu eban = le condecoraron con medalla de la Orden de Dannebroj. (3) Zartada = latigazos.

¿Hasta cuando hemos de ser tratados como esclavos... somos, o no somos españoles?

Brabo ta Murillo ´tar Juanek, gorteak edo lege-biltzarrak ezereztu egin ebazanean, eta agintaritzazko jaurkintzagaz jaurritu, guda nagusi batzuk asi ziran artegatzen, eta Prin bada-ezpadako zalantzan euki ebalako, atzerrira bialdu eben.

Prin Frantzian egoala, auteskundeak egon ziran Erdiugarte onetan, eta bost egun ariñago, auteskunde orreitera joan egian baietza emon eutselako Prin ´eri, ostera urten eban Bartzelonagaitik aukeratuta.

1.853ko urtean baiña, ezereztu eben lege-biltzar ori, eta Prin ostera atzerriratu zan Frantzira.

1. 11. *Prin, Turkia eta aurrekoien urte biak.*

Prin, Parisen egoala, Mexika ´tar neska bategaz asi zan ezkontzeko bideak apaintzen, nai bere amaren ezetza euki arren, eta gauzak olan zirela, Krimeako guda asi zan.

Prin ´ek, Lersundi ta Ormaetxetar Franzizko jeneralaren baimenagaz lortu eban gudarako arduradun nagusi edo batzarraren guda nagusi izatea, gudaletzeko egiten ebazan mugi aldiak, eta politikazko zeregiñen argitasunak, jakin-arazira emoteko.

1.853ko urtean, Konstantinoplan lurreratu zan Prin, eta leen ikusi ebena, Tutrakako ugartearen eraso izan zan, berak, zelan atondu bear zira kañoiezko illarak aginduta.

1.854ko urtean Frantzira itzuli zan, ostera baiña joan zan Turkiako guda lekura.

Eta mairu-erregeak, Medijidie ´ko xingolagaz jantzi eutson, omen edo ospeko aizto⁽¹⁾ eder bategaz batera.

Prin, Routstxouk ´en egoala jakin eban, espainitarren arteko politika arloan, aurrekoi liberalak irabazi ebela “Bikalbarada” deitu zan alegiñekin, ta bereala etorri zan Erdiugarte onetara.

O´Donnell eta Esparterok baiña, elkar aditu ziran espainitarren lurraldea jaurritzeko, eta biok ados egonda, Prin jaurri ortatik kanpo euki bear ebela asmatu ondoren, Prin, araudi batzarraren⁽²⁾ gorteetarako egingo ziran auteskundeetan aurkeztu zan.

1.854ko urtean Azillaren 8an egingo ziran autapenetan aurkeztu zan Prin, naita berak ulertuta euki, demokratik, errepublikano ta sozialistakin osotzen ziran taldeak, gorantza joan ziran taldeak zirala, eta euren taldeetatik onena artuz, nai gorteetarako aukeratua izan arren, eta beren liberalezko aurrerakoien eritziekaz alkartuz, ez zan gauza aundirik izan, Kastelar ´tar Emilioren⁽³⁾ aurka ezer egiteko.

Eta askenean, bere diputaduren ezar lekua itzi ondoren, Granadaren orokorrezko kapitaiñ nagusitza artu eban, Melillagaz batera, kabilako bereberrak, sarri egiten ebazan erasotzezko alegiñak ezereztuteko.

1.856ko urtean Prin ´ek, kabilako bereber orreik ezereztu ebazan Kabrerizazeko borrokan, eta orokorrezko kapitaiñaren nagusitza, general nagusiaren ordezkoi maillagaz izendatu eben⁽⁴⁾.

(1) Omen edo ospeko aizto eder bat = Aizto = cuchillo largo en euskera, cuchillo largo o espada para las celebraciones. De ahí le viene el nombre y su razón de ser al estoque = aiztoa edo aitzokada.

(2) Araudi batzarraren = cortes constituyentes. (3) Kastelar ´tar Emilio = 1.832ko urtean jaioa ETA 1.899ko urtean il. (4) Orokorrezko kapitaiñaren ordezkoi = teniente general.

Denbora gitzi barru, O'Donnell'ek igongo eban gobernuaren nagusitzara Esparteroren ordeztu, eta nai ta Madoztar Paskualek, bideratu ebezan Laterriko Gudalozteak, Esparterori lagundu, indar auek, menperatuta geratu ziran, eta ezereztu ondoren, Prin kendu eben Granadaren orokorreko kapitaintzatik.

O'Donnell, denbora gitzi barru kendu eben jaurkintzatik, eta In Isabelek, Narbaez'eri deitu eutson, eleizaren ondasunak askatzeko legea⁽¹⁾ kendukoan itxaropenagaz. Alan egin ebena.

1.12. *1.857-1.862ko urte bitartean, Prin, "Liberalen Bilketako" inguruan.*

1.857ko urtean Urtarrillako 11-12ren arteko gauan Prin'ek, Bartzelona, Balentzia eta Zaragozako matxinatuari laguntza emon eutzelakoan Narbaez'eko gobernuaren aurka, zalatu ta baitu eben.

Atzeratu egin zan guda-auzitegi au, aurrerago egin bear ziran auteskundeetarako, eta Prinek, aukerarik ez egian euki auteskunde orretan aurkezteko, auteskunde oiek egin baiño ariñago, sei illebeteko gazteluen-zigorra agindu eutsoen.

Alikanten bete eban zigor ori, eta gazteluan baiño, kalean bete eban zigorra, alde ez egingo eban berbea emon ondoren.

Eta bere alde politikazko zabalkunderik egin ez arren, bere Reus'eko lurraldeagaitik aukeratuta geratu zan.

Ez eutsoen itzi bere diputaduko ezar-lekuan ezartzen, eta sei illabeteko zigor ori bete ebenean, gobernuoak baimena emon eutsoen Frantziko Bitxi'ra joan zedin.

1.858ko urtean, Narbaez kendu eben gobernuo agintaritzatik, eta O'Donnell, bera sortutako "Liberalen Batzangoa"kin igon eban gobernuen agintaritzara. Prin, beragaz joan zan, bere aurrerakoiezko alderdia, aldi baterako itzi ondoren.

Mexikoren askatasuna lortu zan ezkeroztik, gauza batzuk geratu ziran konpondu barik espainitarrekin, arazo aietan espainitar batzuk ilda.

Prin gudaren aurka agertu zan, eta zalatu eutsoen, bera, Agüero ta Gonzalez'tar Franzikagaz ezkondu, au Berakurtzeko Benito Juarez gobernuo leen ministru zan Etxebarrien senide zalako.

1.13. *Marrokos'eko guda, eta "Kastillejoseko Gizandia"⁽²⁾.*

Espainitarren gobernuak, arazoen artean euki eban korapillotutako edo ulergaitzeko gauzaren artean, Zeuta ta Melillako Uriak erasotzen ebazan Kabilak ziran, eta onen artean Anyera'rena, Zeutan ainbat eraso egin ebazan.

O'Donnell'ek, atzerriko etsai baten bila ibili zan, espainitarren gobernuo arazoak ostonduteko, eta Marrokos'eko arazo onekaz baliatu zan.

1.859ko urtean Urrillaren 22an, nai ta Marrokoseko Mairu erregeagaz ados egon arren, espainitarrek euren arazoizko gora beratan, begitu ta garbitu ondoren, edo ta

(1) Eleizaren ondasunak askatzeko legea = ley de desamortización de los bienes de la iglesia. (2) kastillejos eta Kastillejoseko Gizandia = Valle de la costa de Marruecos, entre Tetuan y Ceuta, y "Heroe de Castillejos".

erabagi baten adoztasunera eltzeko, O'Donnell'ek, guda aurkeztu eutson Marrokoseko Mairu erregeari.

O'Donnellek, ez eutson deitu ta gitxiago jakin arazian ipini Prineri, baiña O'Donnellek jakinda oso galbidetsu zala, Madrillen aĩn oiartzun aundiko guda nagusia izan zana kanporatuta iztea, guda lozte-ordearen guda nagusi izendatu eban, beste lau gor-puzko guda lozteen agintaritzaz, beste guda nagusi batzuri emonda.

Guda au O'Donnell'ek, bere "Liberal Batasuna"ren alderdiko ospea aundiagotzeko ibili eban, ta orregaitik aurkeztu eban guda au, Marrokosekoak Zeuta ta Melillan egin eutsoezan lotsa gaiztoko edo laidagarrikeriaren⁽¹⁾ konponketak egiteko, errigizarteak on artu ebena, eta Kataluñatik, Bartzelonaren lurraldeko Aldundiak ordaindu eben gogozko gudari talde bat bialdu eban, "Almogarabe Barriak" lez esagutu ziranak.

Prin'ek, jakin eban zelan eskertu katalanek bialdu eutsoen laguntza, 15 urte ariñago, "Jamanziagaz" zikinduta geratu jakozanak, garbitzeko.

Eta 1.860ko urtearen Otsaillako asieran, gogozko katalan orreik Marrokosen lurrreratu ziranean, Prin'ek, illabete ariñako artu eben bigarren guda loztearen agintaritzaz indartu egien. Euren sarreran Prin'ek, Katalanes berba eutsoen, euri gogorutzen aberriaren arrokerizko taldea zirala.

Eta Prin'ek, katalan gogozko mutil oneikaz lortuko eban Tetuan menperatzea, ta beren izenaren entzute aundiena.

Prin'ek, al eben guztia emon eban borroka orreitan, nai ta mauritarrak baiño gitxiago izan. Eta alan sortu ziran Kastillejos ta Wad Ras'eko borrokak, izen orreik gero, bere Reus'eko Uriaren kaleetan ipinita.

Prin'ek, Marrokosen egin ebazan sarraskeriak oso gogorak izan bear ziran, gauza onek gertatu ta urte asko geroago, umiak ikartzeko "Prin dator" esanda ikaratzen ebazalako.

Prin bera izan zan "Negron Lur muturra"⁽²⁾ irabazi ebana, eta Tetuaneko borrokan, berak artu eban Muley Abbas'en etzauntza edo kanpaldia.

1.860ko urtean Jorraillaren 26an bakeak sinatu ziran ostean, Prin osteraz itzultzen da Erdiugarte onetara, eta Alikanten lurrreratzuz, Madrilleraiño joan zan erritarren goraldiakaz.

1.860ko urtearen Iraillan, ondo oldozmendu ta antonduta euki eban egitamuagaz, Jorrailletik lau illabete barrura eldu zan Prin Kataluñara. Artean bere gogozko guda lozte katalanak onartuak izanda, Kataluñako lurralde guztian.

Parisen eta Bitxi'ko urastegian, denbora emon eta gero sartu zan Kataluñara Prin, bere etsaien aipamenak uts itzi ondoren, eta ibilaldi ori bere aldeko erri-autarki⁽³⁾ baten biurtu ostean, bere izen eta izatasunak, gizaldi orren erritar-begiko aundienean biurtuta.

1.860ko urtean Urrillan 14an Reus, bera jaio zan errian amaitu zan ibilaldi ospetsu ori, eta Madrillera joan zanean, argi geratu zan, bera izan zala aundiena guda nagusien artean, IIn Isabelek, leen maillako Kastillejos'eko markesadoa emonda, bai gobernukoak be: Injineru-Gorpuaren Leen Zuzendari lez izendatu ebelako.

(1) Lotsa gaiztoko edo laidagarrikeriaren = desvergonzado, inverecundo, impúdico, deskarado, ignominia, deshonrra, etc. (2) Negron lur muturrean = Cabo Negron. (3) Bere aldeko erri-autarki baten biurtu zana = covirtiendi su paseo por tierras katalanas eun plesbicito hacia su persona, que de un plumazo barrió a sus adversarios.

1. 14. *Mexiko´tik ibillaldia, eta Liberal Batuen artu emonaren apurketa.*

1.861eko urtean Frantzia eta Bretaña Aundikoak, gudaizte bat bialdu eben Mexikora, Juarez´tar Benito txarto ta gogor jaurkitzen ebazalako erritarren aitzakiagaz, bere aginte maillatik kentzeko, bai ta atzerriko erriekaz ebagi egin ebazalako zor ebazan ordainketak.

O´donnell be joan zan ekitaldi ontara, 20 urte ariñago koloniak euki eben askatasunezko zukarraldiekaz, berak euki eban eragipena, galdu ebalako.

Prin aukeratu eben espainitar gorpuaren bidelari lez, berak ondo artu ebena, eta bere emaztearen diru geienak amaituz, argi ikusi ebalako, euken diru-larritasunak, or amaituko zirela.

Orregaitik Mexikora elduaz batera, Ingelesarekin alkartu zan, Frantzez guda za-leen aurka, oneik Austriako Maximiliano ipini gure ebalako Mexiko errege lez.

Prin´ek orretarako, Juarezek euki eban diru zaiña, Gonzalez eta Etxebarria´tar Jose´gana jo egin bear izan eban, leen, bere emaztearen Agüero Gonzalez elkargoaren kide izan zalako, eta bigarren, bere emazteak euki eban diruen iturria zalako.

1.861eko urtean, eztabaidako arazo onen iturburua, Juarezek, espainitarrak onartuta euken Miramon´en gobernuua kendu, eta espainitar gobernuaren ordezkoa be kendu ta euki ebazan zorren ordainketak atzeratu ebazalako agertu zan.

Frantzia ta Ingalaterra be ikututa geratuz, ezeri itxaron barik, Tanpiko ta Berakurtz´eko muga-erriakaz geratu ziran, diru orrekin, eurai zor eutsezanak eskuratzeko.

Eta 1.861eko urtearen Urrillan espainitarrak gero, Londres´eko ongunde bidez, eurekin alkartu ziran.

Ongunde onen erabagiagaz, aske edo Mexikarren eskuetan geratzen ziran Mexiko´ko lurraldeak.

Prin´ek, almen guztiak eskuratuz, Abanarantza urten eban, eta bertan egoala jakin eban, espainitar gudaizteak urtenda, Berakurtz ta Uluua´tar San Juanen erriak artu ebazala⁽¹⁾.

1.862ko urtean eldu zan Prin Berakurtzera, berari itxaron ez egiteagaitk, esan eutsoezan aitzakiak onartu ta gero.

Osasungaitzeko goiti-egille baltz´eko lurretan karpapetu ziran espainitar gudaizteak, eta gudarien artean gaisotu eta ondarena edo ikaragarrizko triskantzua egin ondoren, Orizabako⁽²⁾ lurraldeetan karpapetzea eskatu eutsoen Juarez´eri, eta onek ez eutsoelako jaramonik egiten, illabete batzuk ondoren Prin´ek, senide arteko zan Gonzalez ta Etxebarria´tar Jose Ministruarengana joan zan, eta onek baimena emonda, Oriazako lurretan karpapetu ziran.

Eta Prin´en gudaizteak Orizaban, Kordoba ta Tehuakanen kokatuta asi ziran, ongunde orren alkarrizketak, Bakartasunezko⁽³⁾ ugaritean bete ebazan agiriak, izenpetuak ziran arte.

(1) Itxuraz, Kuba´ko orokorrezko kapitain zana Serranoren aginduz uste da. (2) Orizaba = Berakurtzen Puebla´ko ekialdean dauan sumendien lurraldeak dira. Bertokoak, Citlaltepetl (edo Izarren Mendia esaten eutsoen), sumendi albo baten, eleiza edo jauretxe bat egon zalako, bere txuntxurretik, ibar guztitik ikusten zan sua botaten ebana. (3) Bakartasunezko = firma de los tratados preliminares de la Soledad, en la Soledad, una de las dos grandes islas del grupo de las Manvinas, separada de la gran Malvina por el estrecho de San Carlos, en ella está Stanley la capital del grupo.

Erabagita euken denbora onetan IIIIn Napoleonek México, Maximiliano artxidukearen, Kaisertzagaz, kaisar Jaurkintza baten biurtzea, eta mezu bat bialdu eutson Prineri laguntza eskatzen, Mexikon, pakezko antolamendu bat ezarri egien.

1.862ko urtean Jorraillaren 15ean, Bakartasunezko ugartearen egin zana ongundeen alkarriketetan, Frantzezak, euren laguntza eskaiñi eutsoen Juarez'en aurkariai, eta Prin salatu eben, bera gura ebela, Mexiko'ren kaisar barri orren agintaritzan ezarri.

Prin'ek bere gudalozteak baztertuz, gezurtatu egin ebazan salatu orreik, eta bardiñ egin eben Ingelezak.

Maximilianoen agintaritzaren aurka egon zana IIIn Isabel erregiñak, Prineri emon eutson arrazoia, espainitar gobernuaren eritziaren aurka, auk, IIIIn Napoleon pozik eukitea gura ebalako.

Prin, Abanara joan zana eta ortik Laterri Batuetara, bertan, Potomak'eko gudaloztearen guda agintari nagusia izan zana Klellan Mk'egaz⁽¹⁾ egoteko.

Prin, Ipar-Ameriketako batasunen aldekoa zana, eta Estatu Batuetara joan zana, York Barria eta Filadelfia ikusi ondoren, Wasington'era joan zana, Linkoln'egaz egoteko.

Espainitarren lurraldera itzulita, eta Mexikotik bere gudalozteak baztertu ebazalako, gobernuaren Liberal Batuko'en talde bietik, aburupen edo azterketa gogorak⁽²⁾ artu bear izan ebazan, eta O'Donnell'ek ia bost urtetan dangilizka eroan eban gobernu, edo amaituten egon zalako, Prin'ek, bere Aurrekoiezko Liberal alderdiaren lanera aldatu zana. Andik denbora gitxi barru, O'Donnell'en gobernu kanporatuta.

1.15. *1.863-68ko urte artean, azpikaritzaren ekintza, ta Aurrerako Alderdia.*

Ez zana erreza Prin'ek, Aurrerakoiezko Liberalen alderdira ostera itzultzea, beko edo oiñarrizko kideen ixil-keiñu edo ixilkeria, andia zalako.

Eta Madoz'tar Paskual'ek, Kataluñia osoan izen andia eukelako, eta orregaitik arazo orren giltza izanda, berak emon eutson laguntza.

1.863ko urtearen Epailako illean, Olozaga'tar Salustianoren etxean egin eben Aurrerakoiezko Liberal agintariak batzar bat, eta Prin bertan egonda, O'Donnell'egaz leen euki eban artu emona, ta beragaz zelan, bere gudalozteakaz Mexikora egin ebalako joan aldiagaitik⁽³⁾, apurtu ebazala euki zituzen artu emon orreik, adierazpendu eban.

Eta 1.863ko urtean Loraillaren 4an, Prin bera, zelan zana lengo Aurrerakoiezko kide sutua argibidetzeko, Narbaez Jenerala burudunezko⁽⁴⁾ taldearen gidari izan zanaren aurka, eskua sartu ebanean argitu zana. Madrillen ortik aurrera, Kataluñako oial-lantegien babes artuz.

Narbaezen gorteko burudun edo neurrikarien aldekoak⁽⁵⁾, murriztu egin bear zirala politikazko ekintzak erabagitu ebenean⁽⁶⁾, Aurrerakoiezkoak euki eben eritzia gogortu eben, lengo jaurkintzaren alde egon ziranen aurka, eta Narbaezen taldekoak Azaroko auteskunderako bakarkeria, izkutapen edo atzerakuntza egitea erabagi eben⁽⁷⁾, Prin'en Aurrerakoiezko ordezkariak, agerkeria barik geratu zitezen, auteskunde orretan.

(1) Klellan Mk = McClrllan. (2) Aburupen edo azterkatu gogorak = que recibió duras reprimendas por medio de los de la Unión Liberal que conformaban el gobierno. (3) Mexikora Joan aldiagaz = expedición a Mexico. (4) Burudunezkoak = moderantistas. (5) Neurrien aldekoak = moderados. (6) Murriztu bear zala politikazko ekintza = auteskundeetara autarkien jabeak bakarrik joan zitezen. (7) Izkutapen, bakarkeria edo atzerakuntza egitea erabagi zana = tomaron la decisión de practicar una selección o Re-tratamiento para las elecciones, y evitar así, que los progresistas se presentasen a las votaciones.

1.863ko urtean Prin berak agertu eban, II In Isabel erregeñari aurkeztu eiotzen erabagi ori. II In Isabel erregeñak, urte orretan jaijo zan, Prin'en alabaren ama orde edo amabiztziaren ordeak bete ebazan.

Eta Aurrerakoiezko alderdiak, lenengoetan esan ba eben, bakarkeria edo atzerakada ori, ez zala lenauko era-bidetik urtetea. 1.864ko urtearen udabarrian Aurrerakoiezko taldeakoak Prin'ek bideratuz, jazarrezko erara aldatu ziran, berak gudalozteetan euki eban izena ta lagunari esker.

1.864ko urtean Bagillaren 6rako antolatu zan matxintasuna. Ez zan gertatu ezer baiña, salaketa egon zalako.

Illabete bi barru be, galdu zan beste matxintasunezko aukera bat, Saboyako gudari taldearen koronela atzeratu zalako.

Espainitarren gobernuak, gauza oneik ikusi ondoren, Prineri deitu ta atzerrira joan zedin eskatu eutsoen, eta berak ez ebalako gura, Obiedo'ra bialdu eben, nai ta denbora gitxirako izan, Narbaezen gobernu barrien, barkamenaren⁽¹⁾ aginduz.

1.864ko urtearen amaieran egin ziran auteskundeak, porrot egin eben, aurrerakoiak baitu edo boikot egin eutsuelako.

1.865eko urtean Jorraillaren 10ean, espainitar gobernuak, gogortu ebazan berak artzen ebazan erabagiak, eta mendeku edo ordaiñak asi zan egiten, San Daniel'en Gauan 12 il eta 50 zaurituekaz amaitu zana. Prin'ek ortik aurrera, matxinatzeko eukereak topetan asita.

Prin'ek Balentzian egin eban matxintasuna, porrot egin eban, eta Frantzira atzerriratu zan, gero Iruñatik agertu zan porrotak eginez, lagun askok, ukamen edo alde egin eutselako.

Frantzira ostera atzerriratura, Balentziarrantza urten eban itsasontziz, berton beste matxinada bat antolatzen egon zalako, matxinatuak ostera be atzerantza eginda.

Espainitarren gobernuoak Prin'eri, etsai aundienetarikoa lez artuta, erregeñaren aurrean aurkeztu zedin agindu eutsen, bera baiña, Paris'en egonda, ez eutsoen jaramonik egin. II In Isabelek orduan, Narbaez'en jaurkintza amaitzea erabagi eban, eta O'Donnell'eri deitu, espainitarren gobernuja jaurri egien.

O'Donnell'ek, espainitar gobernuo agintaritzan berriz ipinita, Prin'en aurka egon ziran zemankuntza guztiak kendu ebazan, eta Prin ostera itzultzenda Erdiugarte onetara, ez bere saio edo, matxintasunezko alegiñetan aurrera egin barik.

1.866ko urtearen Urtarrillan Prin'ek, Salbanesaren Billarejoko jazarraldi edo gudarietan matxinada bideratu eban, porrot egin ebana, gauza askoren artean, liberalaren batu zale Serrano gudal nagusiak, lortu ebalako, Madrilleko beste gudalategiak ez zitezten matxintasun orregaz alkartu.

1.866ko urtean Urtarrillaren 20an Prin'ek, Mantxa eta Toledoko mendietatik, espainitar gudariak atzetik inguratzeko alegiñean eukezala, eta erdi galduta ibili ondoren, lortu eban Portugaleko muga aldatzea. Eta denbora gitxi barru, Portugaletik kanporatuz, Londresetik Parisera aldatuko zan.

Prinek bere Aurrerakoiezko lagunakaz ikusita, guda bidez ainbeste porrot eginda, eurak olan ezin leikela aurrera egin, errigizarteko laguntzaren billa aldatu ebazan politikazko antolaketak.

(2) Parkamena agindu ebalako = porque dictó una amnistía.

Ekintza orregaz, eurak, errepublikanuak izan arren, Demokrazien alderdiagaz alkartu bear zirala esangura ebalako.

1.866ko urtean Bagillaren 21ean asita, Bagillaren 22ko gauan amaitu zan leen maxin saioa, Madrilleko San Jil gudaltegiaren, sarjentuen laguntzagaz kontrola artuta.

Beste erbezteko erritarren laguntza be euki ebana, batez be, Kataluñakoa, eta gobernuko gudarien aldetik ertsaldi⁽¹⁾ oso gogorra eginda, porrot egin ebana, 60 gudal nagusi eta 66 sarjentu ta lerro buruak⁽²⁾ tiroz ilda, amaitu zana.

Espainitar gobernuaren lendakaritzarako aukeratuta egon zan Prin´ek, ez eban urten Frantzitik, eta denbora gitxi barru frantzezak, Suizara bialdu eben.

1.866ko urtearen Dagonillan Prin´ek Ostenden⁽³⁾, batzar bat egiteko agindu eban, bere lendakaritzapean Aurrerakoi ta Demokratakin batzorde bat antolatuz.

1.867ko urtearen Dagonillarako, beste matxintasun bat egitea antolatu zan, erritarak kontuan artuta.

1.867ko urtean Dagonillan urten eban Prin´ek Bruselasetik, eta 15ean Tarragonara eldu zan, andik Balentziara joateko.

1.867ko urtean Dagonillaren 15ean urten eban Prin´ek Bruselasetik, eta itsaso bidez Tarragonara elduta, Balentziara joan zan.

1.867ko urtean Dagonillaren 22an oraindiño, matxintasun orrek ez eban eztanda-rik egin, eta Marsellan lurreratu ondoren, 22ko egun orreitan, espainitarren lurraldean sartzeko itxaropenean, Kataluñako mugatik bideak aukeratzeko ibili arren, ez zan eldu, Kataluña ta Aragoian borrokak egon arren, Madrilleko gobernuak, ondo kontrolatuta euki ebazalako aukera gutziak. Ortik denbora gitxi barru, Jinebrara joan zan.

1.867ko urtean Iraillaren 4rako amaitu zan matxintasun ori, eta Prin´ek beren agerkeragaz, nai aukerea euki arren, gudaltegiak matxintazeko ados egon ziran lez, Prin bera ez zan agertu, eta matxintasun orrek porrot egin eban.

Gauza asko esan dira Prin´en egikeragaitik, baiña danoen artean baleiteke, Fradera´tar Josep M. edestilariak esaten aduana urbillago egotea: Prin´ek, ez ebalako gura, errigizarte batek bideratu egian, matxin zaleko Jaurkintz bat.

Gaiñera, demokratak azpi-suge edo saltzaille lez agertu ziran, eta Prin´ek Pariseko ixil-jokoaren batzarrean⁽⁴⁾, Ruiz ta Zorrilla´tar Manuelen agotik, bere adierazpenak emon bear ebazan.

1.867ko urtean Frantziko Biarritzen egoala il zan O´Donnell´tar Leopoldo, eta Dorreko I Dukea zan Serrano gudal nagusia egin eben Liberal Batuaren lendakari.

1.868ko urtean Jorraillaren 23an, birikerien gaitzaldiagaz il zan Narváez, eta bere ondorengo Gonzalez ta Brabo´tar Luisek egin ebazan zentzungabekeriagaitik, ainbat gudal nagusi ta be-maillakoak aldatu ziran Liberal Batuaren alderdira, euren artean Zabala, ta Topete´tar Juan Bautista almirantea.

Topete almirante jaun onek, erregiña, semeagaitk aldatu gura eban, onen jaurkintza Montpensierreko dukeak bideratu egien, Prinen aolkotuz baiña, aurrerakoiezkoak onartu ba eben, onek ezetza emon eutson.

(1) Ertzaldi gogorra = represión dura o sangrienta. (2) lerro buru = cabo. (3) Ostende = Beljikako Uria, Flandeseko Mendebalean aduana = itsas kaia ta Ipareko Itsasoan urastegiak daukazenak. 1.583ko urtean Oranjeko Giller-mogaitik arresizko-uri biurtuta (fortificada), 1.604ko urtean espainitarrak, Beljikako lurraldean, Olandarren asken Uria artu ebana. (4) Paris´eko ixil-jokoaren batzarrean = en la reunión del centro conspirativo de Paris.

Prin'ek a ta guzti, III In Napoleonen erdikotasuna lortu eban espainitarren barruko gobernuen arazoetan, eta Bitxi'ra aldatu bear izan eban, ortik Londresera joanda.

Atzerriratzean, atsekabetuz egon ziran guda nagusien arteko arremanak, adoxtasunduta egon ziran, eta matxintasuna erabagita.

1. 16. **1.868-1.870eko urte bitartean “La Gloriosa”ren matxintasuna.**

1.868ko urtean Iraillaren 12an, Buenabentura lurriñ-ontzian⁽¹⁾ urten eban Prin'ek Londresetik, Londreseko atzerritasunean egon ziran bere lagunak, Bark'tar jaunen antzera, morroi lez mozorrotuta. Jibaltarrera eldu ziranean, Adelaida izena euken zirgatzaille edo atoi-ontzira⁽²⁾ igon eban, Kadiz'eko itsas-kaian egon ziran beste itsas-gudariekin batera, gero Zaragozako injiman⁽³⁾ edo gudarako izan zan itsas-ontzira igoteko.

1.868ko urtean Iraillaren 17an, egin zan gudarien matxintasun orren⁽⁴⁾ aldarrikapena.

1.868ko urtean Iraillaren 18an, guda itsas-ontziren gudariak matxinatuta, eta 19ko egunean lurraldekoak, Prin, lurreratu zan, eta gorakako txalo artean artu eban.

Batzar bat egin zan, Batu Zale, Aurrerakoi, ta Demokratakin berdiñezko aukerean antolatuta, Topete'en lendakaritzapean ipini ebena.

Eta Prin'ek, Lurrarteko itsasoaren itsas-bazterretik joanda, itsaserri edo Uri nagusiak matxinatu zitezen:

1.868ko urtean Iraillaren 23an Malaga matxinatzea lortu eban.

1.868ko urtean Iraillaren 25ean Almeria.

1.868ko urtean Iraillaren 26an Kartajena.

1.868ko urtean Urrillaren 2an Balentzia.

Eta 1.868ko urtean Urrillaren 3an Bartzelona, txalo aundien artean artu ebena.

1.868ko urtean Urrillaren 1eko egun inguruan, Uri orrein ondoan eta Figeraseko Urian: Pierrad'tar Blas; Klabe'tar Anselmo; Orense'tar Jose Maria; eta Rossell'tar Marianok, errepublikea aldarrikatu eban, eta 1eko egun orretan Baldrinx guda nagusia, Bartzelonan sartu zan.

Prin'ek, koroa bat eroan eban bere buruko txapelean, eta erriarrak kendu egiala koroari beren txapeletik aldarrikatu eutsonean, Prin'ek katalanes, auxe erantzun eutsonean: “Catalans, voleu córrer massa; no correu tant que podriéu ensopegar”⁽⁵⁾.

Asken baten Prin'ek, kendu eban txapela burutik, eta txapeletik euken koroari orren kendueran, katalanari au aldarrikatu eutsonean: “Borboiak Bera ¡!”.

Prin Bartzelonatik, Reus'era joan zan, eta ortik Madrillera, ararte iñoiz, ikusi ez zan sarrera aundia eginda.

Urrengo egunean eta sortu zan bitarteko gobernuaren eskutik, Laterriaren paper-zorroa⁽⁶⁾ emon eutsonean, bera gobernu orren epaillea izan zedin.

1.869ko urtearen auteskundeetan, Aurrekoiak, zentzunezko Demokratakin batera, 160 diputadu lortu eban; Liberal Batu zaleak 65; Errepublikanuek 60; eta karlistek 30.

(1) Lurriñ-ontzian = barco que funciona con la fuerza del vapor. (2) Zirgatzaille edo atoi-ontzira = remolcador. (3) Injiman = buque grande. (4) Gudarien matxinada = pronunciamiento revolucionario del ejército. (5) “Catalans, voleu córrer massa, no correu tant que podriéu ensopegar” = “Lar ariñ egitea gura dozue Katalanak; ez ariñeketa larregi egin, beaztopatu edo muturkatu egingo zarelako”. “Catalanes, quereis correr demasiado; no corrais tanto que podiais tropezaros”. (6) Laterriaren bakezko paperraren zorroa = cartera del ministerio de justicia.

Prin´ek orrela, Aurrerakoiezko buruzagi, aintzindari edo agintari lez geratu zan.

Gobernuaren buruzagi izateak, bere baimena bear izan eban, eta konstituzioa baieztu zan, Prin berak onartu ebelako erregetzaren era, espainitar barrien lurraldea jaurkitzeko.

Serrano gudal nagusia errege ordezkoa izendatu ebenean, Prin´ek, bere etsai aundiena baztatu eban.

Serranok bere aldetik, Prin izendatu eban gobernuko lendakari lez, eta Prin´ek bulego orretan ez zan bakarrik geratu lendakaritzagaz, gudarako paper-zorroa⁽¹⁾ be berentzat artu ebalako, Aurrerakoiezko ta Batu Zaleko ministruak bardin antzean izendatuz.

1. 17. *Kuba.*

Prin´ek, Kuba´ren aberritasunezko askatasuna aurreratu eban, kubako erritarrak alan eskatzen ba eben orokorrezko auteskunde baten. Kubatarren abertzaleentzat parkamena, eta ordain-bide bat espainitarrentzat, Estatu Batuen laguntasunezko bermedunagaz⁽²⁾ eskatuta.

Aurkezpen onenetarikoak zan, espainitar diru etxearen arazo guztiak konpondu egiezen, Prin´ek eskaiñi eutsoena. Sekula baiña, ez eban aurrera egin.

Alderantziz, Estatu Batueri, Kuba saltzeko eskeintza agertu zanean, Prin agertu zan aurrez aurre, eta zalantza barik, auxe esan eban: “Kubako ugartea ez da saltzen. Bere salduera espainitarrentzat, aipu-galtze edo ospe ona-galtzea⁽³⁾ lez izan leikelako”. “espainitarrai, irabazi egiten jakielako aipuen-galkera barik”.

1. 18. *Prin, erregearen billa: I Amadeo*⁽⁴⁾.

Aurrerakoiezko taldekoak, Portugaleko Koburgo´tar Fernando, I Luis erregeen aita billa, ibili ziran alde batetik.

Eta Liberal Batu zaleak bestetik, Montpensierreko dukearen billa.

Koburgo´tar Fernandoren aukerea porrot egin eban, morgan-ezkontza⁽⁵⁾ eukelako ares-antzerkiko abeslari⁽⁶⁾ bategaz, baita Portugaleko Printze Erregeak, ez ebalako gura portugal eta espainitarren alkartasunik.

Serrano ta Topetek aukeratu eben Montpensierreko erregenai au, porrot egin eban, Prin aurkari urtenda, Montpensierren ezetza eskatuz gaiñ, Borboitar leiñu guztien kanporatzea eskatu ebelako.

Prin´ek, Italiako IIn Bitor Manuelen seme, Aostako dukea, eta Hohenzollern Sigmarinjen´tar Leopoldori eskaiñi eutsen espainitarren koroia, eskeintza ori, biok alboratu egin ebena.

Orduan Prin´ek, Italiako erregearen loba Jenobako dukeari eskaiñi eutsen espainitar errege koroï ori, Topete´en baldintza onegaz: Montpensierren alaba bategaz ezkontzen bazan. Erregearen aukera ori, Kortasetan autatu zan, Jenobako dukeak 128 bozka edo autarki atarata, 52ren aurka. Jenobako duke orrek baiña, uko egin eutson espainitarren erregezko aukera orreri.

Prin´ek, Garaipenaren Dukeari eskeiñi eutson espainitar koroï ori, jakinda ez ebalako onartuko, sortu zan lez.

(1) Gudarako paper-zorroa = cartera de la guerra. (2) Laterri-Batuen Bermetasunagaz = garantizando, acreditado, o con cooperación de los Estados Unidos para la garantía de esa intermediación. (3) Aipu-galtze, edo ospe galtzea lez izan leikelako = perder la buena fama o reputación que desarrolla una nación (aunque no sea, o nunca pueda ser nación de derecho, ni tampoco ningún dictador haya tenido nunca buena reputación, (4) I Amadeo = Prim, Serrano y Topete subastan la corona española, revista La Flaca (1.869). (5) Morgan-ezkontza = casamiento morganático. Que sucede, cuando un miembro de familia real se casa con alguien de rango inferior. (6) Ares-antzerkiko abeslaria = cantante de ópera.

Prin´ek, maltzurrezko kakalastau onetan errege aukeratzeko, lege bat atara eban, geienaren iritzia izan zedin auteskunde orreitan.

Eta Hohenzollern´eri eskaiñi eutsoen ostera espainitarren erregetza, berak baldintza onegaz onartuta, bozka edo autarki guztitik, irua ataraten ba eban.

Atara eban iru zatiko kopuru ori, oker bat baiña egin eben, baietz ori, gorteen atea, iltzatu ostean eldu zalako.

Eta nazio edo erri arteko aurkaritzazkoak, jakin ebenean Prusia´tar erregeen naitasun ori, gorantza joan zala, IIIIn Napoleones, Hohenzollern´tar aolkatu eban, uko egin egiotzen erregenai orreri.

Olan sortu zana. Ez zan naikoa baiña, urren sortu zan Franko-Prusiatar guda gertatzeko.

Prin´ek au ikusi ondoren, Aostako duke I Amadeori eskaiñi eutson koroi ori, eta onek, errien arteko baietz, baldintza lez ipini ondoren, onartu eban espainitar errege izatea.

1.870eko urtean Azillaren 26an, egin ziran auteskundeetan, aukeratu eben I Amadeo 191 autarkien nagusitasunagaz.

Eta 1.870eko urtean Azaroaren 27an urten eban I Amadeo erdiugarte ontarantza, Prin, Madrillen gaiztakeriz il eben egunean.

1. 19. *Madrillen Prin´eri, egin eutsoen gaiztakeria.*

1.870eko urtean Azaroaren 30ean, gaiztakeria euki eban iru egun geroago il zan Prin, 56 urte eukazala.

Bere gorpua Madrillen, Atotxako Gizon Andikien Iletxe edo Arrillobian lurperatu eban, gero 1.971ko urtean, bere erriaren Reus´eko illobian lurperatuz.

1. 20. *O´Donnell´tar Leopoldo.*



O´Donnell´tar Leopoldo´ren irudia.

1.809ko urtean Urtarrillaren 12an Tenerife'ko Gurutz Santu'ko Urian jaio zan Joris eta O'Donnell'tar Leopoldo, liberalaren guda nagusi au.

Eta 1.867ko urtean Azillaren 5ean, Euskalerrriaren Iparraldeko Biarritz'en il, 58 urte eukezala. Erregeen Salesa'tarren lekaiume etxean illobiratuta dago.

Espainitarren Aundia Tetuaneko I Dukea lez; Luzenako I Kondea; eta Aliaga'ko I konde ordea'ren izen buruak euki ebazan.

1.856ko urtean eta Esparteroren urte biko Aurrerakoien gobernu ostetik, Ministru Batzarraren buru izan zan, 1.858-1.863ko urte bitartean lez, eta baita 1.865-1.866ko urte bitartean, II In Isabelen erregetzan lez.

XVI In gizalditik sortutako Irlandaren O'Donnell'tar Kalbath leñuetatik, eta antziñatik guda zale lez etorten ziran Anethan eta O'Donnell'tar Karlos, al-osokerizko sinismenaren sutsua zana, eta Kasabiella ta Joris'tar Josefa'ren seme txikerrena izan zan.

O'Donnell'tar Leopoldo onek, eta bere guda-sendi tradizio-zaleko lez, Alejandro Kaisar oiñezko gudari taldean lerrokatu zan teniente ordego lez.

1. 21. *O'Donnell'tar Leopoldo eta Karlisten guda.*

1.833ko urtean eta VII In Fernando il zanean, sortu zan leenengo karlisten guda, II In Isabelen alde egon ziran Isabelinoak, eta bere osaba, Borboi'tar Vn Karlos Ma Isidro'ren karlisten artean.

Eta O'Donnell'tar Leopoldo'en aita eta anaiak, karlistaren aldean euki arren, bera, II In Isabelen aldean lerrotu zan, kapitaiñezko maillagaz.

1.837ko urtean Ekaiñararte, berak gudari lez egin ebenagaitik, leenengo koronel egin eben, eta gero, koronel baiño mailla geiagokoa izan zan, brigadier maillara igon eben, urte onetan Zelaiko Mariskala egin arte.

1.839ko urtean O'Donnell, Aragon, Balentzia, ta Murtziako Orokorrezko Kapitaiña izendatu eben. Eta Cabrera'tar karlista nagusiari irabazi ondoren, del Zid'eko Luzena'ren kondea izendatuz, Orokorrezko Kapitaiñ nagusiaren ordezkoa izatera igon eban.

1. 22. *O'Donnell'en erbezteratzea eta matxinada.*

1.840ko urtearen Iraillan O'Donnell'ek, Aurrerakoien matxinada ostean, II In Isabelen ama Borbon ta Bi Siziliako'tar Maria Kristina bere errege ordegotzatik kendu ebenean, bere sinismen apalagaitik, Frantzira atzerriratu bear izan eban.

1.841eko urtean O'Donnell'ek, Leon de Diegok liberalen guda nagusiak egin eban azpikeri, edo ixilezko-jokoan egon zan, Esparterok eroaten eban erregezko ordearen aurka.

1.841eko urtean Urrillaren 7an, O'Donnell'ek ekintza onetan egoala, Iruñako gualtegia matxinatu egiala agindu eutsoen. Madrillen baiña, Errege-Jauregia erasotzeko porrot egin eban lez, Frantzira atzerriratu bear izan eban.

1.844ko urtean, Narbaez agintaritzazko aulkian egon zala, O'Donnell'i, Abanako Orokorrezko Kapitaiña izendatu eban, eta berton egon zan 1.848ko urterarte.

Eta Erdiugarte onatara etorri zanean, senatore izendatuaz gaiñ, Toledon egon zan oiñezko gudarien ikastetxera bialdu eben, orokorrezko zuzendari lez.

1.853ko urtetik aurrera, politikaren arloagaitk arduratu zan, eta 1.854ko urtearen Ekainan, oiñezko gudarien talde bategaz, eta Dulze gudal nagusiagaz batera, gobernuaren aurka matxinatu ziran.

Gobernuak, Blaser gudal nagusia bialdu eban euren aurka, eta Bikalbaron⁽¹⁾ aurkeztuta gudalozte bi orreik, itxurazko borroka bat eginda⁽²⁾, guda buru nagusi bi orreik atzeratu ziran, eta itxaroten geratu ostean, Uztaillaren 7an, Jauregui ta Kastillo´tar Antoniok Manzanareseko deia argitaratu ebanean, ia gudalozte osoa beragaz geratu zan.

Matxintasunezko garaipen onegaz Esparteroi, Ministru Batzarraren lendakari izendatu eban, eta O´Donnell, gudako ministru zorroaren zeregiñetan⁽³⁾ ipini eban.

1. 23. O´Donnell´en Laterriaren aurkako matxintasuna, eta lendakaritzak.

Esapainitarren gorte barri onegaz, Liberalaren Batasunezko beste politikazko alderdi bat sortuko zan, zentzuzko eta aurrerakoiezko alderdiak bat eginda.

Eta Laterrien matxintasunagaz, 1.856-1.857ko urte bi onetan, Aurrerakoien lendakaritza sortuko zan.

1.854ko urtearen matxintasunagaz asi zan Aurrekaioezko jaurkintza, Espartero, ministruen batzarrezko lendakari zala, eta O´Donnell´ek emon eban matxintasunagaz amaitu zana.

1.855eko urtean Uztaillako 20tik Dagonillaren 2ko egunerarte, Itsasoko ministrua tituludunen orde, edo onek aldegitte edo urrundutzean.

1.856ko urtean Jorraillaren 9tik Loraillaren 16rarte Itsas ministrua tituludunaren orde.

1.856ko urtean Uztaillaren 14tik Uztaillaren 17rarte, Laterriaren ministrua tituludunen orde.

1.856ko urtearen Uztaillan O´Donnell´ek, Ingelesaren Madrilleko Ordezkaritza-tik, Frantzia ta Ingalaterraren laguntzagaz, egin eban matxintasunagaz, bera ipini eben, Ministru Batzarraren lendakari lez.

1.857ko urtearen Urrillararte iraungo eban O´Donnell´ek Ministru Batzar orren lendakaritzan, Narbaezek ipini eben arte.

1.858-1.863ko lendakaritzaren urte artean, eta 1.858ko urtearen Uztaillatik azten dira O´Donnellentzat, lendakaritzazko aginduak.

1.859ko urtean Dagonillaren 4tik, Dagonillaren 31rarte Itsas ministrua tituludunen orde.

1.859ko urtean Iraillaren 14tik, Urrillaren 5erarte Laterriko ministrua tituludunaren orde.

1.859ko urtean Urrillaren 22an Marrokos´eri aurkezten dautso guda, eta 1.860ko urtearen Otsaillan, gudaloztearen agintaritzan ipini ondoren, Tetuan menperatzen dauanean, Wad-Ras´eko ongundea ospatzen dau, Afrikako espainitarren agintaritza finkatu ostean, Zeutarako lurraldea zabaldu ebena.

(1)Bikalbaro = Vicalvaro. (2) Bikalbarada´ren izenagaz ezagutu zana (3) Gudako Paper zorroen zeregiñetan = en los quehaceres que la cartera del ministerio de la guerra le exigian.

O'Donnell'eri garaipen onegaitik, Tetuan'eko dukea lez izendatzea balio eutsen, gainean, espainitarren izen aunditasunagaz edertu eutsena.

1.860ko urtean Dagonillaren 5etik, Dagonillaren 30erarte Laterriaren ministrua ipini eben, tituludunaren orde.

1.861eko urtean Uztaillaren 13tik, Iraillaren 7rarte Laterriko ministrua, tituludunaren orde.

1.861eko urtean Urrillaren 20tik, 1.862ko urtean Otsaillako 6rarte, Laterrien ministrua, tituludunen ordez.

1.862ko urtean Uztaillaren 14tik Dagonillako 30erarte itsas-ministrua, tituludunen orde.

1.862ko urtean Dagonillaren 3tik, Iraillaren 2rarte Laterriaren ministruko tituludunen orde.

1.862ko urtean Madrilleko errege-ordezkaritzatik⁽¹⁾ eta In Isabelen baimenarekin, Bealdeko Ameriketara bialdu ebazan jakintsu bidegille talde bat⁽²⁾, gudarako lau itsas-ontzi aundiekin zainduta, Hernández-Pinzon ta Albarezta Luis Almirante Ordearen agindura⁽³⁾. Leenengo Itsas-ontzi andi bi auek, Biur-gailluakin bultzatutako itsas ontzi aundiak ziranak, "Garaipen" eta "Erabakitzea" deitzen ziran⁽⁴⁾. Eta biur-gailluakin be ibiltzen ziran ontzi-azkar "Irabaslea"⁽⁵⁾, eta "Kobadongako Ama Birjiña" deitzen ziranak, masta edo tantai biko itsasoztzi mee azkarragaitik⁽⁶⁾ lagunduta bialdu ebazan.

Oiturazkoa izaten zan orduko denboratan, itsas-ontzien indarra erakustea, aukera ontan baiña, gainezko edo geikerian egoana, eta arrokeri orrek ekarri eban 1.864-1.883ko guda Amerikarren Bealdekoakaz, nai ta 1.871ko urtean amaitu arren.

1.863ko urtean Urtarrillaren 17tik Otsaillaren 9rarte Itsas-ministrua, tituludunaren orde.

1.863ko urtearen Epaillararte jaurkitu eban O'Donnell'ek espainitarren gobernua, arik eta burudun edo zentzunezko⁽⁷⁾ alderdikoan bultzakadagaitik, berak itzi, eta bere agintaritzza Mirafloreseko markesak artu arte.

1. 24. **1.865-1.866ko urte bitartean, O'Donnell'en azken jaurpena.**

1.865eko urtearen Uztaillako 2ko egunetik, Dagonillaren 27rarte, itsas-osteko leen ministrua izan zan, tituludunen aldegitte edo urrundutzean.

1.866ko urtean Urtarrillaren 4tik Urtarrillaren 24rarte, Itsas-Ministrua, tituludunen orde.

1. 25. **1.867ko urtean. O'Donnell'en eriotza.**

O'Donnellen jaurbidetik bereztu leikezan gauzak, su-gurdientzako trenbideen ugaritzea. Marrokos'eko guda, espainitarrai ainbeste balio eutsena. 1.855eko urtean, Kastelar'tar Emilioren uztean, ikaslarien jazarraldiar egin eutsen odoljariozko ertsaldi edo atxikidura, "San Danielen gaba deitu zana", eta O'Donnell'eri Gobernuaren Lendakaritza ta Gudarako Ministru izatea balio eutsena.

1.866ko urtearen Bagillako 22an, San Jil'eko gudaltegian sortu zan matxintasanagaitik, O'Donnell'ek In Isabelegaz asarre, bere agintari guztiak itzi ebazan, eta Biarritzera joan zan.

(1) Madrilleko Ordezkaritzatik = Desde la embajada de Madrid. (2) Jakintsu bidegille talde bat = cuerpo expansionario de sabios. (3) Lau itsas-ontzi aundi = cuatro barcos de guerra. A las órdenes del Vicealmirante Luis Hernández-Pinzón Álvarez = descendiente directo de los hermanos Pinzon que viajaron con Cristobal Colon. (4) Injiman edo itsas-ontzi bikiak = Injiman o barcos grandes. Biur-gailluakin bultzatutako Itsas-ontzi bikiak = fragatas gemelas propulsadas por hélices, que se llamaban "Triunfo" y "Resolución". (5) Biur-gailluakin ibiltzen zan korbet-ontzi "Irabaslea" deitzen zana = La corbeta ligera movida por Hélice llamada "Vencedora". (6) Eta "Kobadongako Ama Birjiña" deitzen zan masta edo tantai biko itsas-ontzi mee ta azkarragaitik babestuz = Y protegida por la goleta "Virgen de Covadonga". Goleta = buque fino y ligero, de bordas poco elevadas y dos mástiles. (7) Burudun edo zentzunezko alderdikoak = partido de los moderados.

1.867ko urtean Azillako 5ean, Biarritzen egoala il zan O'Donnell jauna.

1.870eko urterarte O'Donnell'en gorpua, Madrilleko Atotxaren eleizan illobiratu eben, arik eta 1.870eko urtean, Salesas'eko lekaimetxean dagon Santa Barbara eleizan ostera, bere azur-kondarrak, Suñol'tar Jeronimok, pizkundeko era barrian egin eban, Karrarako arbizi edo atxurdiñeko jaun-illarri⁽¹⁾ eder baten illobiratu arte.

1. 26. *Lizarraga ta Eskiroz'tar Antonio, euskal karlisten gudal nagusia.*

1.817ko urtean Urtarrillaren 22an, Iruñako Urian jaio zan Lizarraga ta Eskiroz'tar Antonio euskal karlista gudal nagusi au.

Eta 17 urte oraindiño bete barik eukazanean, gogozko mutil lez lerrotu zan Nafarroako karlisten gudaloztetan.

1.835eko urtean eta Zumalakarregiren gudalozteetan, taldearen aurreko gidari edo ikusle lez ibilita, agintari lez izendatu eban, eta Vn Karlosen guda taldetik asi ta Barbastro ta Ueskako borroketan ibili ondoren, Orista'ko borrokan il-bizian zauritu eben, eta Gergeen gudaldian geratzen ziranakaz zokoratu zan.



Lizarraga eta Eskiroz'tar Antonio'en irudia.

Kapitain ordearen agintaritzazko maillan amaitu eban bere karlisten leenengo guda, Bergarako ongundeagaz bat eginda, eta liberal'en gudalozteetan lerrotu zan kapitain ordegoaren⁽²⁾ agintari maillagaz. Leenengo, Printzearen taldean lerrotuko zan, eta gero beste taldeetan kapitaiñ egin arte, bere jardunbide zintzoagaitik.

1.854ko urtean Sebillan aurkezten zan denboran, O'Donnell agertu zan, Zaindari zelaietetan matxinatu ziran gudarietakaz, Lizarraga'tar Antoniok, ezetza emon ondoren O'Donnell'ek egin eutson gudarien eskaerari, gudari ikasteko gudaritegikoak aurre egin eutsoen O'Donnellen taldeari, arik eta Orokorrezko kapitaiñak, O'Donnell'en serbitzura, ipini egiezala bere gudariak, agindu arte.

O'Donnellek be saritu eban Lizarraga, bere taldean kapitain lez lerrotuta, berari egin eutson aurkaritza, zentzun aundikoa zalako.

1.866ko urtean Bagillaren 22an Madrilleko odoljararioaren borrokatan eta Arapileseko eiztarien komandanteen agintaritzaz eukanean, danen aurretik ibili zan, eta ortik aurrera Narváez ta Pezuela'tar gudal nagusien uste osoa lortu ebanean, aurrera begira euki zituzen ekintzatan, danetatik nabarmenduko zan.

(1) Suñol'tar Jeronimok Pizkundeko era barrian egin eban Karrarako arbizi edo atxurdiñeko jaun-illarri eder baten illobiratu arte = depositados sus restos en un mausoleo de estilo neo-renacentista construido por Jerónimo Suñol en mármol de Carrara. (2) Kapitain ordego = teniente.

1.868ko urtean eta koronel ordezkoa zala, II In Isabelen aurkako matxintasuna arrapau eban, Txeste´ko kondea ararte printzerriaren Orokorrezko Kapitaiña zana, Barzelonako batzarrak kendu eban agintaritzazko leku ortatik, eta Lizarraga be kenduta euken agintari lekutik, zar-sarira baztertu eban.

1.872ko urtean, Lizarraga´tar Antoniok orduan, bere karlisten sinismena aldarrikatu eban, eta VII In Karlosek, Errioxako general izendatuta, Nafarroako gudaltegietara aldatu zan, Errioxako errigizarteak VII In Karlosen alde matxinatu zitezen.

1.872ko urtean Jorraillaren 19an joan zan Errioxarantza Karasa´ren gudalozteak bere agidupean ipinita, eta borroka batzuk egin ebazan.

1.872ko urtean Abenduaren 21eko egunerarte, Zornotza edo Amorebietako ongundeen eta matxinadaren porrot´en ostean, Lizarraga Frantzira aldatu zan, eta VII In Karlosek Gipuzkoaren orokorrezko agintari nagusi izendatu ondoren, Erdiugarte onetan ostera sartu zan 7 gudariakaz bakarrik, eta bereala antolatu ebazan Azpeitiako Eiztariren taldea ta beste batzuk, urte ta egun onetan Gipuztarrai aldarrikatuta, matxinatu egiezen.

1.873ko urtean Jorraillaren 12an Morales del Rio bideratzen eban taldea, Lizarragaren gudalozteen aurka joan zan, eta Tolosaraíño atzeratu egin bear izan eban liberal gudalozte orreik.

1.873ko urtean Jorraillaren 13ko urrengo egunean baiña liberalak, Lizarragaren aurka agertu ziran Abalzizketako erri inguruan, eta Lizarragak alde egin bear izan eban.

Lizarragak andik egun batzura, Nafarroako Abarzuzara joan zan bere taldeagaz, Dorregarai karlisten guda nagusiagaz alkartzeko, eta biak alkartuz Eraul´eko mendietan, ezereztu egin eban liberal gudalozte orreik. VII In Karlosek Lizarragari ekintza orregaitik, merezimendu aundiko guda gutzeagaz xingolatu eban.

1.873ko urtearen Uztaillan Lizarragak, VII In Karloseri lagundu eutsen Erdiugarte ontara etorri zanean, Etxarri Aranaz´eraíño lagunduta karlisten gudalozteakaz bat egiteko.

1.873ko urtean Dagonillaren 15ean Lizarraga, garrantzi aundiko ta gitxi ezagutzen dan ekitalde bat egin eban Gipuzkoaren Orokorrezko Guda Agintari lez, Karmengo Ama Birjiñaren gudari taldea, Garaipeneko gudari taldea, eta Blanka erregiñaren taldeak euren agintariakaz Bergaran batuta, Espartero ta Marotok egin eban saldukerizko lekuan batu ziran, ta Lizarraga gudari batzuketan, an egoan oroit-arria baztatu ondoren, azpian Espartero ta Marotok sinatuz ipini eban agiria erre egin eban, bere errauts ondarrak lau aizeetara zabalduta, 1.839ko urtean an sortu ziran guztiak ezereztuteko esangureagaz.

Eta orren ostean idatzi eban agiria, iru gudaloztearen agintari eta erbezteko ordezkari guztiak sinatu eban.

1.874ko urtean, ta Aragoiko orokor jenerala egin ondoren, almogabares´akaz⁽¹⁾ batera, Somorrostro ta Abantoko San Pedoren ekitaldietan be egon zan, VII In Karlosen aintzindaritzen⁽²⁾ agintaritzagaz, eta Kataluñaren orokorrezko kapitain lez.

Kataluñaren orokorrezko kaipaiñ izendatu eban Sabals guda nagusiaren agindutara egon zanean, Kanpostar Martinezek liberalaren guda nagusiak, Urgel´eko Seo´n inguratu eban, eta Lizarraga borroka gogor baten ostean, menperatuta geratu zan lez, or galdu eban karlistak euki eban guda nagusi aundienetariko bat, gudako atxilopean ipini ebelako.

(1) Almogabares´akaz = palabra que deriva del arabe almogávar. Soldado de una tropa escogida que hacía estragos en las fuerzas enemigas. También denominaban así a los soldados Catalanes, que tomaron parte activa en la conquista de Grecia, durante el período de la expansión mediterránea Aragonesa. (2) Aintzindaritzita = jefe del estado mayor de Karlos VII.

1.875eko urtean Lizarragak, VII In Karloseri lagundu eutsen atzerrira.

Eta 1.877ko urtean Abenduaren 7an, Erroman il zan, gure Lizarraga ta Eskiroz'tar Antonio au.

1.27. *Dominguera ta Dorregaraitar Antonio, karlisten "judas" guda nagusia.*

1.823ko urtean Uztaillaren 11n, Zeutan jaio zan Dominguera ta Dorregaraitar Antonio. Eta 1.882ko urtean Epaillaren 21ean, Zaragozan il.

1.835eko urtean eta 12 urte euki zituzenean lerrotu zan karlistaren taldeetan, eta 1.839ko urtean Bergarako ongundearen ostean, liberalaren guda lozteetan lerrotuko zan.

1.868ko urtean eta Iraillako illean egin zan II In Isabelen aurkako matxinada ostean, ostera karlisten guda lozteetan lerrotuko zan.

1.873ko urtean Nafar eta Euskalerriren orokorrezko kapitaiñ izendatu ebenean, Jurramendiren⁽¹⁾ garaipeneko borroketan ibili zan.

Eta 1.874ko urtean, Muro Mendi'ren garaipeneko borroketan be.

1.874-1.875eko urtetan, erdiko⁽²⁾ karlisten guda lozteetan nagusia izan zan.

1.875eko urte erdi inguruan, Jauregiko Kanobasegaz egin eban ongundean, sinatu eban agiria, borroka barik egiteko beren erdiko guda loztearen atzerakada izenpetu eban.

Bilaseka ta Mogas'tar Jose lege gizonak egin eben, ekintza orren artekaritza, 25.000 frankoren orde, eta karlisten agintari maillak ta xingolak, liberalen guda lozteetan onartzea, gudari guztiak bereala liberalaren guda lozteetan lerrokatzeko.

Ekintza oneri "Erdiaren Saldukeria" deitu eutsen, naita bere denboran argitu ez. Onen saldukerizko arrazoiakaz. Kukala guda lozteetan zalatu eben, eta guda-auzitegian epaituz, errugabeko lez askatu eban.

1.28. *Saballs eta Massot'tar Franzizko, karlisten "judas" guda nagusia.*

1.817ko urtean Jeronako La Pera errian jaio zan, 1.886ko urtean Niza'ko Urian il da.

Karlisten leenengo gudaren kapitaiña izan zan Vn Karlosten aginduan, 1.840ko urtean ta guda ostean, Frantzira atzerriratu.

1.842ko urtean, ostera itzultzen da karlisten alde borrokatzeko bigarren gudan, eta karlistek artu eben astiñaldiagaz, Nizara joanda, Modenako guda lozteetan lerrokatu zan.



Saballs eta Massot'tar Franzizko. Karlisten "judas" guda nagusia.

(1) Jurramendiko = Montejurra. (2) Erdiko = Maestrazgo.

1.848ko urtean ostera itzultzen da Kataluñaren alde borrokatzeko Billafrankaren bakeraño, eta gero Batikanoko Laterriaren gudoztetan lerrokatuko zan, auek ezereztu arte.

1.870eko urtean karlisten guda berriz biztuta, VIIIn Karlosek, Kataluñako gudalozteen agintaritza emon eutsen.

Karlisten irugarren borrokan, eta Estartuz´tar Josep´en agintaritzapean, arrigarrizko gauzak egin ebazan bere gudari taldeagaz, beste katalan gudarienzat ikaspidea izan zana.

VIIIn Karlosen anaia Kataluñako ordezkari izan zan Alfonso Karloseri aurkarituz, lortu eban bere gudaloztearen agintaritzan irautea.

Eta 1.874ko Alpens´eko borrokan garaipena lortuz, VIIIn Karlosek Alpesekeo markesaren andiki izena ipini eutsen.

1.874ko urtean Jeronako inguruan, Olot erria artu eban, eta 1.875eko urtean VIIIn Karlosek, Kataluñako orokorrezko kapitaiña izendatu eban.

1.875eko urtean, Seo de Urjel inguratu eta artuta eukela, galdu ebalako, saltzaille lez zalatu eben eta espetxeratuta, 1.876ko urtean askatu eben, eta Frantziko Niza´ra joan zan betirako.

1. 29. *Ziraukiko La Kalle ta Yabar´tar Tirso, “Urgun” edo “El cojo de Zirauki”, Liberalak euken iltzaille madarikatua.*

Ziraukiko “urguna”⁽¹⁾, Nafar liberalak euki eben sasi-gudaria⁽²⁾, 1.845eko urtean Urtarrillaren 28an Ziraukin jaioa, eta 1.920 urtean Urtarrillaren 31n Baltierran il zana.

1.873ko urtean Uztaillaren 13an karlistek, Ziraukiko errian egin eben ilketazko sarraskitik, bizirik geratu ziran 24ko giza semeetatik, bera izan zan aren arteko bat.

Nafar Aldundiko liberalen zaindarizko mutilletan sartu zan, eta karlisten bigarren gudatean, etenbageko ekintza egin eban karlistaren sasi-gudari taldeen aurka.

1.874ko urtean Abenduaren 26ko egunean Mendiri karlisten gudal nagusiak, espainitar gudal nagusi Moriones´eri⁽³⁾ bialtzen dautson eskutitzan ikusten da, zelan:

“Me consta de una manera positiva que por la contraguerrilla de Tirso Lacalle fueron fusilados, cerca de Murillo el Cuende, el día 28 del pasado noviembre, a los tres días de haber sido hechos prisioneros, los soldados del Ejército Real Remigio Saso y Javier Resa, el primero natural de Santacara, perteneciente al séptimo batallón de Navarra, y el segundo, de la ciudad de Calahorra, de una de las partidas volantes, y tengo por cierto que el fusilamiento se llevó a cabo de orden o con aquiescencia de V., por cuanto el jefe de la fuerza, luego de haber hecho la aprehensión, pasó a V. una comunicación sobre el asunto. En vista de la gravedad de este suceso sin precedentes, puesto que no ha sido hijo de un arrebató de cólera, explicable, aunque no disculpable, sino de un frío y premeditado ensañamiento, creo necesario dirigirme a V. para manifestarle que si en breve término no me da una explicación satisfactoria de dichos fusilamientos, fusilaré yo de los prisioneros que existen en nuestros depósitos dos por cada uno de los fusilados...”.

(1) Urgun = cojo. (2) Sasi-gudaria = guerrillero sanguinario de los liberales. (3) Moriones = Moriones eta Murillo´tar Domingo Orokietako markesa eta liberalaren gudal nagusia. Leatxen jaio zan eta Madrillen il. Maeztrazgo edo zaldungoko gudan, eta Esparteroren agindupean egoala igon eban kapitaiñ ordezkora. 1.849ko urtean bere eritzi politiko liberalagaitik alde egin bear izan eban. Eta 1.868ko urtearen Iraillan brigadako jeneraltasunera igon eben, zelaiko mariskala ta Nafarroako orokorrezko kapitaiña egin eben. 1.872ko urtean karlistak menperatu ebazan Orokietako zelaietan, Orokietako markesa eginda. 1.877-1.880urte bitartean Filipinaseko orokorrezko kapitaiñ izan zan.

1.875eko urtean Epaillaren 29an, Ziraukiko "Urgun" orrek, inguratuta euki ebazan karlistei eta euren bizitzak begirunez artuko ebazalakoen eskeintzagaz, etsaimendu jakozan, eta Unx'eko San Martiñ'era eroanda, bertan il ebazan tiros, zortzi karlista orreik.

Urte onen Urtarrillan, beste ainbeste il ebazan Larragan eta Argako Mirandan, Lopez eta Goikoatxea'tar Jose liberalak aukera onetan, Mendirin itza lortuta, liberal geiagorik ez ebala ilgo.

1.875eko urtean Jorraillaren 7an Mendiri karlisten jeneralak, Lakalle'tar urgun ori emon eutsela eskatu eutsoen liberalai, eta jaramonik ez eutsoelako egin, Mendirik 8 liberal gudari artu baituen pillotik, eta Lizarran, tiros il ebazan.

Ziraukiko urgun onek, zaldunetzko kapitain lez amaitu eban guda, eta Filipinasera joan zan urte bi bertan egin.

1.893ko urtean eta bialdu eutsoen leku ezberdiñetatik ibili ondoren, Baltierran geratu zan bizitzen.

1.917ko urtean, liberalakin egon zan Tafallako batzarrean.

1. 30. *Martinez ta Kanpos'tar Arsenio, liberalen guda nagusia.*

1.831ko urtean Abenduaren 14an Segobiako Urian jaio zan, eta 1.900eko urtean Iraillaren 23an Zarautz'en il.

1.852ko urtean gudalozteen aintzindaritzan sartu eban⁽¹⁾.

1.859-1.860ko urteetan, Afrikako gudan egon zan, baita 1.862ko urtean Mexikoren aurka be, eta espainitar ta frantzezarekin, bietan Prin'tar Juan'en agindutara.

1.868ko urtean, II In Isabel kendu eben erregetzatik, eta Kubara bialdu eben, 10 urteko guda asi barri egoala.

1.871ko urtean eta iru urte geroago, Erdiugarte onetara itzuli zan ostera Brigadier guda nagusien maillagaz⁽²⁾, borrokatan euken irabazpideagaitik⁽³⁾.



1.878ko urtean Kubaren orokorrezko jaurlaria. Martinez ta Kanpos'tar Arsenioren irudia.

Erdiugarte onetara eldu zanean, Kataluñara bialdu eben gudaloztearen talde bategaz, karlisten aurka borrokatzeko.

(1) Gudalozteen aintzindaritzan sartu eutsoen = Estado mayor del ejército. (2) Brigadier = General de Brigada, Contralmirante, guarda marina que cuida del orden de su sección. (3) Irabazpideagaitik = por méritos de guerra.

1.873ko urtean Salmeron ta Alonso´tar Nikolas´ek⁽¹⁾, gobernuen barkameneko ta zuzeneragilleko ministruak⁽²⁾, Almansa eta Balentziako lurraldeak meperatu egiezen agindu utson. Errez, lortu ebena.

1.874ko urtean Urtarrillaren 3an Pabiatar Manuelek, laterri-matxinatuagaz⁽³⁾ gor-teak ezereztu ebazan, eta urbil geratu zan 1´go errepublikaren amaiera.

1.31. *Gudalarien aldarrikapena, eta Borboi leiñuaren lengoratzze edo berregintza.*

Kanpos´tar Martinezek, espainitarren erregetzan ostera, Borboiak ezarri zitezen alde egoan, Jauregi´tar Kanobas´ek alderantziz baiña, gura ez ebena, politikaren bakezko ekitaldi bategaz, espainitarren lurraldea, alosokerizko erregatasun baten berriz biurtzea zan.

1.874ko urtean Abenduaren 29an espainitar gobernuakoak, susmo txarrean euki eban Kanpos´tar Martinez ori, eta atzerriratzea erabagi eben.

Kanpos´tar Martinezek oartuta baiña, ta Balentziako Alfonsinoak ezkatzen eutsoelako, Abilara doielakoan, Saguntora joan zan artez, bertan bere aldarrikapena egiteko.

Bitartean baiña, Ramirez de Arellano ta Laban´tar Luis orokorrezko kapitaiñaren ordezkooak, bere Segorbeko gudaloztearen zati bategaz bertora joan zan.



Kanpos´tar Martinezen irudia.

1.874ko urtean Abenduaren 29an, gudari orreikaz lauki bat eginda, Kanpos´tar Martinez´ek eurari begira, II In Isabelen seme XII In Alfonso aldarrikatu eban espainitarren errege lez. Serrano, orduko denboran gobernuko leen ministrua izanda, Kanpos´tar Martinez´ek egin eban aldarrikapenari, ez eutson ezer esan, eta XII In Alfonso geratu zan errege lez.

XII In Alfonso Erdiugarte onetara eldu zanean, karlisten aurka Kataluña ta Nafarroan borrokatzen egon ziran gudalozteak ipini eutsoezan bere agindutara.

Eta 1.875eko urtearen Epaillan, Kataluñan karlisten Uri nagusia izan zan Olot Uria menperatu eban, ta geroago Seo de Urjel inguraturik Dagonillaren illean menperatu eban.

(1) Salmeron eta Alonso´tar nicolás = 1.838ko urtean Almeriako Alhaman jaiola, eta 1.908ko urtean Frantziko Pau´n il zana. Espainitar Krausismo eritziaren arduradun aundienetarikoa izan zana. 1.871-1.873eko urte artean, 1.886ko urtean, eta 1.893-1.907ko urte artean diputadua zana. 1.873ko urtean Barkameneko eta Zuzen Eragillea = ministro de Gracia y Justicia. Bera izanda eleiza ta laterriaren banaketa baieztu ebena. Pi eta Margal´ek gobernu itzi ebenean, berak artu eban agintaritzza, itzi egin bear ebena, berak ez ebelako gura eriotzezko izenpetzerik sinatu. Pabia´k emon eban laterrizko matxintasunagaz eta XII In Alfonso errege egin ebenean, atzerriratu zan, eta ez zan itzuli ostera 1.884ko urterarte. Ortik ona asko idatzita garrantzizko ikas-gaietan. (2) Barkamen eta Zuzen eragilleko ministruak = ministro de gracia y justicia. (3) Laterri matxintasunagaz = golpe de estado.

1.875eko Azillaren 19an, egon ziran aurkaritzak menperatu ondoren, karlisten matxintasunak, ezereztuta geratu ziran. Bereala Nafarroako lurraldeetara joanda, gertzen ziran karlistak menperatzeko.

1.876ko urtean Otsaillaren 28an, XIIIn Alfonso Iruñan sartu zan, eta guda amaituta gero, Kanpos´tar Martinez Orokorrezko Kapitaña egin eben.

1.876ko urtearen ateskundetari Erregetxe edo Gorteko diputadua egin eben Saguntoren erri alde edo lurraldeagaitik, nai ta Azillan diputadutza bertan itzi, Kas-tañon´tar Eduardok artu egian.

1.876ko urte onetan Kubara bialtzen dabe, Orokorrezko Kapitaiñen aginduagaz, zortzi urtetik ona borrokatzen egin ziran gudalozteak bere aginduan ezartzeko.

Ango 20.000 gudariakaz, Kubako Santiagon eta Las Billaseko matxinatuak menperatu ebazan.

Gero, oartu ondoren borroka aiek luzeak zirala, eta alde biak oso makal egon zirala, batera ugarteko giza semeak larritasunezko aukerean egokituz, Kanpos´tar Martinez´ek, politikasko arloetan bera, gibel edo eroapeneko eritzikoa izanda, matxino aiekin alkar-ikuste batzuk antolatu ebazan.

Eta orduan, orokorrezko barkamena agindu eban lez, borrokak izten ebazanai, geienak asi ziran eukezan izkilluak bertan izten.

1.878ko urtean Otsaillaren 7an, Kanpos´tar Martinez´ek, matxinatuen agintari izan zan Garzia ta Gonzalez´tar Bizentegaz, ostonduko alkar izketa bat euki eban, eta izkilluak izteko zelako baldintzakin izando zala erakutsi ondoren.

1.878ko urtean Otsaillaren 10ean Zajon´eko bakea sinatu eben, eta 10 urteko borrokari amaiera emon eutsoen, Kubako gobernuari eukera geiago emonda, eta joputza edo etsaimendeak kendu edo ezereztu ondoren⁽¹⁾.

1.879ko urtean Kanpos´tar Martinez itzuli zan Erdiugarte ontara.

Eta 1.879ko urtean Epaillaren 7an Kanpos´tar Martinez´ek beren baliotasunagaitik senatore izanda, Jauregi´tar Kanobas´ek aginduta, Ministruen Aolkularitzaren Lendararitza, ta gudaren ministeritza artu eban liberalaren aldetik.

1.879ko urtean Abenduaren 9an Kanobasek, kendu eban agintarizko leku orretatik, eta konturatu zanean, Jauregi´tar Kanobas´en aldetik, panpiña bat lez erabilitakoa izan zala, bere liberal alderdi edo Kanobasen alderdia itzi, ta Sagastaren liberal alderdira aldatu zan.

1.881-1.883ko urte bitartean Gudarako Ministria izan zan Sagastaren gobernuan, eta agindu orretan egoala, “orokorrezko gudarien ikastetxeko” sorraldiakaz⁽²⁾ arduratu zan.

Eta 1.882ko urtean Otsaillaren 20an, XIIIn Alfonso erregea eta Kanpostar Martinez´ek siñatuta, sorraldiko´en agindu bat argitaratu zan, zelan Toledoko Gazteluaren Ikastetxea irasten zala.



Kanpos´tar Martinez´eri, Kataluñan egineko gaiztakeria.

(1) Joputza edo etsaimendetasuna ezereztuta = abolición de la esclavitud. (2) Sorraldiakaz = creaciones de academias militares.

1, 990eko urtetik, Melillan egon ziran espainitarren gudalozteak, eta Rif'eko leiñuen arteko borrokak nabaritasunean, ugaritzen joan ziran.

1.990eko urtean Urrillaren 2an, Uriaren kanpo aldetik ta Uria babesteko, atxilotutako gizonak lanean egiten egon ziran gaztelua, bai ta eurak zaintzen egon ziran espainitar gudariak, il ebazan.

1.893ko urtean Iraillaren 24an Kanpos ta Martinez'tar Isidroko Kataluñako Orokorrezko Kapitain egoala, ta Bartzelonan Merzez'eko jaietan, gudarien lerro-aldia⁽¹⁾ ikusten, Pallastar Paulino legebagekoak⁽²⁾, gaiztakeri⁽³⁾ gogor bat egin eutson, zauri txikerrakin bakarrik urtenda.

1.893ko urtean Urrillaren 27 eta 28ko egunerarte, mauritarrak egiten ebazan erasoak ugaritzen joan ziran, arik eta egun onetan "goiko aunts borda" edo "goiko auntszegiko" gazteluari⁽⁴⁾ eraso gogor bat egin arte. Berton, Garzia ta Margallo'tar Juan talde burua⁽⁵⁾, Melillako guda jaurlaria, bere gudari askorekin il ebalako, gobernuak, bereala antolatu eban 20.000ko gudari talde bat, Kanpos ta Martinez'tar Isidroren aginduan bialdu ebena.

Gudaren beldur I Hassan mairu erregeak⁽⁶⁾, bere anaia bialdu eban gudalozte sendo bategaz, Rif'eko gizeli edo leiñuak, kontrolpean ezartzeko.

1.894ko urtean Epaillaren 5ean, Kanpos ta Martineztar Isidroko I Hassan mairu erregeagaz, bakezko agiri bat sinatu eban, guda borrokari, amaiera emoteko.

1.895eko urtean, eta Kubako guda ostera barriztuta, Kanpos ta Martinez'tar Isidro bialdu eban Kubako ugartera Jaurlari lez, aukera onetan baiña, bakezko alegiñak ez eban emon ondore onik, eta ez ebalako gogortasunezko erasorik egin matxinatuei, 1.876ko urtean aldatu eban Weyler'tar Baleriano jeneralagaitik, ostera Erdiugarte onetara itzulita.

1.896ko urtean Urtarrillaren 19an argitaratu eban Madrilleko Gazeta aldizkariak, zelan Itsas Gudako Aolkularitzaren lendakari izendatzen ebala. Eta illabete bat barruan, itzi eban lan ori.

1.900eko urtean Iraillaren 23an, Zarautzen il zan Kanpos'tar Martinez au.

1.32. *Kesada ta Bizente'tar Jenaro, espainitar liberalen aldetik.*

1.782ko urtean Iraillaren 19an, La Abanan jaio zan Jenaro ta Kesada'tar Bizente Momkayoko markesa, eta 1.836ko urtean Dagonillaren 15ean, Madrilleko Iparraldean dauan Ortaleza⁽⁷⁾ errixoan il zan espainitar gudal agintari nagusi au.

Jaen'en jaiotako Nepomuzeno ta Kesada'tar Juan Nikaraguako jaurlariaren, eta La Abanan jaiotako Arango ta Castillo'tar Josefaren semea zan.

1.782ko urtean Urrillaren 3an La Abanako Santo Kustodio Angeruaren eleizan bateatu eban, bere aitak aurreratik erabagita, Bizente bere semea, gudari izango zala.

1.794ko urtean lerrotu zan, Kuba'ren oiñez taldeko 3garrengo txanbergan⁽⁸⁾, 1.796ko urteraino bertan egonda. Urte onetan erregeak Kadete izendatuta, Errege-Zaintzaren ikastegian⁽⁹⁾ sartu eban, gudarako bear ziran jakintzak ikasteko.

(1) Lerro-aldi = desfile. (2) Legebagekoa = anarquista. (3) Gaiztakeria = atentado. (4) Goiko "Auntszegiko" gazteluari = fuerte de las cabrerizas altas. (5) Talde burua = general de división. (6) Mairu erregeak = el sultan. (7) Oraleza = Hortaleza. (8) Txanberga = batallón. (9) Errege Zaintzaren ikastegia = nagusitasunezko semeen gudal-ikastetxea, ikasketa orren bidez, gudal agintarira agoten ebanak, be maillako lerroaren gainetik.



Kesada ta Bizente´tar Jenaro´ren Irudia

1. 33. *Espainitarren Askatasunezko guda.*

1.808ko urtean eldu zan Madrillera Kesada´tar Bizente au, eta Baloien Zaintzarizko⁽¹⁾ aldean lerrotuta, Madrilleko Loraillaren 2an Napoleonen aurka sortutako espainitarren matxintasunean be, egon zan.

Madrilletik alde eginda, Badajos´en babestu ziran gudalariakaz alkartu zan, eta bertan asi zan gudalozte bat antolatzen, Napoleonen aurka borrokatzeko.

Koronel ordezkoa izendatu eben, eta bera ipini eben Plasenziako gogozko leen txanbergako gudari taldearen agintari.

Geroago, Baloi zaintzarien laugarreneko txanbergaren agintari ipinita.

1.808ko urtean Azillaren 10ean Estremaduraren gudalozteko talde au, Zar-Gaztelara aldatu zan borrokatzen, eta bertako Gramonal borrokan, 11 biderrez zauritu ondoren, Frantziko Dijon´en espetxeratu eben frantzezak.

Frantziako espetxe ortatik, bi aldiz iges egiteko alegiñak egin ondoren, lortu eban askenean Kataluñara iges egitea, eta itsas ontzi baten Kadiz´era joan zan.

Kadiz´eko gudalozteetan lerrokatu zan, eta ez eutsoen emon, berak uste eban general brigadierren mailla egokitzen jakona, eta gitziago, iñungo borroketara bialdu, arik eta Santanderreko guda-jaurleri ta politikukak, izendatu eben arte.

1. 34. *Kesada, VIIIn Fernando erregearen denboran.*

VIIIn Fernando, ostera ezarri zanean bere errege aulkian, brigadier maillako jenerala egin eben, bai ta xingola batzuk emon be, berak eukineko zauri ta espetxetasunagaitik.

1.812ko konstituzioaren aurka egoteagaitik, kendu eben bere lan guztietatik, eta Frantzira atzerriratu zan.

Frantzian egoala, erregeen alosokerizko aldeko taldean sartu zan, eta Nafarroako gudaloztearen orokorrezko kapitaiña izendatu eben, frantzezaren gudalozteakaz sartu zanean.

(1) Baloien Zaintzarizko = Guardia Valona.

VIIIn Fernando bere errege aukia berrezkuratu ebanean, Kesada, Granada, Balentzia, Murztzia eta Gipuzkoara bialdu eben ostean, 1.825eko urtean, Andaluziaren orokorrezko kapitaiña izendatu eban, garaipen asko eta aundiak lortuta konstituziozko gudozotzearen aurka, eta baita bideetatik ibiltzen ziran lapurraren aurka.

1.831ko urtean, Madrillen ipini eutsoen guda bulego bat, erregeen zaintzarako bear zan gudozotzeen agintari nagusia izendatuta, eta bai ta oiñezko lerro ta oiñezko azkar gudarien taldeak bertotik bideratzeko.

VIIIn Fernando il zanean, IIn Isabelen inguruan egon ziran politika ta aolkularitzazko ministruak, karlisten alde egongo zalakoan, euren zalantzak euki ebezalako Kesadagaitik, gortetik urruntzeko, Andaluziko orokorrezko kapitaiña izendatu eben.

Kesada, atzerritasun bat lez artu ondoren, asarre geratu zan ministruen erabagi orregaitik,

1.35. *Kesada, karlisten leenengo gudan.*

Zea ta Bermudez´tar Franzizkoren gobernuko kideai, bere gizalege ta zintzotasunak ezagutzera emon ondoren, beraganatu ebazan, eta Zaar-Gaztelaren orokorrezko kapitaiña izendatu eban, Balladolizetik bideratzeko.

Eta Merinotar Jeronimok egin ebazan karlisten sasigudak geratu ebazalako, Gaztelako izen burua ipini gura eutsoen, berak, Monkayoko markesaren izen burua artuta.

1.834ko urtean Urtarrillan, Nafarroako erregeen ordezkoa izendatu eban, Iparraldeko gudozotzearen agintaritzagaz. Agintaritz orretan ipinita, arazo aundiak sortu jakozan Zumalakaregiren gudozotzeak eukin indarrakin, eta Jorraillan Zumalakarregik, guda jarraigo bat⁽¹⁾ atrapau eutson, eta baita Iruña inguratu be. Liberalaren aldizkariak, Kesadari bota eutsoen erru guztiak, eta Bagillako illean kendu eben agintaritz orretatik.

1.836ko urtearen Dagonillan, San Ildenfonso Jai-etxe edo eguras-etxean sortu ziran matxintasunetik, alde gura izan eban Madrilleko Iparraldean, Ortalezako errian euki ebazan lagun batzuen etxera, eta andik ibili zan jende-parrasta⁽²⁾ bategaitik, IIn Isabelen bular-eskol⁽³⁾ ibilte eben zalduneko gudariak⁽⁴⁾ baiño ariñago ikusi ebelako, berto il eban.

1. 36. *Perula ta de la Parra´tar Jose, karlisten guda nagusia.*

1.830ean, Nafarroaren Iruñako lurraldean, Sesmako erritxoan jaiotako Perula ta de la Parra´tar Jose, ta 1.881eko urtean Pontebedrako lurraldean, Tuy´ko eleiz barrutiko lurraldean dagon Mondariz erritxoan il zan, karlisten guda nagusi au.

1.855eko urtean zalduneko kapitaiña izan zan, Burgoseko lurraldearen burdiñezko⁽⁵⁾ taldeagaz, ta Vn Karlosen ikurrari goian eutsi eutsoeneko bat izanda, atxilotu eben, Kubara bialduta zigortuz, zortzi urtetan, espainitar be maillako soldadu lez ibili zedin.

1.858ko urtean ta parkamen baten bidez, Erdiugarte onetara etorri zan, eta Marrokosen guda sortu zanean, gogozko zaldunen gudari lez lerrotuta, Euskal gudozotzearen edo Tertzioen agintari lez amaitu eban.

(1) Guda jarraigo bat = convoy militar. (2) Jende-parrasta = turbamulta, multitud de gente en aptitud desordenada. (3) Bular-eskol = coraza. Eta bular eskol ori eroaten eben zaldunak = coraceros. (4) IIn Isabelen, bular-eskol ibilte eben zalduneko gudariak baiño ariñago ikusi ebelako = Y como fué visto por la turbamulta, antes que los coraceros de la reina Isabel II, allí mismo fué muerto. (5) Burgoseko Burdiñezko taldea = la partida de los Hierros que en Burgos sostenía la bandera de don Carlos.

Rapitako matxintasunean, kapitain lez izendatu eban Montemolineko kondeak, eta porrot egin ondoren, Korellara etorri zan baratari⁽¹⁾ edo agirien idazle lez.

1.868ko urtean eguras-etxearen edo jai-etxearen matxintasunean, In Isabeleri eskeiñi eutson bere laguntasuna atzerrira joateko. Paris´era elduta baiña, Borbon´tar Karlosen agindutara ipini zan, Bebey´eko⁽²⁾ batzarrera joanda, eta baita 1.872ko urtearen Udabarrian karlistak egin eben joan-aldi edo gud-aldian⁽³⁾.

Ez eban gura, Zornotza edo Amorebietako ongundepean ezarri, ta ostera atzerriratu zan.

1.872ko urtean Abenduaren 21ean etorri zan ostera Erdiugarte ontara, Olo brigadierren agindupean, eta iru egun barru 50 gogozko mutil gudariekin, Sesma bere erria, liberalaren babes toki lez egoana, menderatu eban

1.873ko urtearen Otsailako asieran, Bizkaia ta Arabatik, gud-aldi bat egin eban.

1.873ko urtean Otsailako illea amaitu barik, Nafar zaldunezko talde bat antolatu eban.

Beste sarrera gogor bat be egin eban Logroño, Burgos eta Arabatik, itzulkeran gudari bat galdu bage, naita bere atzetik liberal gudalozte sendoak euki arren.

1.874ko urtearen Bagillan, general ordego maillara edo brigadier maillara igon eben, Lizarraren artueran, Alloko borrokan, eta Somorrostroko ekiñaldietan egin ebenagaitik.

Kalagorri edo Kalagurriko borrokatan, 100 liberal gudari atxilotu ebazan, eta 300 izkillutik gora arrapau. Ta Karraskaleko borrokan gudalarien gurutz aundiagaz xingolatuz, Lakar´eko borrokan egin ebenagaitik, Zelaiko Mariskalaren gerrikoa ipini eutsoen.

1.875eko urtearen Uztaillan eta gauza guzti oneik egin ondoren, opor aldi bat emon eutsoen bere gaitzaldiagaitik, ortik urtenda, karlisten Iparraldeko gudaloztearen agintari nagusi lez ipinita.

1.875eko urtearen Uztaillan eta agintaritza ori artu eben urrengoko egunean, Trebiñoko borrokea galdu eban.

1.875eko urtearen Dagonillan, Miraballeseko-Orikain´eko borrokan, ostera menderatu eban Kesada´tar Jenarok, eta bere utziera aurkeztuta VIIIn Karloseri, onek onartu eutson bere erabagi ori, utziera orregaz batera, Nafartarren orokorrezko komandant-etxeke agintari izendatuta.

1.876ko urtean Urtarrillaren 30ean, Mañeruko Santa Barbaratik bota ebazan liberal gudalozteak, asken baten Frantzira atzerriraturuz.

Asken denboratan, eta Mañerun egin ebazan mugimenduagaitik, saltzaille lez artu eban. Egia baiña, Abanara joanda dirua lortzeko, il zanean, ez ebala euki txakur-txiki bat bera esanda be.

1. 37. *Mendiri ta Kolera´tar Torcuato, karlisten gudal nagusia.*

1.813ko urtean, Allo´ko errian jaio zan gure Mendiri ta Kolera´tar Torcuato Abarzuzako konde au. Eta 1.884ko urtean, Tudelan il.

1.833ko urtean oraindiño 20 urte egin barik, karlisten gudalozteko kapitain izendatu eben, berak lenengo karlisten gudan Zumalakarregiren agindutara erakutsi eban kemenezko indar eta zentzun aundiz egin ebazanagaitik.

(1) Baratari = Notario. (2) Bebey edo Vevey = Suizan, Vaud edo Baud´eko erri-aldeko lurraldean eta Jinebrako ur-geldi inguruan dauan erritxo da, txokolatzeko arloetan aiñ jakintsu ta aberatsa dana. (3) Gud-aldiak = expediciones militares que se hacían para atraer a su bando las simpatías de los pueblos.

Karlisten leenengo guda amaitu zanean, Frantzira atzerriratu zan, eta Bergaran egin eben saldukerizko besarkada ostean, ostera etorri zan Erdiugarte onetara, liberalen gualozteetan lerrokatzeko koronel orde edo teniente koronelen agintaritzazko maillagaz.

1.845eko urtean Uztaillaren 17an, Larragaren San Migeleko eleizan ezkondu zan, Arriazu ta de la Kruz-Andorra ´tar Juanagaz, lur-jabe ta gualari karlista izan zan de Paula ta Arriazu ta Walpole ´tar Franzizkoren alaba zanagaz. XVIIIIn gizaldian eta amaren bidetik, Robert Walpole politikoa eta, Orford ´eko 1º kondearen zuzeneko sendikoa zana.

Mendiri ´tar Torkuatok, karlisten bigarren guda amaitu zanean , Frantzira atzerriratu zan koronel gudari maillagaz.

Eta urte batzuen ostean, ostera etorri zan Erdiugarte onetara.

1.873ko urtean aske geratu zan liberalen gualozteetatik eta ostera asi zan karlisten gualozteetan lerrokatzeko.

1.874ko urtean Abarzuza ondoan dagon Muru mendian menderatuko ebazan, liberalak euki ebazan gualozteak, eta VIIIn Karlosek ekintza auegandik, Abarzuzako markesado eta kondetzagaz omendatuko eban.

1.875eko urtean, Kataluñako komandant agintaria izendatuz, gual nagusi guztien gaiñetik geratuko zan karlistaren irugarreneko guda onetan.

Agintari onetan egoala baiña, zalantzan geratuko zan bere gizalegetasuna, eta berak ez eban euki beste zeregiñik, Frantzira atzerriratzea baiño.

1.876ko urtean, Karlisten guda amaitu zanean, ostera etorri zan Erdiugarte ontara, eta liberalaren gualozteetan lerrokatu zan ostera general de brigada bezela.

1. 38. *Borbon ´tar XIIIn Alfonso espainitarren errege.*

1.857ko urtean Azaroaren 28an jaiotako Madrilleko erregearen jauretxean, XIIIn Alfonso espainiarren ustez “Paketzaille” izen-goitiagaz esagutuko zana.

Eta 1.885eko urtean Azaroaren 25ean, Madrilleko Pardoan il.

1.874ko urtetik-1.885eko urte bitartean espainitarren errege izan zan.

Bere benetako aita, 1.866ko urtean Madrilleko San Gil gualtegian azpikeriz, tiros il eben Puigmolto ´tar Enrike, guda injinieruen koronela zana.

IIIn Isabel erregeñaren eta Asis ´eko Borboi ´tar Franzizkoren semea izan zan agirietan, naita bere aita, Puigmolto ´tar Enrike, injiniero ´en kapitaiña izan arren, edo beste ainbateko bat, edestilariak esaten dauen lez.



XIIIn Alfonso ´ren irudia, bere armarria eta bere izenpeko zirriborroa.

Beren erregetzagaz, 1go errepubikari amaiera emon eutson, eta berritzailetasunezko⁽¹⁾ aldiari, asiera.

XIIIn Alfonso 27 urtegaz, bularretako gaitzaldiagaz il zanean, bere il gerozko seme, XIIIIn Alfonso igon eban erregetzazko aulkira, bere amama Maria Kristinaren errege ordegotzan. XIIIn Alfonso oneri, Asturiaseko Printzearen izen burua ipini eutsoenean, lau arreba euki zituzten:

1.851-1.931ko urte bitartean bizi zan Isabel, Girgentiko kondesa izan zana.

1.861-1.879ko urte bitartean bizi zana, errege alaba lez.

1.862-1.946ko urte bitartean bizi zan Bakezko Maria⁽²⁾ Babierako Printzea lez.

1.864-1.958ko urte bitartean bizi zan Maria Eulalia, Gallierako dukesa lez bizi zana.

XIIIn Alfonsoren irakasle artean: Sesto'ko dukea, eta IIIn Isabelek IXn Pio aita santuari galdetu ondoren, Burgos'eko gongotzain edo artx-apezpikua aurkitzen ziran.

1. 39. *IIIn Isabel erregetzatik kentzea, ta XIIIn Alfonsoren ikas bideak.*

1.868ko urtearen Aintzagarrizko edo Ospagarrizko iraultzagaz⁽³⁾ XIIIn Alfonso ume bat zala, kendu eben bere ama Isabel erregetzazko zereginetatik, Frantzira erbesterazota.

IIIn Isabel eta bere senar Asis'eko Franzizko, Parisen, bizitzeko bananduta bizi ba ziran, bere amak, Europatik zabaltzeko euken aukera ori XIIIn Alfonsorentzat, oso aberasgarria izan zan, Frantzez, Austria, ta Ingalaterrak euki ebezan arauak politikako arloetan esagutu ebazalako. Eta bera izan zalako Asturiaseko Printze guztitik, atzerriko mail andiko ikastexa ta gudalarien ikasteetxetan ikasten ibili zana.

XIIIn Alfonso leen, Paris'eko Stanislas ikastetxean sartu eben.

1.869ko urtean Iraillaren 29an, XIIIn Alfonso'ren senidetasuna, aldi baterako beintzat, Jinebrara aldatu zan, XIIIn Alfonsok ikastaro edo ikas-aldi bereziak artu arren, erriko Jakitun Batzarretara⁽⁴⁾ be joanda.

XIIIn Alfonsoren urrengo ikasketak beteteko, Bienako Teresiana Errege ta Kaisarezko Jakitunen Batzar ikastetxera joan zan.

Askenean, Ingalaterrako Sandhurst Guda-ikastetxera eroanda, erri orretan Ingles'tarren batzangotasunezko konstituzioaren legeak esagutuko ebazan.

Denbora onetan, IIIn Isabelek euki zituzten diru estutasunak jakiten dira, XIIIn Alfonsok, bere ikas tokietatik eskutitz, amarekin euki ebazan kontakizunen bidetik.

1.870eko urtean Bagillaren 25ean IIIn Isabelek Paris'en sinatu eban agiriakaz, bere seme XIIIn Alfonsoren eskuetan itzi ebazan erregetzazko ardura guztiak, espainitarrek, legezko errege lez artu egien.

Espainitarren artean bitartez, jaurkintz ezberdiñak aldatu ziran:

1.868-1.870eko urte bitartean aldi baterako sortu zan jaurkintza⁽⁵⁾.

1.870-1873ko urte bitartean, I Amadeo'ren demokrazizko jaurkintza.

Eta 1.873-1.874ko urte bitartean, I Errepublika.

(1)Berritzailetasunezko aldiari asiera emon = su reinado dió fin a la 1ª república y comienzo a época de la restauración. (2) Bakezko Maria = Maria de la Paz. (3) Aintzagarrizko edo Ospagarrizko Iraultza = Revolución de la Gloriosa lez esagutu zana. (4) Jakitun Batzarrera = Academia Pública de esa ciudad Cantonal. (5) Aldi baterako sortu zan jaurkintza = gobierno provisional.

1.874ko urtearen Urtarrilan ezereztu zan I Errepublika au, eta bizia euki eban, arik eta Pabia gudal nagusiak, Laterrien aurkako matxinada egin arte, bigarren aldia zabaldu egin ebana, sortuko ziran jaurkintz baragarriarentzat.

Sei urteko epe aldi demokratiko oneitan ?, XIIIn Alfonsoren gorteko eskubideak, Jauretze ta Kanobas´tar Antoniogaitik bideratuta egon ziran.

1. 40. *XIIIn Alfonso, errege al izatera.*

1.874ko urtean Abenduaren 1eko egunean XIIIn Alfonsok, Ingalaterraren Egoaldeko Sandhurst⁽¹⁾ errixoan, Ingelesak sortutako gudari ikastetxetik, eta XIIIn Alfonso bertan ikasten egoala, espainitarrai aldarrikatu eutsoen aurkezpenean, au esaten eutsoen: “Bera, katolikoa, espainitarra, konstituzio barriaren aldekoa, liberala, eta espainitarrai serbitzeko gogoz beteta, egoan gizona zala”.

1.874ko urtean Abenduaren 29an, Martinez ta Kanpos´tar Arseniok Balentziako Saguntotik, XIIIn Alfonsoren alde aldarrikatu ebenean bere eritzia, berriztu egin zan erregetzazko jaurkintza Erdiugarte onetan, Euskaldun, Katalan, eta Galleguen aberkideko eskubide guztien gainetik. Egun orreitan, Serrano´tar gudal nagusia izan zan Laterriaren agintari, eta Sagasta, gobernuaren jaurlari.

1.874ko urtean Abenduaren 31n, gobernuaren agintarizko agiri bategaz, Ordezko Ministeritza ezarri zan espainitarren lurraldean, XIIIn Alfonso etorriarte edo adiñ neurrira elduarte, Kanobasek, lendakari lez jaurritu zedin.

1.875eko urtearen Urtarrillan eldu zan XIIIn Alfonso Erdiugarte onetara, eta errege lez aldarrikatu eben espainitar gorreen aurrean.

1.875eko urtean Urtarrillaren 9an XIIIn Alfonsok, Kanobas izendatu eban Ministruen Aolkularitzazko batzordearen lendakari, bai ta beste ministruen lanpostuak be.

Bere erregetza geien, espainitar errege leiñuen sendotzea, ta konstituzioaren ezarpena gogortu edo ta finkatzea zan, sei urtetan guzurrez betetako estabaidakaz eta matxinatuzko zalantzan, ain txarto geratu ziranak.

Orren ekintzagaitik “Pakegillaren” guzurrezko izena irabazi eban. Eta guzurrean zaldikatuta gagozelako 325eko urtetik edo Nizeako eleiz-kaisar batzarretik ona, ekin-tza guztiak, guda indarrez edo izkillu bidez egin bear izan dira, “guzurra, egi lez, ezin leikelako aurkeztu edo biurtu”.

1.875eko urtean Otsaillaren 13an XIIIn Alfonso errege lez egoalako, beste agintaritzazko agiri bategaz, ararte egon zan Ordezko Ministeritza kendu zan, ez XIIIn Alfonso egon zalako bakarrik, geienetan, ezin ebelako bakez eroan, ezereen zentzunezko agindurik.

325eko urtetik, Katolikotasunezko aberriaren kaisertzazko guzurrean ezarrita, eta dan guztia katolikotasunezko aberkidetzaren guzurragaz zikindu zalako egia asieratik, gauza bat bera esanda be, ez zan oldoztu bakearen edo berezko arrazoiaren eritziekin edesti guztian. Guzurrak, guzurrezko zentzuakaz bakarrik alkartu bear ziralako, eta berezetasunaren legez, guzurra oiñarrietatik asten dalako okertzen, kanpoko alegiñ orreik egitan biurtzeko, zentzun edo ta zuzentasunezko bidera eroateko alegiñetan, borrokak baiño besterik ez dabe sortzen. “Guzurrak”, “Egitan” biurtu gura ezkeru.

(1) Sandhurst = Ingalaterraren Egoaldean, Berkshire´ko errian dagoena, 1.802ko urtean Ingelesak sortu eben gudariaren ikastetxetik, XIIIn Alfonsok, bertatik ikasten egoala, espainitarrai aldarrikatu eutsoen bere aurkezpena errege lez.

Jakiña da, edo bereztasunezko legea izateagaitik, argi agertzen jaku: “Bolbora edo lerrautsa, piztutako poxpollo bategaz zorro baten sartu ezker” eztanda egiten dauala, egia ta guzurra, benetako aurkariak diralako.

1.876ko urtean onartu eben espainitarrak konstituzio barri ori, karlisten borroka be urte orretan amaituta. VIIIn Karlos bera egon zan azken borroka orren porrota ikusten.

Euskal-Nafar, Katalan eta Galleguen foruak be murriztu ebazan, errigizarte oiek guztiz minduta itziz. Kubako ugaratean Zanjón'eko ongundeagaz, bake antzeko bat lortuko eben, ez ebena balio ezer, kubatarrak, laster lortu ebelako euren askatasuna.

1.878-1.879ko urtetan XIIIn Alfonsori, legearen etsaiezkoak edo legebagekoak⁽¹⁾ be, gaitzakeri bi egin eutsuezan, min barik urtenda.

1.883ko urtean XIIIn Alfonsok, Beljika, Austria, Alemania ta Frantzira joan zan agintezko ikuste bat egitera.

Eta Alemanian, Alsaziako gudari-zaintzako taldearen oorezko koronelaren izenagaz jantzi gura eben, Alfonsok onartu ebana, eta Frantzezari irabazitako lurraldea izan zan lez, oso asarre agertu ziran oneik Alfonsorekin. Parisera joan zanean, ondo baiño obeto erakutsi eutsoena.

1.885eko urtean Alemanak, eurentzat gura ebazan, Itsas-Nausian, espainitarrenak ziran Karolinako ugarateak, eta bion artean borrokan egiteko prest agertuta, urte onetan egin eben espainitar-Aleman ongundeko batzarrean, jabetasuna espainitarren alde geratu arren, Karolinaseko ugarateetan espainitarren aldetik, Alemandarrak gudarako gura eben itsas-kai bat eraikitako eskubidea galdu eben, bai ta, alemaniaren alde geratu ziran Marsall'eko ugarateak.

1.885eko urte orretan, beazun edo gibel-ur beltz'eko izurri edo elderria⁽²⁾ zabaldu zan Balentziatik, Erdiugarte onen erdirantza zabaltzen asi zana, eta XIIIn Alfonso Aranjuezera eldu zanean, gaixoak ikusi gura ebazala esan eban, ta Jauregiko Kanobasek espainitarren gobernuko leen ministruak, Alfonsok euken kutsapenaren arriskuagaitik, ezetza emon arren, XIIIn Alfonso ñori jamonik egin barik joan zan gaixo orreik ikustera.

Bertara eldu zanean, eta zaindarizko gudariak sartu zitezen, erregeak, jauregiaren atea zabaldu egiezala agindu eban.

Eta guzti orreik egin ostean, gaixoak ikustera joan zan, auek lasaitasunean ezar gurean, laguntzak banatuaz batera.

Kanobasen gobernukoak, jakin ebenean erregeak egin ebenagaz, bereala bialdu ebazan orokorrezko kapitaiña, zuzentasunerako ministrua, eta gizartearen jaurlaria, erregea oster barkamen eskatuz, oster Madrillera eroan egien. Madrilleko erritarak ori jakin eban, bidera urten eutsoen, eta zaldiak gurdiaren lotutasunetik askatuz, eurak eroan eben zalgurdi ori erregeen jauregirarte.

1.885eko urtean Azillaren 25ean il zan XIIIn Alfonso gaitzepezko⁽³⁾ gaixotasunagaz.

1. 41. *XIIIn Alfonsoren ezkontza, eta euki zituzen alaba- semeak.*

Birritan ezkondu zan XIIIn Alfonso au:

1.878ko urtean Urtarrillaren 23an Maria de las Mercedes de Orleáns, Montpensier'eko dukeen alaba zanagaz, bost illabete barru, sukar-beltz edo gaitzepezlagaz il zana⁽²⁾.

(1) Legebagekoak edo lege-etsaiezkoak = Ácratas, anarquistas. (2) Beazun edo gibel-ur beltz'eko izurri edo elderria = epidemia de cólera. (3) Gaitzepezko gaixotasuna = tuberculosis. (4) Sukar-beltz edo gaitzepezlagaz il zana = que murió de tifus = sukar-beltz, o de tuberculosis: gaitzepez.

Eta 1.879ko urtean Azillaren 29an Absburgo ta Lorena'tar Maria Kristinagaz, Austriako Kaisar I Frantzizko Jose'ren bigarren lengusiñagaz.

Iru alaba-seme euki ebazan onegaz:

1.880 jaio ta 1.904ko urtean il zan Mercedes'eko Maria, Asturiaseko printzea zana, espainitar erregearen alaba izateagaitik, eta Bi Sisiliako Borbon'tar Karlosekin (1.870-1.949) ezkondu zana.

1.882ko urtean jaio ta 1.912ko urtean il zan, Maria Teresa, espainitar erregearen alaba. Babierako Fernandogaz ezkondu zana.

1.886ko urtean jaio ta 1.941eko urtean, XIIIn Alfonso il da gero jaio zan semea, gero, XIIIIn Alfonsoren izenagaz errege izango zana, eta Battenberg'eko Bitoria Eujenagaz ezkonduko zana.

XIIIn Alfonsok, beste seme bi be euki zituzen, Sanz'tar Elena abeslariagaz:

1.880ko urtean jaio ta 1.970ko urtean il zan Alfonso.

Eta 1.880ko urtean jaio ta 1.922ko urtean il zan Fernando.

XIIIn Alfonsoren emazte Maria Kristina, 1.902ko urterarte izango zan, XIIIIn Alfonso, bere semearen errege ordea.

1. 42. *Kanobas ta Jauregui 'tar Antonio*⁽¹⁾.

1.828ko urtean Otsaillaren 8an, Malagan jaio zan Kanobas ta Jauregi'tar Antonio au, eta 1.897ko urtean Dagonillaren 8an Gipuzkoako Mondragoian il. Kanobas ta Jauregui'tar Antonio au, Kanobas eta Gartzia, Alikanteko Oriuelan jaio zan maisua, eta Jauregiko ta Estebanez'tar Juanaren semea zan.

Juana ama, Jauregiko Juan Jose'en alaba zan, eta Estebanez ta Kalderon'tar Serafin, mauritar idazlearen kuxin edo arreba-lengusiña⁽²⁾.

Kanobasen ikasketak, aldizkari berrien idazkari lez joan ziran, 17 urte eukezala, "La Joven Malaga"ko aldizkaria bideratzen ebalta, 1.845eko urtean, 14 zenbakiraiño argituz.

1.849ko urtean eta beste aladizkari artean, berak Madrilleko astekari "La Patria"ren aldizkarian, antzerketa'ren irizt-emaille, irizte edo irizpidetu egiten ebazan, 1.850eko urtean, bere zuzentasuna artuz.

1.850eko urtean Kanobas'ek, edesti arloan: "Espainitar Edestiaren Maldabera" idatzi eban, bide batez, bere politikako ikasketak artuz, "La Patria"ren zuzendari izan zan Patxeko'tar Joakin Franzizkoren eskutik, onek O'Donnell'en taldean, Ministru batzar edo aolkularitzan, lendakaria izanda.

"La Patria" aldizkariaren zuzendari izan zan Patxeko'tar Joakin Franzizkoren eskutik politikan sartuta, 1.854ko urtean egin zan iraultzaren sortzaillea izanez gain, berak idatzi eban, "Manzanareseko Aldarrikapenaren" agiri ori.

Eta 1.854ko urtean idaz egille lez, edestiaren buruz argitaratu eban, "Espainitarren Maldaberako Edestia"gaz.

Edestilari ta espainitar politikoa zan, eta espainitarren politiko nagusia XIXko gizaldiaren askeneko erdi zatian.

(1) Jáuregui ta Kanobas'tar Antonio = Antonio Cánovas del Castillo. (2) Kuxin edo arreba-lengusiña = prima hermana de.

Bai ta XIIIn Alfonsok euki eben aolkularitzazko babesle aundiena, berrikuntzaren politikan, aundiena izan da.

1.854ko urtean Liberal Batuaren kide izanda, konstituziozko auteskunteetan, Malaga aldetik aukeratu eben, eta O'Donnell kendu ebenean, Kadiz'eko erritarren gobernari edo jaurlari egin eben. Berak sortutako, gordetzaille alderdiaren aundikoenean bihurtuko zan, eta sei bider izan zan espainitarren gobernuko leen ministrua, Práxedes Mateo Sagaztagaz ministeritza ori aldatuz, biok konstituzioaren espainitar aldekoak izanda, itxurazko eskuin ezkerrezko aurkaritzaren ekintza ori, bion artean ezarri ta eroan ebelako.

Ez Euskalerrri, Kataluña ta Galleguarentzat, onen eskubide guztiak zapaldu ebazalako, bai espainitarrentzat baiña, katolikotasunezko aberkuntzaren erlijiozko ta gudalozteen laguntzagaz, kadizeko konstituzioa ezarri dagian alde, geien egin ebana izan zalako.

1.864ko urtean egin eben Kanobas gobernuaren ministrua.

Eta 1.865eko urtean IIIn Isabelen erregetzazko denboran, itsas-andi edo itsas-osteko ministrua, leen errepublikea aldarrikatu orduko.

1.868ko matxintasunean, eta Borboien erregetzazko amaieran, Kanobas arduratu zan, IIIn Isabelen seme, XIIIn Alfonsoren itzulker a edo etorkizunagaz.

1.874ko urtean Kanobasek, Martinez Kanposek egin eban Saguntoko aldarrikapen ostein, eta XIIIn Alfonsoren aldarrikapena errege lez, berrikuntzaren arauak antolatu ebazan, bera Sandhurst'eko Aldarrikapenaren egille izanda.

Kanobasek aurreko jaurkintzapenerako, antzoki bat oldoztu eban alderdi bientzako, jauntupean egiten ebazan maltzurrezko auteskundeakaz, aukera egon dagian Alberdi biren



1.872ko urtean Kanobaseri atara eutsoen argazkia, eta 1.896ko urtearen oleo margozia, senátore-batzarrean dagoena.

jaurkintzak aldizkatu egiezan, bata bestearen aldizketetan, denborak egon zitezen, sortzen ziran gogorrezko tankera orreik lasaitzeko.

Eta orrela eldu zan Kanobas XIIIn Alfonsoren erregetzan, zazpi biderrez espainitarren Ministruen Aolkularitzazko lendakari izatera. Katolikuen eskomatarrakaz be, ongundean alkar ibili bear izanda, indar geien euki ebalako.

1.876ko urtean bakeak lortu naian, eta Alonso ta Martineztar Manuelek idatzi eban konstituzioa, Kanobasen, agindupean baieztu zan.

Eta bake ori lortu zan, jaurkintzako arloan, Alderdi ezberdin bi orreik aldizkatu egin ziralako, espainitar jaurkintzaren biltzarrari, irudizko antz demokratiko bat emoteko, erregea buru zala⁽¹⁾.

(1) Erregea buru zala = principio de la monarquía parlamentaria.

Dan guzti ori, guzurrezkoa izan zana, espainitarrek ez ziralako onen erdiugarteko erri bakarrak, Euskalerrria, Kataluña ta Galizia lakoak bezela, guztiz menpeko joputzen euki dabezelako gaurko egunerarte.

1.876ko urtean Uztaillan 21ean, Jauregui ta Kanobastar Antoniok, lege bat atara eban Euskalerrriarentzat, beste lurraldeak lez, diruz ordaindu bear ebazala “urteko sariak”, eta “gudalozteentzat mutillak” emon bear ebala. Gure Foru Legeak ezereztu egiten ebena.

1.876ko urtean asi ta 1.899ko urte artean, Bizkaiaren burdiñezko meaztegitan 12.000 langilleek, 6.495.000 tonelada atara ebazan, 1.900eko urtetik beratzen asi zana, burdiñ ona amaituten joan zalako.

1.878ko urtean Kanobasek, auteskunde mugatuak agindu ebezanetik, ez eban 1.890eko urterarte zabaldu gizon guztien autarkia, arik eta 1.875ko urtean Jobellar´en lendakari aginduan, eta 1.879ko urtean, Martinez Kanpos´en lendakaritzan, berak bear eben denboratan luzatuz, 1.881eko urtean Sagaztak, bere agintaritzara igon arte.

Kanobas, “Ligas” deitzen ziran estukuntzazko alkartekoen kide izan zan, erbesteko kolonigilletan joputasunaren aldekoak ziranak⁽¹⁾.

1.880ko urtean orrez gain, edo ta lege-kentzaille oien estukuntzazko bultzatien bidetik, espainitar gobernuak, joputasunezkoen askatasuna sinatu bear izan eban. Gero Kubarantza zabaldu zana.

Bere egindupean baieztu zan 1.876ko konstituzioa, eta alegin guztiak egin ebazan, ezker eskumaren aldaketazko politika ori, baketsua izan zedin, demokrazizko itxura antzeko bat emonda, euren joko politikoari⁽²⁾.

1.885eko urtean eta Pardoko ongundeagaz sendotu zan, euren Joko político ori, XIIIn Alfonsoren ilketagaz ez zitezen ostera lengo estabaideetan agertu.

Kanobasen gobernu orreik, aberats edo dirutsuaren azkera edo azalduragaz⁽³⁾ egon ziran ikututa, salerosketaren legetasunean, Kubaren askatasunezko gudagaz, eta langille ta lege-bagekoak⁽⁴⁾ euki ebazan gero ta aundiagoko eztabaidarekin, 1.897ko urtean bere seigarren aginduzko aldian, Angiollilo´tar Mitxelek, Mondragoiko Zetztoan il eban arte.

Eta Kanobismoaren eritziari deitzen jako: Kanobasek politika maillan sartu gura eban Ingelesaren matxintasun bageko demokraziari.

Onek, politikaren alderdi biko jaurkintzaren aldikaritzan sinisten eban, bere bata bestearen jaurkintz ezberdiñean, erregearen zentzudun begipeko neurrian jokatu egien.

Kanobasek, espainitarren artean bere eritiziko politikea ezartzeko, beste Alderdi eskumatar katolikuek bezela iztundu edo itz emon bear izan eban.

1.885eko urtean, alderdikeri bi orrein legeagaz, Kanobasen Liberal alderdia sortu zan, eta onek lortu be ongunde bidez, Sagaztaren Alderdi liberalagaz, jaurkintzan aldikatzea.

Eta espainitar polikako liberalaren arteko maillan, ta gizon maltzurren artean gaur egunean gogoratzen bada, bera izan zalako maltzurrezko guzur aundi ta lodienak erabilten ebazanak da, orduko eskubidearen zapaltasunezko guzurak, ondoen egokitzen ebazalako, beti eleiz katoliko ta gudaloztearen laguntzagaz.

(1) Joputasunaren aldekoak ziranak = partidarios de la esclavitud. (2) Erdiugarte onen errigizarteak, gudaloztearen indarragaz ondo menperatuta gero. (3) Azalduragaz = cubrirse de corteza, demostrar, dar a entender, taracear, incrustar, editar publicar etc. (4) Lege-bagekoak = anarquistas, ácratas.

Kanobas´en laguntasunezko⁽¹⁾ ministrua izan zan Orobio ta Etxagüe´tar Manuel´ek, bere “Orobio aginduagaz”, askatasunezko maisutza edo irakasletza kendu⁽²⁾ eban: erkijiozko sinismen arloetan, “ziñezkintzaren aurka jokatzan zanean”⁽³⁾. Kanobas´entzat, Astokeri galanta izan zana, Elizalde ta Perez-Grueso´tar Maria Dolores´ek esaten dauan lez.

1.886ko urtean Urrillaren 7rarte iraun ebena, Joputzailen ugazabak euren alkar-tezko zaindaritzak⁽⁴⁾ ezereztu arte.

Gorputz eguneko eleiz biran, lege-gabekoak⁽⁵⁾ egin eben gaiztakeriagaz, lege-bagekoak, sozialistak eta elkargo zaleak espetxeratu ebaza Montjuitx´eko gazteluan, danak gogorrean oñazkatu⁽⁶⁾ ebazanak.



Kanobas´en ilketa Mondragoiren Santa Agedako urastegian.

1.896ko urtean Iraillaren 3an, Kanobasek aurrera begira, lege bat atara eban lege-bageen aurka, atzerako gaiztakeriak be arrapetan ebazanak, danak atzerrira bialtzeko.

1. 43. *Kanobas eta Jauregi´tar Antonio´ren ilketa.*

1.897ko urtean Dagonillaren 8an, Angiolillo´tar Mitxel lege-gabeak il eban Kanobas, Santa Agedako urastegian, “Il Popolo” aldizkariaren barri-emaillearen idazpurua-gaz sinatuz egoana Santa Agedako urastegiren liburuan.

Angiolilloaren esanetan, Bartzelonaren Gorputz eguneko gaiztakerien ostean atrapau ebazan lege-gabe asko, gogor oiñazkatuta il ebezalakoen orde zala adierazpendu eban.

Mateo ta Sagazta´tar Praxedes´ek, Kanobas´en irudia gogoratzen egoala: “Antonio Jauna il ondoren, beste politiko guztien artean ikatu geinke, edo gure artean “ikez” berba egin geinke.

1.901eko urtean XIIIIn Alfonsok, de Osma ta Zabalatar Joakina, Antonioren alar-guna, Kanobas del Kastilloko dukesa izendatu eban.

Antonio´ren anaia Emilioren semeak, “Kaulak”en izenagaz esagutu zan Antonio argazkilaria be aipatu eben, bai ta Kanobas del Castillo ta Ballejo´tar Jesus politiko eta auzi-gizona, Jaramako Parakuellosen il ebena.

1.975eko urtean Malagako Udaletxeak, oroitzarri aundi bat egin eutsoen Antonio´ri, eta 2.009ko urtean Udaleko batzar gela aundian xafla bat, Antonioren oroimenez.

(1) Laguntasunezko ministrua = ministro de fomento. (2) Askatasunezko maisutza edo irakasletza kendu eban = suprimió la libertad de cátedra. (3) Ziñezkintzaren aurka jokatzan zanean = si en el área religioso, se atentaba contra los dogmatismos o sistema dogmático de la fe o creencia católica. (4) Joputzailen ugazabak euki ebazan Alkartezko zaindaritzak ezereztu arte = asta que los propietarios de esclavos, deshicieron sus patronatos. (5) Lege-gabekoagaitik euki eban gaiztakeragaz = con el atentado que tuvo el día del corpus por parte de los anarquistas. (6) Danak gogorrean oñazkatuta = que fueron tremendamente torturados.

Fraga´tar Manuelek, irasi eban Kanobas del Kastilloren iraspena PP´ko lendakaria izan zanean, gordetzailleen politikazko ameslari onena lez bezala, eta demokraziagaz bardinduz, erregetzaren demokrazizko biltzarragaz bateratu edo parekatuz, zeregiñ asko euki ebana Kanobas´en ilketatik, 1.997ko urtean 100 urte bete zituzenean.

2.002ko urtean Azilla´ren 11n, eta Aznar´tar Jose M^a PP´ko lendakaria izan zanean “FAES”en sartu ebana.

Ezilei sinistu gaurko eguneko EUROPA´ren DEMOKRAZIETAN, zelan pillotu leikezan indarrezko politikan edo ta, gudalozteen keiñadakin, ainbeste lotsagabeke-riaren maltzurkerizko GUZUR.

Ez gara konturaten, baiña: “guzur artean igeri gabilitza”. Eta gaiñera, “uariñ, urlaster edo ta urbiziaren aurka”⁽¹⁾, “amiltegia noz agertuko dan zain”.

1. 44. *Mateo ta Sagasta´tar Praxedes.*

1.825eko urtean, Logroñoiko lurraldean, Kamos´eko Torrezilla jaiotako gizona daukagu emen. Sagasta ta Diaz´tar Klemente, eta Eskolar´tar Esperantzak euki eben iru semeetatik bat, Mateo ta Sagasta´tar Praxedes izan zana.

Eta 1.903ko urtean Urtarrillaren 5ean Madrilleko bere etxean il zana.

Fisika Jakintzan, Berezko edo Natur-Jakintzan, edo ta Jakintz Zeatzetako, Erregearen Ikastetxeko kide izan zan.

Kamajuaniren Zaldunezko Taldeen koronela izan zan, eta Aberriko Gudari Taldean, injinieruen batalloi taldearen komandante agintaria.

Sagasta, aurrekoiezko argin-beltz edo masoia izan zan, eta askeneko edo erakunde onek euki zituen 33ko maillara eldu zan⁽²⁾.

Logroñoiko seme-biotzekoa, eta Ueska ta Malagako seme-ordea izan zan.

1.848ko urtearen Loraillan, eta Narbaez liberal gordetzaillea, gobernutik botateko egin ziran matxinadatan, garrantzi aundia eukan Sagasta politikan sartzeko, Kalbo ta Asensio´tar Pedrokekin lortu eban adiskidetasunaren bidez, ortik aurrera, biak auke-ratuak izan ziralako, araudi-batzarrean lege-nagusiak egiteko, Sagasta Zamora aldetik eta Kalbo ta Asensio´tar Pedro, Balladolizen aldetik.

1.849ko urtean Mateo ta Sagasta´tar Praxedes´ek, Madrilleko Bideen Injinieritazko Eskolatik, Bideen Injinieritza, ur-aska ta Kaien Injinieritza⁽³⁾ tituludun zan,

(1) Eta gaiñera: Uariñ, ur-laster, edo ta Urbiziaren aurka = contra corriente. (2) Mason isatea edo Masonkeria = Ingalaterra ta Eskoziaren Erdi-mendeko, Anaitasunezko langillerietatik sortu zan izkutuzko alkarte bat zan, eta batez be, zuritzaile edo igeltzeruen eta egilleetako artetik sortuz, gaur Izadi guztitik zabaldua dagoena. Ez dauka erriarteko antolamendurik, erriarteko alkarteak bananduta antolatzen diralako, eta ikusten dan lez ez daukielako aurrerantzerako begiramenik. Bere barruan sartzeko baldintzak: Leen gizona izatea da; Jaungoiko Egille´ngan “Izadi onen Etxagin edo Eraikille Nagusi lez” sinistea bigarren; eta elkarteguztiko kideai, orokortasunaren laguntzaille izatea ezereen aitzaki barik. Egiten daben guztiarentzat, ekanduzko ekimena eskatzen dautse guztie, eta legeen agindupekoa ta laguntza edo erruki-sarizkoarena izatea. Kide izangura dabenentzat, ainbat ekanduzko ta fisikoren neurri aldiak eukiten dabez. Arauzko egikera egin bear diran Izkutuzko eta korapillotuzko batzarrak egiten dabez, igeltzeruen gandik artutako, “ari baten muturrean, berunaren astuntasunezko gauza bategaz lotuta, guk nai doguna erakar indarraren marraduran ipinteko” (plomada), “eskairu”(escuadra), “gain edo galga”(nivel), “bi-orratzeko gaillua”(compás), “amantala edo mantala”(mandil), “maillua”(martillo) eta abar. Euren batzar lekuak, (logias) edo masoi-etxe edo masoien lantegiak izaten dira, eta batzar oneik ospatzen diran lekuak, “masoi-batzar”(tenida), eta ospatzeko gela nagusia “Jauretxe edo Eleiza”(templo). (3) Madrilleko Bideen Injinieritazko Eskolatik, Bideen Injinieritza, ur-askaren eta Kaien Injinieritza tituluduna zan = que era titulado en injenieria de caminos puerto y canales, por la escuela de ingenieros de caminos de Madrid.

eta Zamorako Erri-lana´ren agintaritzatik, Zamora Orenseko bidea egitea agindu eutsoen, Padornelo ta la Kanda´ko tokietatik.

1.852ko urtean, Erdiugarte onen Iparraldeko Balladoliz ta Burgos´ artean 121 km. eukazan trenbidea agindu eutsoen egitea.

1.854ko urtean asi zan Sagasta au, politika arloan, Erri-Lanakaz arduratu ebenean, eta an emon eutsoen Matxintasunezko Batzarraren lendakaritza. Urte orretan, Araudi-Batzarretan diputadu izateko aukeratu eban.



Mateo ta Sagasta´tar Praxedes´en irudia.

1.857ko urtean eta 32urte eukazala, irasitako barria zan Erri-Lanen Laguntzailearen Ikasketarako⁽¹⁾, injieneritzazko irakasle izendatu eban, bederatzi urtetan Topografia ta egilletasunaren arloko ikasketak emonda.

1.857ko urtean Sagasta, La Iberia aldizkarian sartu zan Kalbo´tar Pedro lendakarien eskutik, Pedro bera il zanean, Sagastak Pedoren alargunari eukezan garazki-agiri edo azioak erosita, berak “La Iberia” aldizkari orren zuzentasuna eroateko.

1.858ko urtean, zuzendari nagusien ordezkoa izendatu eben, ikasketaren ta politikazko arloak batera diputadu lez eroateko, 1.863ko urterarte.

1.865eko urtearen ezkeroztik, Prin gudal nagusiagaz batera, matxintasunak antolatzen ibili zan.

1.866ko urtean San Jil´eko gudallegiaren matxintasunean, Prin´egaz batera ibili zan, IIIn Isabel bere erregezko ezar lekutik kentzeko, eta atrapauta epaitu ondoren, iltera zigortu ebenean, Frantzira atzerriratu bear izan eban.

1.868 urtean eta IIIn Isabelen aurkako gudari, edo ta sarjentuen “La Gloriosa”ko matxinada ondoren, osterita itzuli arte, eta itzuli ta gero, leen, Kadizeko jaurpidetzagaz arduratu eben, ta Serranoren bein-beiñeko jaurkintzan, jaurpideko ministeritza⁽²⁾ eroan eban. Emendik aurrerantzean politikako arloan bakarrik ibilita.

(1) Irasitako barria zan Erri-Lanen Laguntzaile eskolaren, injieneritzazko irakasle izendatu eben = le nombraron profesor ingeniero de la recién creada Escuela de Ayudantes de obras Públicas. (2) Jaurpideko ministeritza = ministerio de la gobernación.

1. 45. *Sagastaren denboran, sei urteko aldi demokratikoa deitu zana.*

1.868ko urtean II In Isabel bere errege-zeko ezar lekutik kentzen dabenean, emoten jako asiera, demokraziaren sei urteko aldia, deituko zanari.

Serranoren beñ-beñeko jaurkintzan, Laterrien gobernuko leen ministrua izendatu eben.

1.871ko urtearen Abenduan, eta Prin il eben ostean, Saboyako I Amadeoren jaur-bidean, Konstituzionalaren alderdiko kide egiten dabe, ta Ministruen Aolkularitzazko batzarraren lendakari izendatu.

Eta 1.872ko urtearen Otsailararte egoten da konstituziozko alderdiaren lendakari lez, Zorrillak bere ertzeko alderdiagaz, egiten eban jaurpideen aurka.

1.874ko urtearen Irailatik, urte onen azkenerarte egon zan ministru, aolkularitzaren batzarreko lendakari lez Serranoren jaurpidetzan, Borboi leiñua berrezkuratu baiño, ille batzuk ariñago.

1. 46. *1.874ko urtean, Borboien erregetza barriztea.*

1.874ko urtean Borboien erregetza, ostera berrezkuratu zan XII In Alfonsogaz.

1.880ko urtean Sagastak, Liberalen alderdia irasiko eban, Kanobas ta Jauregi´tar gordetzailleen alderdiagaz txandaka, gaur PP ta PSOE´k egiten daben antzera, alderdi bien jaurkintza lortuko ebena XIXn gizalditik XXn gizartearen leen aldiraiño iraunda. Denbora onetan Sagastak, bost biderrez arduratuko zan, gobernuaren lendakaritzagaz.

1.881-1.883ko urtearen artean Sagastak, ertsaldi edo atxikidurazko legeak argitaratu ebazan Errien arteko espainitar Erri-Langillearen aurka.

1.885eko Urtarrillan Sagasta´k, masoitasunetik alde egiteko erabagiten dau.

1.885eko urtean Otsaillaren 18an San Sebastianeko eleizan ezkondu zan, 1.828ko urtean Abenduaren 27an jaio zan Medinaren Ur-gabeko⁽¹⁾ errian Bidal ta Errerotar Anjela Juanagaz, seme bat eta alaba bat eukinda: Mateo-Sagasta ta Bidal´tar Jose, eta Mateo-Sagasta ta Bidal´tar Bitoria Esperanza.

1.885eko urtean Azillaren 24an XII In Alfonso il zorian egoala, Sagasta liberalaren alderdiko lendakari lez, eta Gazteluko Kanobas´ek gordetzailleen alderdiko lendakari lez, Pardo´ko ongundea deituko zan agiria sinatu eben, Maria Kristina XIII In Alfonsogaz aurdun egoala, onen ondorengotasuna balio dagian, XII In Alfonso il da, XIII In Alfonso erregea izan zedin.

Sagastak, beste lege batzuk be sinatu ebazan Pardo´ko ongunde onetan: ziñegotziak erabagitzeko gaitasuna; erri-legezko ezkontza, eta beste liberalezko lege batzuk. Bai ta beste erabagi batzuk be, alderdi biak, jaurpidetzan aldikatu egiezen. Kanobas´en aldetik, baldintzazko gai au ipinita: “1.876ko konstituzioaren baldintzak, onartzen ba ziran”.

1.885eko urterarte izan zan Sagasta, espainitar lurraren Ekialdeko Masoitarren Jaun Nagusi, arik eta urte onetan masoitarren taldetik alde egiteko oldozten asi.

1.885eko urtean Azillaren 27an Sagastak, beste gobernu bat osotu eban, ongunde orreitan erabagi zan lez, 1.909ko urterarte iraun ebena, nai ta erabagi ori, 1.881eko urtetik egon, edo Sagasta lenengoz igon ebenetik jaurpidearen lendakaritzara, ta berrezkuntzaren aldia asi ebenetik.

(1) Medinaren Ur-gabeko errian = en el pueblo de Medina de Rioseco.

1.892ko urtean Sagastak ostera, eta gobernuko lendakaritza artu ondoren, Katalanaren arazoa, Melillako guda, eta Kubako guda ´ri, aurre emon bear izan eutsezan.

Eta 1.894ko urtean Azillaren 14an, beren sinismenaren eta erregetzaren sinismeneko babesean, diputaduen batzar nagusian aldarrikatu eban, bere masoi kidetasunetik alde egiten ebala. 1.895eko urtean uko edo itzi eban espainitarren gobernua.

1.897ko urtean Otsaillaren 3an il zan Sagaztaren emaztea, Lorentzo ta Jose deunaren ortu santuan illobiratu ebena.

1.898ko urtean, ta 1.897-1.899ko urte bitartean goernuaren lendakaria izanda, espainitar eta Estatu Batuen artean, Kubako guda deitu zan borrokari, aurre emon bear izan eutson, ta Kuba, Aberats(1) Kai, Filipinas ta Guan´eko kolonizazioak galdu ziranean, Sagasta berak artu eban orren errukaritza.

A ta guzti, 1.901eko urtean ostera ipini eben goernuaren lendakari lez, 1.902ko urtean gaixorik baiña, itzi bear izan eban goernu orren lendakaritza ori.

1.903ko urtean Urtarrillaren 5ean, eta 77 urte eukazanean il zan Madrilleko San Jeronimoko Bidekaren 53ko zenbakian eukan bere etxean, birikerien gaixotasunagaz, eta Madrilleko Andiki Gizon´en illetxe edo arrillobian illobiratu eban.

Berak eta bere borondatez aginduta, ez eban gura andikien izen bururik edo olan-gorik ezer, eta diru barik, eskale edo beardun bat lez il zan.

2. *Euskalerrriaren Edestiari ostera oratuz.*

2.1. *11n Atal onetan, Euskalerrriko edestien autueta, edaste edo kondaira.*

Kalte geiago be sortuko jakiezan karlistari emendik aurrera:

“Mendiri ta Perularen arteko eztabaidarekin”.

“Kabrera ta beste gudal nagusiak egin eben saiskerigaitik”⁽²⁾.

“Espainiar erregetzazko barrizkuntzarekin VIIIn Karloseri egin eutsoen kalteagaz”.

“Ziraukiko Lakalletar Tirso, “Urgun”⁽³⁾ liberalen iltzaileak egiten ebazanagaitik, eta Mendiri gudal nagusi karlistak, egiten ebazan mendekuen bidetik, Europa osoan eukezan oiartzunezko garrantziakaz:

“Karlista gudal nagusiak, gero ta geiago indar barik aurkezten ziran bidetik, peninsula onen erdiko eta sortaldeko lurraldeetatatik euki ebazan berakadak, euskal etxe-koak kikildu, edo ta biozkatu egiten ebazan”.

“Liberalak, Iruñako bidea garbi gura eben: “karlistai lagundu, edo ta salatzen ez ebenak egiten, Nafartar erritarrai diru-zigor galantakaz, nekazariak abereak kendu, eta mendiko zugaitz guztiak ebagiz gain, soloko mozkin guztiak erre egiteko.

“Eta atzerrira ainbat euskal seme bialduz, euren legeakaz baserri ta erritarrai eukan guztia kendu ondoren, baserri geienak erre egiten ebazan, eta zigor aundiko erregarri, ta bai ta diru zigorraren gaiñetik, erritarrak lerrotu egiten ebazan ostean, eurak esaten ebenak lerroetatik atara ta tiroz il egiten abazan, eta besteak, etxetik kanporatuz gain, euren ameriketako kolonietara atzerriratu egiten ebazan, yopu⁽⁴⁾ lez bialduta”.

Oso latza izan bear zan egin ebena, gure baserritarrentzat.

(1) Aberats Kai = Puerto Rico. (2) Saiskeria = traición. (3) “Urgun”, “Urgunak” = cojo, el cojo, “El Cojo de Zirauki”. (4) Yopu lez bialduta = enviados como esclavos.

“Eta gaiñera egiten ebena, katolikotasunean aberkidetzeko erlijioak emoten eutsoen jabetasunezko eskubideagaz egiten eban. Goiko Jaungoikuak danori emonda, eurak be daukien BAITA, katolikoarena izan balitz bezela, arrazoia eukiko ba-leukien lez, egiten dabezelako gauza orreik”.

“Ba, kontuan euki: Goiko Jaungoikuak, Bere Irasletasunezko Zerutik, gure ekan-duzko ardurapean ipini ebanean Izadiaren sorraldi au, batera, gai-bereztu Eutsozanean guk erabidez ibili bear doguzan lege guztiak, euren amiltegia erakutziz, zai daukaguzela”.

1.875eko urtean Uztaillaren 27an Lizarraga, Dorregarai eta Saballs karlisten gudal nagusiak, artekatuta egon ziran, Martinez Kanpos espainiar liberalaren gudal nagusiak Kataluñan, karlisten garrantzizko tokia izan zan Seo de Urjel bere Eleiz Nagusi ta eukezan iru gazteluakin, artu gurean egoalako.

Eta VIIIn Karloseri itanduta zer egin bear eben, onek, erria babestu egiela eukezan guda indar guztiekaz agindu eutsoen, eta Lizarragaren arduratan Seo de Urjelen babe-sa geratuz, antolatu ta sendotzen asi zan bere ingurua, Dorregarai eta Saballs´en guda indarrari denbora emonda euren gudalozteak antolatu egiezen, gero berari laguntzeko.

1.875eko urtean Uztaillaren 29an karlistek, Gipuzkoaren giltza izan zan Arabako Billarrealen, Arlaban ondoan txokoratuta egon ziran lekutik, babeseko borroka andia egin ondoren, alde egin bear izan eban.

1.875eko urtean Dagonillaren 1erako asi zan Martinez Kanpos liberalaren gudal nagusia, Kataluñaren Leridako lurraldean, Seo de Urjel inguratzen, eraso oneri karlis-tek, erantzun oso gogorrek eginda.

Eta urrengo egunetako borrokak, lar gogorrek izanda, Kastelluri, liberalaren eskuetan geratuta, etenbako igesaldiak egon ziran egunero karlisten lerroetatik, liberalaren lerroetara, Lizarragari arazo asko sortuz.

Gaiñera karlistentzat, edateko uraren ornitzeak⁽¹⁾ moztuta geratu ziran, eta ba-leiteke, urak errekatik artzea oso arrizkukoa biurtu jakiela, eukezan babes lekuetan atxilotu lez geratu ziralako, leergaillu ta tiroiñ gitxigaz.

Kataluñako borroka orreitan, lendabizikoa da emen jakitea, leergailluaren ezean, karlisten egoerea, oso larria izan bear zala, liberalak botaten ebezan leergailluen suziri edo leer-ziriak⁽²⁾ arrapatu, ta liberalai ostera botateko, karlisten agintariak, euren guda-riai aginduta, erriel-biko ordaiñ truke.

1.875eko urtean Dagonillaren 2an, Albareztar Rafael karlista gudal nagusiak, Aro-ko erria artu gura eban, Ebro ibaian geratu ebazan liberalak baiña, ta La Bastidatik aurreruntz, joan ezinean geratu zan Rafael.

1.875eko urtean Dagonillaren 26an Lizarragak sinatu eban, Seo de Urjel´aren menpeko itun edo elkargoa.

1.875eko urtean Iraillaren 5erako, Kataluña eta peninsula onen erdiko lurraldeetan guda amaituta egon zan, eta izkilluak liberalaren eskuetan ez ebenak itxi gura, Dorre-garai karlista gudal nagusiagaz, Nafarroako lurraldeetara bideratu ziran.

Eta itzelezko edurtzaren artetik, karlistek ta liberalak, Euskalerriko Nafar lurral-deetara, bideratzen dira euren guda tresneri guztiekaz, espainitar liberalen gudalozteak, jaupidearen leen ministrua izan zan, Jobellar gudal nagusiak bideratuta.

(1) Ornitzeak = aportación, abastecimiento, acción de suministrar. (2) Su-ziri edo Eskuko granadak edo su-ziriko leer gailluak = cohetes con carga explosiva o algo parecido a las granadas de mano.

Mogimendu guzti onen bidetik, espainitar gudu indarrak, gualozte bitan antolazten dira, eskuin aldekoak Martinez Kanpos gual nagusiak bideratzen ebena, bere zeregiñ bakarra, Nafarroako lurraldeak menperatzea zana, eta ezker aldeko gualozte Kesada gual nagusiaren agindupean, Gipuzkoa ta Bizkaiaren lurraldeak menperatzeko.

Bien arteko gualozte onein indar kopurua, 120.000 gudariena izan zan.

Eskumako gualozte ostera, bi taldetan banatzen dabe, bata, Blanco gual nagusiak bideratzen ebena, eta bestea Riberatar primok bideratzen ebena.

Ezker aldekoa, Loma, Moriones, eta Etxebarriaren agindupean banandu egin ebezanak.

Karlisten aldetik botaten eban edurtzeagaz, belaño edo ur-laiño eta egoten ziran lei beltzakaz, euren luraren senidetasunezko beroan, lur ebagi edo lubakitan babestuta⁽¹⁾, ez eben euki 33.000 gudari baiño besterik, eta orreik be, euki ba-zituzen.

Liberalak, karlistek gudarako euki eben antolamendu makal orregaz eta politikaren arloetako egoera txarragaitik, ekanduzko lotsean edo begirunezko arloan ezeri begitu barik, ikaragarritzko erasoak egiten eutsezan gure politiku, Foru ta Euskalerrriaren jaurkintzazko antolamenduan ibiltzen ziranai.

Eta nai euskaldun lurraldeko errigizartearen eritzi ezberdin artean, eskuma edo liberalak izan, edo ta eskuma ezker aldeko karlista izan ziran guztiei, espainitar guda agintari maltzur orreik, euskaldunak espainitar biurtzeko alegiñ gogorretan ibili ziran, eta euskaldunak zigortu gurean ibilita, euskaldun guztiak, zorro baten batera sartzen alegintzen ziralako, errigizarteak euki eben izatasunezko ezberdintasunaren gaiñetik, euskaldunak

liberal guda agintari orreri, nai Foralista, karlista edo ta liberal izan arren, beti erantzun eutsoen, “eurak, euskaldunak zirala”.

1.875eko urtean Iraillaren 9an Kesadatar Jenaro, espainitar gobernuaren ordezkoa zanak, Lopez de Goikoetxeari idazten dautso: Karlisten egoera oso larria zala, ta gudarako tresneri ezean egon ziran lez, aurrera egiela eraso gogorrean.

Eta VIIIn Karlosek, Dorregarai, Olibar, Saballs, Morera, Mendiri eta Sangarreneko Baroia auzipetu egiten dauz, borrokatan ainbeste porrot egiteagaitik.

1.875eko urtean Urrillaren 10ean, Martorelltar Juan, liberalaren koronel ordezkoi agindupean egoanak, Lunbierreko Napar erria erasotu eban, eta naita liberalak ainbat aurkako ekintza egin garrantzizko lekua izan zalako, errigaiñean dagon mendiko Trinidad baselisa ta erriagaz geratu ziran karlistak.

Martorellen Liberalak, naita gero, Reina gual nagusiaren laguntzagaz garrantzizko tokia izan zalako erasotzen ekin, Perula karlisten gual nagusia agertuta, itzelezko astiñaldia emon eutsen liberalai, Lunbier inguratzen dabezan, Ripodas, Domeño, eta Arbonieseko mendi guztiak artuta, Perula karlisten gual nagusiari ekintza orregaitik 40.000 erleko saria emon eutsoen, San Fernandoren dedudomiñagaz⁽²⁾ xingolatu.

Urregoko illean liberalak berrezkuratu ebena.

2. 2. *Ekintza onen oartxo bat.*

Argi ikusten dogu emen ostera, karlistak, euren espainitar lur legearen, ta erreñuaren jabetasunagaitik borrokatzen ba zirala, Euskaldun, Katalan, eta Galiziararak, euren demokrazizko Lur ta Foru Legeagaitik borrokatzen zirala.

(1) Lur-ebagi edo Lubakitan babestuta = protegidos en las trincheras, fosas, o zanjas. (2) San Fernandoren dedu-domiñagaz xingolatu = condecorado con la medalla de San Fernando.

Eta borrokan liberalak baiño geiago izan arren, liberalak Europaren laguntzagaz, lasai ibiltzen zirela, euren garaipenak ez ziralako borroka sutsuetatik agertuko, karlistek gudarako *bear eben tresneri ta gudarien bir-lengoratzearen andameneko*⁽¹⁾ *bidetik baiño, liberalak gura eben tresneri ta gizontza geiago euki ebelako.*

Erabagi orreik izan ziran Europaren liberal menperatzaillak, edo katolikotasunean batzangotzeko aberkoi konstituzionalistak artu ebena, Europako errigizarteak Jainkoaren Lege bidez euki eben eskubide guztien gainetik.

Eta katoliko liberal orreik, JAINKOA Ludi oneri erperatu Eutsozan Lege guztiak basterreratu ebenetik, lapurketan asteko, gaur porrot andiak egiten asi dira eurak ipini ebezan “Diruzko Araubideak”, lapurretazko ordezkari batzen ezin dalako inungo lege berezirik bitartean sartu, menperatzaillarenak izan ezik.

Orregaitik JAUNGOIKUA, Berak irasitako Ludi oneri, Bere legeakaz erperatuta bereztu Euskun lez, ez dau lekurik izten beste jainko batentzat, eta or ibiltzen gara mustur ta buruak apurtzen, alperreko alegiñ orreitan.

Begitu mundu onetan non dagon, edo zerekin dagon irasita “gezurrezko jainkoa” edo “Urrezko Zekor” ori.

Dirua ba, ez ote da gure ardurazko ordezkari batzen, Ekanduzko irudiaaren serbitzurako, tresneri bat ?. Begitu non geratzen dira gizon/emakume batzuen “De la Misión de España en lo Universal”.

Zelango agindua da ori, edo ta “nork aginduta”.

Ain menperatuta geratu ote dira euren Arimako Baitan: “Gure arteko eginkizune-tan eta jainkoaren legerari begira: “lotsagizuna, lotsati izan, adeitasuna, begirunea edo ta gizonen larderiak” zer diran ez jakiteko ?.

Egoera oneitan ez da esaten ba: “*ITZALI ARGIA, ETA GUAZEN EMENDIK*”.

1.875eko urtean Urrillaren 17an Kesada liberalaren gudar nagusia Madrilletik etorrita, gudaloztearen agintaritzan osterako artzako, karlistek, Payuetan ibili ziran egiten gaztelua artu ta 14 gudari atxilotu ebezan, eta Labastida artuta, Toloño ta Urizarreko mendietatik zabaldu ziran, Urizarreko bizkar gainean, San Leon´eko gaztelua artuta.

Perulak jakin ebenean Urizarreko alderdi ura galdu zala, ia galdutzat emon eban Arabako lurraldea, nai ta gero, ainbat denborako ekintza gogorrak egin.

1.875eko urtean Azaroaren 16an VII Karlosek, Tristani´tar Rafael karlisten gudar nagusiari, Kataluñaren aginduteko almen guztiak emonda, onek Boixeko Kastellolliten euki eben orokorrezko gudarlegititik, katalan gudari guztiari aldarrikapen sutsu batez, osterako deus, borrokan asteko.

Eta Tristanegaz batera, bardiñ egin bear izan eben Toledo ta Erregearen Urian⁽²⁾ edo peninsula onen erdian, Marko, Segarra, Boet, Gamundi ta Kukala karlista gudar nagusiakaz.

1.875eko Azaroaren 19an Martinez Kanpos liberalaren gudar nagusiaren aldetik, amaitu lez emoten dau Kataluniako guda, atxilotuta egon ziran karlistak aske ipinita, nai ta karlisten gudar nagusi batzuk, borrokeagaz aurrera egin, Kastells Frantzira joanda.

(1) Ondamenetik baiño = sino que de la ruina por falta de recursos materiales y hombres. (1) Erregearen Urian = Ciudad Real.

1.875eko urtean Azaroaren 24an karlistek, San Kristobaleko gaztelua galtzen dabe, eta liberalak bota egin ebazalako, Iruñako ingurutasunak indarra galtzen asita, karlistek, Orikain, Alzuza, ta Miraballes, Iruñaren inguruko mendietatik, Iruña bonbaz erasotu eben.

Araba galduta, Nafarroak ez eban euki etorkizun obeagorik, eta Belaskotar Ladislao Arabako Aldundiaren orokorrezko arduradunak, itxaropen ori ikusita, Foruen ezerezteuta gura eban baztatu, eta karlisten gudal nagusi batzuekin ibili zan alegiñak egiten, karlisten lerroetan gudariak matxinatu egiezen, baiña 1.838ko urtean Muñagorrii sortu jakon antzera, alperrikoak biurtu ziran Ladislaoren alegiñak.

1.875eko urtean Azaroaren 26an karlistek Mutrikun, London itxasontzitik lurreratu zituzen 3.000.000 tiroiñ, 100.000 azta edo libera berun, eta 50.000 gatzerre libera edo gatzuker⁽¹⁾.

1.875ean Abenduaren 31n karlistek:

Orokorrezko Kapitain jeneral bat.

Orokorrezko Kapitan jeneral ordezeko bi.

7 zelaiko mariskal.

35 jeneral ordezekoak.

62 koronel.

92 koronel ordezeko.

2.063 komandante-alferez bitartekoak.

2.137 sarjentu.

Eta guztiz 32.976 gudari euki zituzen.

1.769 zaldi.

680 mando.

80 mendiko kañoiak.

Eta 29 enparantzaren zelaiko kañoi, danak ezberdiñak ziranak euren izaerako neurrian.

Onek izan ziran karlistek euki ebezan gizon-tresneriak, ta onekin aurre egin ebena kaz, gitxiendiz, eurak baiño lau bider aundiagoko indarrak ziranai.

2. 3. *Karlistadaren bigarren edo irugarren go gu daren amaiera.*

1.875ko urtearen Abenduan Perulak, porrot egin eban karlisten gaudal nagusi lez, eta Mendiri ta Dorregarai atzerriratu egiten dauz azpikerizko saldukeria⁽²⁾ egitea gaitik, eta Alfonso bere anaia izendatzen dau, karlisten gudal nagusi lez.

1.875eko urtean Abenduaren 22an VIIIn Karlosek, Segarratar Tomas karlista gudal nagusiari agintzen dautso Kataluña, Toledo, ta Erregearen Uriko zaletasunak oster berrezkuratu egiezan, karlistaren alde.

Eta 1.875eko urtean Abenduaren 27an, espainitarren zigortasunezko keiñadaren bide-tik etorten zan sarraskiko olatuetatik alde egiteko, edo ta oldozten zan ondamenaren aurka, Gazteizen, Liberal Fuerista Batzar bat sortu zan, Bizkaitik Uribetar Eusebio, Gipuzkoatik Jaunsorotar Domingo, eta Arabatik Urigoitiatar Serafin ipinita ordezkari nagusi lez.

Erakunde onen eginkizuna, etorten zan liberal gudaloztearen zarraskiko olatu edo ondamenari, karlisten indarrak inguratu gurean, sasi-gudako ekintzakaz aurre egitea zan mendi ta itsas baztarretan, eurak euki eben indar ta eragipen guztiagaz.

1.876ko urtearen Urtarrilla osoan karlistek, ezin eutsoen eutsi liberalen gudalozteko indarrari, eta gitxiago, eurak ekarten eben antolamendu barriakaz, geienetan, kar-

(1) Gatzerre edo gatzuker = salitre. (2) Azpikerizko saldukeria = alta traición.

listak garaille urten arren, denbora orreitan ez ebelako indar naikorik euki, eurak baiño lau bider geiago ziran gudari ta gudako trenerietan.

1.876ko urtean Urtarrillaren 19an, Jobellar liberalaren guda nagusiak, 200.000 gudari euki ebazan bere agindupean, XII In Alfonso Madrilleko gortetik urtenda, Zaragozatik Tudelara joan zanean Iparraldeko liberal gudari indarrak bideratzeko, Peraltan 40.000 gudariai, ikustaldia eginda.

1.876ko urtean Urtarrillaren 21ean Morionesek, Donosti askatzeko Getarin lurre-ratuta, Garate mendiaren goi aldia menderatu eban, eta Mendizorroitzeko zulgunetara eldu zanean bere gudariakaz, karlistak gogor zigortuta, uxatu edo aizatu egin ebazan.

Eta karlistek, Donosti leergailluekin bonbaketan iraunda, alango leergaillu bategaz Bizkarrondo ta Ureñatar Indalezio (“BILINTX”) olerkari andia zana, il eben.

Borroka au izango zan Gipuzkoaren lurraldeetan, karlisten askeneko garaipena.

Martinez Kanposek Elizondotik, ia ezin eban aurrera egin karlistek egin eutsen jazargo edo mukertasunagaitik⁽¹⁾, eta karlisten geiago ezin eginaren ondorengo bidetik, asiko zan karlistek euki ebezan gudaloztearen ondamen edo ezereztasuna.

1.876ko urtean Urtarrillaren 28an espainitar liberalen gudalozteak, karlisten indarrak itsas baztarrean txokoratzeko asmoagaz, erasotzen azten dira, eta liberalak Balmaseda artu eban.

Martinez Kanposek, Riberatar Primo ´ri aolkatuta, Lizarra artu egien, bera, Baztanetik Donostira joaten da, karlistek, Uria bonbakaz etsaimentzeko Aiako mendikateetatik Igeldo mendiraño lerrotuta euki ebazan kañoi illadakaz, ia apurtzen ba ebazan.

Kesada liberal nagusia bere aldetik, Bizkaiko Ego aldearen Otxandiotik, eta Urkiolako bidea artuz, Durangora joateko itxaropenean asten da, eta Loma guda nagusia bitartean, Kadaguako bidetik, Bilborantza joaten da.

Antolakuntza oneikaz, azken borroka amorratuak asten dira, eta benetan odoljariozko borrokak izan zirela, ibarretatik zear azkeneko etxe, toki, edo lur zatiak babes-ten, il edo ta biziaren itxaropenezko borrokak izan zirelako.

1.876ko urtean Urtarrillaren 30ean Riberatar Primo liberalaren guda nagusiak, Oteizako Santa Barbararen gaztelua artu eban.

1.876ko urtearen Urtarrilla onetan Perula ta Montoya, karlisten guda nagusi oneik euren artean berbetan, galdutzat emoten eban guda, Montoyak Perulari erantzunda: “guda ez bazan amaituten, barne edo baitazko pekatu andiak izango zirela, ortik aurrera botako ziran odoltanta bakotzaren izurpenak”.

1.876ko urtean Otsaillaren 1ean Kesada liberalaren guda nagusia, Bilbon sartzen da.

1.876ko urtean Otsaillaren 1ean XII In Alfonsok ikusita, euren liberal indarrak azkar ibili zirala Bizkaitik, naita karlista eurak be gudaloztearen antolaketatan ibili, urrutidazkiñ bidez, liberalaren guda nagusiari esaten dautso, ia ez bazan ordua izan, bera, gudalozteen aurrean joateko, gudarien biotzak berotzeko eta arnas ori emonda Otsaillaren lenengo 15 egunetan gudaren amaiera lortzeko.

Eta Kesadak, oraindiño ez zala une egokiena, erantzun eutsen.

1.876ko Urtarrilla ta Otsaillaren ille bi onein borrokak, oso latzak izan ziran, alde bietatik il asko egon zirako, batez be, liberalaren aldetik, eta euskaldunak geienetan garaille urten arren, argi ikusten zan, liberal indarrak, zapatzaillezko azken alegiñetan ibili zirala.

(1) Jazargo edo mukertasunagaitik = resistencia, por la resistencia que le ofrecieron los carlistas.

1.876ko urtean Otsaillaren 5ean liberalak, Durango ta Zornotzan sartzen dira, eta Karasa karlisten guda nagusiak, Muniketasera joanda, Etxebarri, Zugaztietatik urten egiela Gernika, Murgia, ta Arratiko guda taldeakaz, Abadiñora joateko agindu eutson, gabeko ordu batetan urtenda bete egin ebana, Kabero liberalaren guda nagusia euren atzean ibili zalako.

Ziria⁽¹⁾ liberalaren gudari taldea, Zornotzan egon ziran karlistei, tirokaldi gogor bat egin eutsoen, eta karlistek jakinda liberalak Berrizen egon zirala, albo bietan dagozan Gaztelumendi ta Santa Kurtz mendietara joanda, gabeko zortzirakarte ibili ziran borrokan, liberalaren aldetik ia 200 eroriak, zauritu ta illaren artean eukinda, karlistek gero Elorriora joanda, Karasa karlisten guda nagusiagaz alkartzeko.

Zornotzako borroka orretan, Floran koronela eta Peirona koronel ordezkoen liberalaren indarretatik: 28 gudari il, 13 guda agintari zaurituak, eta 142 gudari zaurituak egon ziran.

1.876ko urtean Otsaillako 10ean Bizkaiko karlistek de Grande ta Gonzaleztar Leonzio gaztea izendatu eben guda loztearen agintari nagusi lez, eta 11n, bere indarrakaz, Elorrio, Elgeta, Mondragon, Bergara, Mallabia ta Zalduako erriekaz jabetu zan, Eskia-garen Markiñako taldea, Gipuzkoan egoala, bertako guda nagusiaren agindupean.

1.876ko urtean Otsaillaren 13an Kesada liberalaren guda nagusiak, Elgeta artzen dau, guda losteak Bergara, Izua eta Azkoititik, Eibar, Plasensia, eta Ermun sartuta, izkili luaren lantegiakaz jabetzeko, Araba ta Bizkaian egon ziran karlisten guda loztek, arrizku aundian geratuz, Gipuzkoa ta Nafarroako guda loztekaz bananduta geratu zitezen.

Une onetan Bizkaitar karlistak, ia lurralde osoa galduta euki eben, euren lerroetatik ainbat gudarien igeslari eukinda, liberalak, inurriek bezala, inguru guztietatik zabaldu ta egon ziralako.

1.876ko urtean Otsaillaren 15ean, espainiarren jaurgo edo konstituzio barria aldarrikatu zan, 1.931garren urteraiño iraungo ebana.

1.876ko urtean Otsaillaren 17an karlistak atzeraka asita, Riberatar Primo liberalaren guda nagusiak, Lizarra artu gura dau, eta Jurramendi artu ebanean, bereala Oteiza, Mañeruko Santa Barbara mendia, ta Artazugaz jabetuta, Lizarraren jabetasuna bereala artuko eban.

1.876ko urtean Otsaillaren 17an, karlisten guda nagusiak Beasaiñen batuta, barriz antolatu gure dabez eukezan indarrak, eta ez ziralako bat etorri, edo ta elkar aditu, espainitar parkamena gura ez ebenakaz batera, orokorrezko atzerakadan asi ziran.

1.876ko urtean Otsailla 19an Riberatar Primo liberalaren guda nagusiak, Jurramendi ta bere inguruak menperatuta euki ondoren, Lizarra be artu eban, Berruetetar Franzisko, Zorrillatar Justo, Saldiaстар Florenzio, Garzia Erreostar Migel, Barandiarantar Jose Antonio, Ibarluzeatar Bentura, ta Dankauestar Matiasak siñatuta, etsaimenduen agiria.

Egun onetan XIIIn Alfonso arro arro, Donostian sartu zan.

1.876ko urtean Otsaillaren 19an Larunbe guda nagusiak, Atxuriko⁽²⁾ mendietan geratzen ziran karlistekin, ekin eutson borrokan il arte. Eta urrengo 20garren egunean agertu zan askenez “El Cuartel Real” karlisten aldizkaria.

1.876ko urtean Otsaillaren 22an XIIIn Alfonso espainitarren erregeak, Donostian egin eban bere sarrera, 24an Tolosara itzulita.

(1) Ziria = la brigada ciria. (2) Atxuri = “peña plata”.

1.876ko urtean Otsaillaren 28an Lizarra, karlisten irudi edo karlista gudarien itxurapenezko irudizkoa zalako, espainitarren liberal gudalozteak erasota, odolkerizko⁽¹⁾ sarraski gogorrenak egin eutsoezan, eta geiagorik ez eutsen egin, ezin ebelako.

Karlistek euki eben etsaimende orrean bitartez: VIIIn Karlos, 26an Burgetera, eta 27an Balkarlos'etik igesean Tolosara joaten da, baiña Uri au be, eraso gogor baten bidez inguratuta, ta urrengo egunean etsaimentzeko egon zalako, bertan sartu ezinik, Baztaneko ibarrera joan zan, eta gero Frantzira iges egin eban, ostera itzuliko zalaren ezkeintzagaz.

Diru etxeak, 16 milloi erleko kopurua emon eutsoen, Bilbo babesten egon ziran liberal gudaloztekoari, ezeren irabazki edo ordea barik.

1.876ko urtean Uztaillaren 21ean, Bizkaian, oraindiño irauten eban borrokea karlisten porrota sortu arte, eta beragaz gure Foruen ezereztasuna.

Orañarteko bitarte labur onetan, gauza bi ikusten doguz emen, bata: Konstituzioaren jaurgo ori, noiz nola edo ta euren naierara ibili ebela egokitzen, arrazoidun biurtzeko, eta gure gaurko egunetan, eurak orduko denboretan egiten ebena, legezkoa zala esateko.

Baiña, nun edo zelan egongo ote ziran besteak, jaurgo ori arrazoizkoa biurtzeko ?.

Guzurra, beti izando da guzurra, nai EGI'etan biurtzen ibili.

Guzurra, Egiagaz naastuteko: Ura ta Orioa lez dira.

Orrela izanda, izkilluaren indarkeriak, arrazoizkoak ote dira ?.

Bestea: Lizarra, karlisten eskutik kendu ebenean, amaitu zan bigarren edo irugarrengo karlisten guda, espainitarren XIIIn Alfonso erregea, garaitsuki Donostin sartuta.

1.876ko urtean Otsaillaren 28an VIIIn Karlosek, Balkarlosen, gudaloztearen 10.000 gudariei ikustaldia egin eta gero, Nafarroako Arnegitik aldatzen dauz Auñamendiko mugak ostera itzultzearen aldarrikapeneko itxaropenagaz, Gaztelako 6 talde, Asturias eta Kantaurikoak 4 talde, Balentziako 3 talde, eta zaintzale zaldun talde bategaz, Plasenziako 6 kañoi-sail, Usarezak eta bidearen erakusleakaz joan zan Frantziko euskal lurretara Arnegiko zubitik.

Eta Nafartar gudari taldeak, Orbaizeta eta Burgetetik aldatzen dabez mugako mendiak.

Egun orretan XIIIn Alfonso espainitarren erregea, Iruñako Urian sartzen da bigarrenez.

1.876ko urtean Epaillaren 1ean VIIIn Karlosek Baionatik, eskutitz bat bialdu eutsen Segarratar Tomaseri, esaten: ezereztu egiezala ostera borrokan asteko asmoak, Kataluña egin ebazan antola guztiak, aurrerantzean ez zalako egon ezeren etorkizunik Erdiugarte onetan, Iparraldeko gudalozteak etsaimendu ziralako.

Eta Segarratar Tomasek itzarmenduta eukezan gudariekin, Frantzira aldatu zan.

Ekintza onegaz, amaitu ziran beste aurkako guda guztiak.

Eta VIIIn Karlosek amaitzeko, eskutitz bi bialdu ebazan, bat, espainitar erritarrai, ta bestea, beren gudariai.

1.876ko urtean Epaillaren 2an Lapoblaziñoko gaztelua, jeneral ordezeko Araoz'ek etsaimendu zanean, bere bost gudal agintari, 76 gudari, 8ko kañoi bat, osagille bat eta apaizakin, amaitu ziran karlisten izena eroaten ebezanak espainitarren ondoriozko guda onetan, edo ta amaitu bear izan eban.

(1) Odolkeri = ensañamiento, encarnizamiento. Sarraski = estrago, destrucción, carniceria, degollina.

XII In Alfonso Iruñatik asita, Gares, Lizarra, Los Arkos, eta Logroñotik Gazteizera joan zan, eta Durangotik Bilbaora txalo ugari artean.

1.876an Epailaren 13an XII In Alfonso Bilbotik Portugaletera joan zan, eta inguru ori ikusita gero, Somorrostron aldarrikapen gogor bat egin eban gure foruen aurka, gudalozte irabazleari berba onek esanda:

“Fundada por vuestro heroísmo la unidad constitucional de España, hasta las más remotas generaciones llegarán los frutos y las bendiciones de vuestra victoria”.

Berak: “conquistar la paz” egin ebalá esaten eban, baiña zelan lortuko ote eban bakerik, ezpata indartsu ori, eragin gogorraz, gure Foru edo gure demokrazizko legeen buruak ebagitzeko baiño, ez ba eban ibili ?.

Or ez zan agertzen bakerik, bildurra baiño, berezko errigizarteak denbora bear izanda osterá eskubidearen arrazoiak euren lekuetan ezartzeko, edestiak erakusten daukun lez.

Europán, bakeak lortu gura izan ezkeró, eskubidearen arrazoiak banandu bear dira euren nortasunezko lekuetan, eta gai-mundu onetan batzango batera eldu bear bagara, bertan bizi garen ardurazkoa dalako, ez bakarrik bakotzaren eskubideak ondo zainduta ulermen orreitara eldu bear gara, bai Izadi onek bereztuta daukan gai´arenak be, beste biderik ez dagoelako, ondo antolatuz, zentzu aundian eta bakez bizi gindezan, Goiko Jaungoiko Iraslearen Lege guztiak ondo ordezkatur.

XII In Alfonso Somorrostroetik Madrillerantza joan zanean, gauza baragarri batzuk sortu ziran bidean, eta geien Santanderretik aldatu zanean, oneik konturatu barik, edo ta konturatuta, baiña barregarritzko ekintza zikin baten:

Andrak bulerretan, aterkiñetan, umien jantzietan, eta abar.

Musikari edo soiñu-jotzailleak euren tresneri edo ereskiñetan.

Gizonak kapela, ginbail edo ta txapel eta lebitetan.

Poxpollo ontzietan.

Nai aizagalluetan⁽¹⁾.

Txakurrak eztarri edo ta lepoko, ustai edo lepustaietan.

Ormatan, etxeetan, eskegitako ikurriñetan, kaleko argietan, dendako ateetan ta erakus tokietan.

Baita ikusi leiken leku guztietan, ipinten eben iragarki au: “ABAJO LOS FUEROS”.

Lotsagabekerizko zomorroen⁽²⁾ jai bat izan zana, “Euskalerrriaren Legezko Izatasunari eta bere seme-alabari” bortizko indarrean eta ain gorrotozko berotasunekin, ezinbesteko amurrúa erakutsita.

Eta alderantziz, Foruen alde jokutzen ebanai edo ta Foruen babesean zeozer erakusten ebanai, zigor andi ostean, oial txabola baten sartu eta jende gabeko basamortuetara bialdu, bere izatasunezko aberriaren alde urten edo ta beren izena aldarrikatzen ebelako.

Alango amurrúa erakutsi eben liberalaren alde jokutzen ebenak.

(1) Aizagalluak = abanico, ventilador, eta abar. (2) Zomorroen jai bat = fiesta de disfraces, mascarada, etc.

Eta gaur ?.

Ikusten dogunagaitik, ez da agertzen besterik, naita mozorrotu barik egin da be.

Ala, eurak legez ezin dabena lortu, gu, euren jabetasunezkoak lez agertu gindezan, azagariak egiten dauan antzera, lotsati lez esanda, lortuko ote dabe ?.

Dana dala, espainitarren gobernuak gaur lez, ta euren demokrazizko legearekin(?), eurak alperrak izanez gain, edo egiari bildur direzala, ez dabe, eta ez eben izten ezer egin edo ta gure, Foruen alde ezer esaten.

Bai alderantziz saritu, gure Foruko Legearen aurka ezeren lotsabarik jokutzen ebenai.

Zer ote da ori: Amurrua ?, Gorrotoa ?, Gaizki nai ?, Bekaizti izatea ?.

1.876ko urtean Jorraillaren 6an espainiar gortekoak, XIIIn Alfonsok Somorrostron esan eban guztia onartu eban, ta Kastillotar Kanobasek gure euskal Foru Aldundiko arduradunai Madrillera deituta, agiriko aldarrikapen bategaz, au esan eutsen: “Eurak guda au, ariñauko izaeraren legezko antzera, eskubide, edo ta elkarpide barik irabazi ebela”

Esan orrekaz argi itzita, guda irabazi ezkeru, eurak izan zirela eskubide guztiaren jabe.

Alan ote da ?. Nungo Jaungoikuan ziñezten dabe ?.

Jangoikuak, Mundu onetan bakez bizi gindezan, oiñarrituta daukazan Legeen gaiñetik, gudako legearen era orreitan ordezkatu bear ba genduzan zor-eskubidearen eginkizunak, gudak eta borrokak, etenbakoak izango ziran, oraiñarte izan eta diran lez, menperatzeko baimen edo ta gudarako eskubide orreik, danorenak izan ezkeru.

Orregaitik mundu onetako gizon/emakumeak, ez daukagu eskubiderik iñungo legerik agertzeko, Jainkoak ipinita daukazan Legeak ardura andiz, eta gogo onenean bereztuta, egipidetzea baiño besterik.

Begitu ba, zelango aldea dagon, eurak esangura dabenetik, egin bear doguzan egizko egipideraiño.

1.876ko urtearen Loraillan espainiar gobernuoak, euskal erriko arduradunai deitzen dautsee, 1etik 15era Madrillen batzar baten alkartu zitezen. Bitartean, peninsula onen beste lurraldetatik, Sebilla izan ezik, gure Foru Legeak ezereztuteko eskatzen egon zirala.

Eta Kanobasek, euskal ordezkariak entzulearen antzerkikoak egin ondore, beren ixilpeko maltzurtasunean gorde ebazanek agertuko ebazan euskaldunen aurka, bere asken aginduko eritzi lez.

1.876ko urtearen Bagilla ta Uztaillaren Aldundiko batzarretan, alegiñ aundiak agin ziran gure Foruen alde, ta naita Benigno de Moraza ta Ruiz de Garibaitar Mateo, Arabako legegizon andia⁽¹⁾, legearen almen guztiak iru etenbako egunetan izildu barik argitzen egon arren, ez eban ezertarako balio, espainitarren belarriak zipoztu edo itxita egon ziralako, gero eurak gura ebena egiteko.

Eta ori ote da espainitarren legezko ordezkaritza ?.

Ori, fazizta zapaltzaillearen legea da !!.

Orregaitik, askeneko 200 urtetik Eskubidearen arlo onetan daukaguzan arazoak, sekula ez diralako argitu, betiko arazoak dira daukaguzenak, or emon gura izan dabe-

(1) Moraza Ruiz de Garibai tar Mateo Benigno = 1.817-1.878ko urte bitartean bizi zana. Araba ta Euskalerriko Foruen aldeko zaindari sutua izan zana. 1.841eko urtean, Gazteizko Udalaren idazkari izendatu eben. Eta 1.848an Arabako errialdearen aolkulari. 1.852ko urtean eta Ortiz de Zarate karlistarekin, “Vindicación de los ataques de los Fueros de las provincias vascongadas” idatzi ebana. 1.869ko urtean, Madrilgo gorterako diputadu autatu eben. 1.876ko urtean itzaldi gartsuak egin ebezanek gure Foruen alde Madrilgo gortetean. Idaz lan eta itzaldi asko idatzi ta atondu ebazanek.

lako asken aitzokadea, erdimendearen 325eko urtean Nizean asi eben, Mundu onetako Euskal Izkuntz eta Euskerazko Gizarteak lez euken Nortasunezko Eragipenari, katolikotasunaren aberkidetasunezko batzangoan biurtzeko, latiñetuz, kolonizatuta bizi gindezan. “Zertarako edo zeren asmo ? . Ori, Izadi onen legeari begira, alperrezko ke-utsa izanez gaiñetik, FAZIZMO UTSA DA.

Bai eta, gaurko era-berritu onetan “*Nacional Catolicismo Imperial*”aren elburu lez eukinda Jainkoaren Legeen gaiñetik, gauza orreik, euren norkeriaren menperatasunezko buru asmatzail gogorretatik kentzeko alegiñik, ez dabelako sekula egin.

Goiko, edo danon JAUNGOIKUARI begira dagozela esaten dabe ?.

Guzur aundiagorik, zekula ez dot entzun.

“Orregaitik, bide orretatik ez dira, ta izango dira be, gai, berez daukaguzan gizaren eskubideko jabetasunak ardura aundiz ordezkatzeko”.

Eta berau bakarrik ikusita, ez da arritzekoa gaur, Irasitako Izadi onen gaiezko ta gizaren lege guztiak ankapz gora eukin da, Europa ta munduan sortzen dana.

2. 4. (16) **SABINO.**

1.876ko urtearen Udan Sabinok, muga aldatu bear izan eban, ikasketaren amaiera-ko, azterketak egin bear izan ebazalako, Ondarribiako maisuarekin.

1.876ko Urrillan Arana tar Sabino Baionatik, Ondarribira eroan eben, erriaren eskolako maisuagaz, lenengo ikasketaren azterketak egiteko.

1.876ko urtean Uztaillaren 21ean espainiarren gortekoak, gure Foruak ezereztuten ebezan legeak ontzat artu ebezan, eta maltzurrezko erabidez euskaldunak sinistu daiguzan eurak esaten ebezan guzurak: Eurak emoneko Lege Berezi edo ta Faborezko Legeak zirala, ausartu ziran esaten, aldarrikapen onegaz:

“Los deberes que la constitución política ha impuesto siempre a todos los españoles de acudir al servicio de las armas cuando la ley los llama, de contribuir en proporción de sus haberes a los gastos del estado, se extenderán como los derechos constitucionales se extienden, a los habitantes de las provincias de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba, del mismo modo que los demás de la nación”.

“Euskaldunak nundik nora begituta, ote gara espainitarrak ?”.

Eta urte ta egun onetan ipini euskuen Euskaldunai, espainitar asmatutako aberri-tasunari naita-naiezko gudaritza edo soldauzka, Euskaldunak espainitar biurtu gurean.

1.876ko urtean Dagonillako 5an Begoñako Ama Birjiña, Santa Monikako lekaidetxeke eleizan gordeta egon zan lekutik, bere Begoñaren Santutegiko ezar lekura eka-rrri eben ostera, eleizbira eder bat eginda.

1.876ko urtean Urrillaren 17 ta 18ko egunetan Araba, Bizkaia ta Gipuzkoako Al-dundiaren ordezkariak, Gasteizen batzartuta, lege orrein ezarpenaren aurkako jazargo gogorrean agertuta, itzi edo uko egin eutsoen euren Aldundiko ordezkotzari.

Ekintza onen ondorioz, Fueristen alderditar barri bat agertu zan, Sagarminagatar Fidel, Bizkaiko Aldundiaren orokorrezko arduraduna, berak beste Foruko arduraduna-kaz batera zuzentzen ebenagaz, ez ebalako onartzen menperatzail agintasunik.



Sagarminagak, bere “Bizkaiko Edestiaren Oroimen”eko idaz lanetan esaten dau:

“Bizkaiko Jauntza” bera erandu ta zuzentzeko, jabetasunezko Laterri bat-zala”.

“Gure Askatasunak ez diralako inorgandik emonekuak edo ta artutakoak”.

“Gure Bereztasunaren azturazko eskubidetik, Euskal Berekiko askatasunak zirala, gure jabetasunaren asiera edo ta jaioterriaren sorburuko ondorioa ekarten daualako”.

Gure aldeko baten batek esaten dau: “Europako menperatzaillan aldian amaituta, oraingo edestian sartuta gagoz, gure erriaren izaerazko legetxean edo ta nortasunezko jabetzaren legebideak berrezkuratzeko”.

Lenengo au jakinda:

Menperatzaillan aldian amaitu ote da ?.

Ez !!.

Baiña jakiñean gagoz: “gure Nortasunezko Euskal bizitzaren ardurak, Demokraziz ordezkatzeko gura badoguz, euren menpeko eragipenetik urten bear dogula”. Jaungoikuak Gai-Bizi oneri, Bereztu Eutsoezan legeakaz guztiz arduratuz.

Euskaldunen artean, ordua da: “Euskalerrriak, beti danik eta bere Arbasoak lortu eben Demokraziaren Lege Zarrezko Batzarretatik antolatzen berriz astea, gure arbasoak lortu eben Euskal Batza Demokratikoaren antzera, guk ere lortu degun, euren gandik artuta oraindiño, Barne Barnean Baituta daukaguzalako “Askatasunaren Demokrazizko Lege Zaar eder erreik”.

Batez be, ORDUA ELDU DALAKO !!.

Aurrerantzean gure nortasunezko euskal-seme izatearen etenbako lan eta gogoekin Aita-Amak edo ta Arbasoen irakatsiak Jaun Goikuari begira eurak lez, Askatasun ta Euskaldun Demokrazizko ordezkaren eragipen bidetik mundura zabaltzeko.

2. 5. (17) **Sabino.**

1.876ko urte onen Urrillako illean, Sabinok 11 urte eukezala, Arana Goiri sendia, betirako aldatzen da Abandora, Koldobika eta Sabino anai biak Orduñako Josu lagunaren ikastetxera joanda, euren ikasketak egiten 1.881eko urterarte.

Arana ta Goiritar Koldobika eta bere anai Sabinoren itaunak, euren aita Santiagori, eta baita gudariak esaten ebenai begira.

ZERGAITIK AITA ?:

Arana ta Ansotegitar Santiago aitak:

Neure seme laztanak, ni enintzen matxinatu VIIIn Karlosegaitik, gure erlijio eta Bizkaiko edo euskal Foruengaitik baiño.

Arana ta Goiritar Koldobikak esanda, gudari karlistak esaten ebena:

Santa Kurtz apaizak guri, sekula ez euskun erakutsi ; Gora VIIIn Dn. Karlos ! esaten.

Guri: “Gora Erlijioa eta Foruak” aldarrikatzen baiño, ez euskuelako irakatsi.

Eta olan izan zan, “erlijioa” izan zalako elburuaren ardatza, gauza guztien gainetik, naita Foruak ezereztuten ba ziran be.

Ain sakontasunezko sinismen sendokoa izan zalako, euskal gizartearena.

Europako liberalak baiña, beste gaiezko eginkizun bat gura eben orokorreko gizarteentzat: sasi-katoliko ta sasi-merkantilismoaren eritziz asmatutako batzango elburuen serbitzura zana, Jainkoak ipinitako Lege guztien gainetik.

Ikaragarritzko amiltegi larrira ekarri dozkuna danori: "Bizitzaren gizako eskubi-deak, ekanduzko zeregiñ maltzur bidetik egipideratuta ekarri doguzelako".

1.879ko urtean, Frantziko iraultzaren bitartez artu ziran eskubide guztien kanpoko erabagi oneik, eta ez dago beste konpon biderik, bereztasunaren oiturazko bideak berrezkuratzea baiño, bestela Jainkoaren Legeak, aurkezten dauskun amiltegi orren arazo aundi ori, bertan dago.

Noz konturatuko ote gara, mundu onetako ordezkariaren arduradunezko jokua, ez dala txantxetako ?:

"Sasi-arrokeriaren maltzur ta guzurrezko jokutik aldendu bear doguz gure ekin-tzak".

"Ez, guk esaten dogulako".

"Bereztasunaren aurrean, okerrak izanez gain, ezin diralako, edo, ez daukielako egokirozko lekurik zeaztuteko, ez zentzu andi, orekazko eginkizunetatik aurrera egiteko, jaungoikuak beren borondatean, alango legeakin gai bereztuta daukalako bizi au".

1.876ko urtetik 1.879ko Azaroaren 4rarte iraun eban euskal jaurkintzaren debekatasuna konstituzioaren legezko baimenean.

2. 6. (18) *Arana'tar Santiago, Sabinoren aita.*

1.876an Abenduaren 23an, Atxatar M^a Jesus, Aranatar Santiagoren amagiñarreba il zalako, Santiago itzuli zan egon zan atzerri lekutik, eta ez zan geiago erbestera joan edo atzerriratu.

1.876ko urtean espainitarren errepublikako lenengo lendakaria izan zanak, "Las Nacionalidades" idatzi eban liburuan esaten eban:

"En España la cuestión de los vascos es mucho más grave que en Francia. No los une a los demás pueblos de la península, ni la raza, ni la lengua, ni el carácter, ni las costumbres, ni las leyes".

"No siguen el movimiento político del resto de la nación. Vencidos, se les ha arrebatado con los fueros la exención del servicio militar y de los tributos.

¿Son por eso más españoles ?.

Es indudablemente el resultado natural de la diversidad de razas ese antagonismo que entre ellos y nosotros existe.

A poco que se combine aquí los distintos criterios para la teoría de las nacionalidades, tengo para mí que se habrá de estar por la independencia de los vascos.

¿La consentiría España ?.

¿Se está seguro, escribe en otro pasaje de su libro "Las Nacionalidades" que esas y otras provincias no vuelvan a levantar pendones por sus antiguos fueros ?.

En mi opinión duerme el fuego bajo la ceniza".



2.7. *Euskalerrriaren diru kontuak, espainitar Sakratuzko Katoliko Aberkide zapaltzailleakaz*⁽¹⁾.

1.876ko urtean Otsaillaren 15ean, espainitarren konstituzio barri edo jaurogoa aldarrikatzen dabe, 1.931ko urteraiño irauan ebana.

Argi ikusten da emen, ainbeste bider barriztu egin bearrean ibili ba zirala konstituzio ori, euren kaisar legezko aginduaren itxuran aldarrikatzeke, egiaren aldetik ez ebala euki bere barnean, zentzuzko arrazoien izpiripez: "Bereztasunezko egiaren guztiz aurkakoa izanda, guzurrezko sorta-arau ori zartzeko, ia danok zoratu arte ibili ziralakoa".

"Bai, eta zelan aurkezten gara gaurko egunetan ?".

1.876ko urtean Epaillaren 2an Araban, La Poblaziñoko gaztelua, Araoz' tar liberalen jeneralari etsaimendu zanean, amaitu ziran karlistek euki eben askatasunezko azken tokia.

1.876ko urtearen Loraillan espainiar gobernukoak, erriko arduradunai deitzen dautsee, 1etik 15era Madrillen batzar bat egiteko. Bitartean, peninsula onen beste lurraldeetatik, Sebilla izan ezik, gure Foru Legeak ezereztuteko eskatzen egon zirala.

Eta Kanobasek, gure ordezkariak entzulearen antzerkikoak eginda, beren ixilpeko ardurapean gorde ebazan, gure aurka azalduko ebazan, asken eritziko aginduak.

1.876ko urtearen Bagilla eta Uztaillaren ille arteko Aldundiaren batzarretan, ainbat alegiñ egin ziran gure Foruen alde, ta naita Moraza Ruiz de Garibaitar Mateo Benigno, Arabako lege gizon andia, legearen almen guztiak iru etenbako egunetan izildu barik argitzen egon arren, ez eban ezertarako balio, espainitarren belarriak zipoztu edo itxi egin ebazalako, gero eurak gura ebena egiteko.

1.876ko urtean Uztaillaren 21ean, eta 1.872-1.876ko urte arteko karlisten guda amaitu zanean, baieztu eben espainitarrak lege bat, bere bidez Araba, Bizkaia, eta Gipuzkoako lurraldekoak, espainitarrak izan ba ziran lez, eurak ipini ebazan zergak ordaindu egin bear ebazala.

Batzartu egin ziranean, arazo aundiak sortu jakiezan baiña, Euskalerrriaren lurraldeak, euren Foruko legeen diruak izanda, bai eta auren Batzar-legearen bidezko tresneriak euki ebazalako diru orreik batzeko, gauza orreik ez ziran errezak konpontzen, espainitarrak ez ba eben euren zapaltzaillezko kaisar lege orreik, gudaloztearen indarragaz gure artean ezartzen.

Iru Euskal lurralde orren Foru Batzar arduradunak, espainitar gobernuko Kanobas' egaz, ainbeste bider alperrik ibili ondoren, onek gogorrean astea erabagi eban.

1.877ko urtean Loraillaren 5ean, ezereztu ebazan Euskal Orokorrezko Batzarrak eta Bizkaiko Foru Aldundien arduradunen aginduak.

1.877ko urtean Azaro askenetan eta Abenduko illaren asieran, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiakaz egin ebana.

Bereala baiña, agertu jakien espainitarrai, zelan batu zerga orreik Euskal lurraldeetan, eta Kanobas' en gobernuak sortu ebazan espainitar Diputazio barri orren ardura-

(1) Euskalerrriaren diru kontuak, Espainitar sakratuzko katoliko aberkide kaisertzak = inicio de nuestro concierto económico, impuesto a los vascos por la fuerza de las armas, de nuestros ancestrales enemigos nacional católico españoles.

dunakaz berba egin eban, ia zelan sartu euskaldunak, beste lurraldeen legepean “espainitar aberrien orokorreko ongunde barruan”.

1.877ko urtearen Abenduan ta 1.878ko Otsaillaren ille artean, espainitar Diputazio barri orren arduradunaren artean, alkarrezko agindu batera eldu gura izan eban.

Eta 1.878ko Otsaillaren 28an Euskalerriko Foru legeak ezereztuz, XIIIn Alfonso erregeak bere agindu bategaz atara eban ongunde orren leenengo agiria, Diputazioak bere aginduz, 8 urteko apean ordainduko ebezala era berezi baten, gobernuak ipinitako diru sariari, zerga orrekin bidez.

Ordutik ona: 1.878, 1.887, 1.894, 1.906, 1.925, 1.952, 1.976, 1.981ko urte onetik, kontzertu ori lege lez artzen dabe, Euskaldunakaz ongunde bat egin eta gero, ez zigorrezko agindu lez XIIIn Alfonsok egin eben antzera, eta 2.002ko ongunde edo kontzertuak baieztatzen dira, 2.002ko ongundearen urtetik, muga bageko lez artuta kontzertu ori, espainitar eta euskal gobernuak on artu dabena. Konstituzioan be onartu zana, leenengo antolabidean esaten dauan lez: “Edesti Luzeko Foru Lurraldearen Eskubideak” babestu ta begirunez artzen

Diputazioak ongunde orren bidez, espainitarren gobernuari ordaindu bear eutsoezan diruak, espainitar gobernuak oldozten eban zenbateko diru kopurua izango zan berak artu bear ebezanak⁽¹⁾, lurralde bakoatzatik izan da, lurralde bakoatzak, berentzat bear ebazanak kendu ta gero. Kontu onean artuta, zenbat batzen zan zerga bidez, eta zenbat emon bear jakon gobernuari ongunde orren bidez.

Espainitar gobernuentzat ongunde orren bidez, garrantzi audieneko gauza euki ebena, zergaren batuetaik kanpo geratzen zala, eta bestetik, Diputazioaren borondatean izten ebal zerga orreik eskuratu a la ez.

Erki Aldun⁽²⁾ edo lurraldeen diputazioak zerga orreik eskuratu leikiezan aldetik,

ordainak eurak artu, edo bestela eurak ibili ebazan era orretan orrate, diruak, janariei, edate, sugarrizko gauzarekin, eta alkooldun edariei diruen sariz-gaiñeko zergak ipinita aurrera egin. Dana dala, ongunde onen balioa 1.886ko urtean Epaillaren 1ean amaitutzat emon bear izan ebana, bost urteko apean barriztuta etorri da, gaur arte.

1.878ko urtean Otsaillaren 28an, Euskaldunak zeozegaz lasaitzeko, 8 urtearen epetarako oldoztuta baieztatzen da “Diruaren Antolakuntza” ori, Bizkaiko Aldundien arduran egon zedin, gero 1.887/1.894/1.906, 1.925 urtetan eguneratzeko.

1.878ko urtean Otsaillaren 28ko ongundetik, 1.886ko urteraino luzatu zan bere balioa, Erki Aldundiak beti ordaindu eutsielako espainitar Laterriaren gobernuko diru zaiñari, ezeren arazorik bage, Erki Aldundikoak izanda, zerga orren arduradunak, eurak Foru denboran euki ebazan arauak zerga orreik eskuratzeko almenakin.

Diru arloaren ministruak ez eben batzen, ongunde orren bitartez ezarri ziran zergak, Euskalerrian, sartzen ebazan diruak egin bear ziran gauzetarako, oso gitzi edo laburrak izan da, diru geienak, Foru edo Erki Aldundiko arduradunak eroaten ebazalako, erriko lurraldeak bear ebezan gauzatan.

Garrantzi audikoenak izan ziran leenengoetan ongundetatu ziran zergak: Lurraldeko zergak, lantegiren zergak, Erregeen eskubideko zergak, zigilu⁽³⁾ eta jan edateko gauzaren mugako zergak izan ezik.

(1) Berak artu bear ebazanak = “CUPO” = cuota, parte, que estimaba cobrar el gobierno central por los impuestos recaudados, después descontar lo que a las provincias les correspondía en sus necesidades.

(2) Erki Aldun = diputaciones provinciales. (3) Zigilu (zizilu ?) = timbre, sello de correos.

Bost oiñarrizko zerga onen bidetik joan ziran zabaltzen, urrenes egiten ziran zergako berrikuntzak, ongunde orreri lotuta geratu zitezzen, eta bere zuzentasunezko ekintza edo begirunekin, Laterriari ordaindu, itun edo ongunde bidez ordaintzeko geratu bear jakozan diruak, edo ordaintzeko geratzen zan zatia⁽¹⁾, erria ta erritarren bearrezkoak bete ondoren.

1.878ko urtetik 1.937ko urteraiño dauka leenengo epe aldiko bizitza, espainitarrekin sortu zan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru aldundiak dirua batzeko kontuaren gora berak, eta itun edo ongunde bat egin gendun eurokaz.

Orregaitik da aiñ garrantzizko gauza Euskalerrarentzat, lenengoetan izkillu edo guda-loztearen indarragaz sartu ba euskuen lan ori, diruak gure eskuetan ibiliz, jakin gendulako gure Foru tresneri bat bezela erabilten, euren eritzi edo borondatearen aurka.

Orregaitik damutzen dira gaurko denboretan, eurak guri berezitasun edo faborezko lege bat bezala emon euskuelakoan. Egia baiña, gudako izkilluekin beartu genduzala da.

Orduan, zer ote da, Laterriari ordaindu bear dautzagun diruaren zati ori ?:

-Euskalerriak, Laterriari ordaindu bear dauazan diruak, berari jaurkintzeko ez jakozan emon arduragaitik da. Adibidez: espainitar laterriaren babesagaitik, guda-lozteagaitik, atzerri-tar arduragaitik, edo erregeari emon bear jakozan diruen arduragaitik, espetxe, eta orokorrezko zar-sari, beste gauza artean. Orduan, espainitar lurralde guztiak daukie zergazko diru kontuen gora beran, ongundezko erabagi ori.

Bai, diruaren ongunde ori beste erako antola edo bigaz bizi dalako. Bata: Nafarroa berak Laterriagaz daukan ongunde bereziekin. Eta bestea: beste lurraldeak daukien L. O.F.C.A. edo espainitar Askatasuneko Lurraldeak, euren diru arduratan daukien Legeen Gaitasunekin.

Gaur, gure Uriarte´tar Pedro Luisek eroaten dau “Ongundezko Erkidetasun” orren(2)

elkartea, erritarren artean aztu barik, jakin edo ta ulermendu dagigun, zer dan gure askatasunarentzat ongunde ori tresneri lez. Eta ezkertu bear dautzaguz, bere euskaldun aberki-dezko alegiñagaitik.

2.001-2.013ko urte bitartean Eustat´en⁽³⁾ txetasunetik, espainitar gobernuak 15.026 milloi euro gitxiago emon edo igorri⁽⁴⁾ dauz Euskadin, zergaren orokorrezko ordaintzatik artu dabezanetik baiño.

2. 8. (19) *Arana ta Goiri tar Koldobika.*

*1.879ko urtean Aranatar Koldobika, batxillerrezko laugarren ikas-mailla eskuratu eban, eta beren gurasoak, Pontebredako Laguardiara bialdu eben Josu lagunaren ikastetxe-
ra etxegillearen ikasketak beteteko.*

1.879ko urtean Nozedaltar Kandidok, VIIIn Karlosen ordezkoa zanak, osteranta antolatu eban karlisten alderdikidetasuna, katoliko izatasun lez, euren alde egon ziran aldizkarien laguntzarekin.

Aldizkari oneik eraso gogorretan ibili ziralako, Pidaltar Alejandrok beste karlistaren eritziak bideratzen ebezanak, “Katoliko Batasunaren” alderdi barrien izenakin leia gogor-
rrak euki ondoren, Kanobas del Kastilloren euslari edo gordetzailleakaz⁽⁶⁾ alkartu ziran, emendik aurrera karlisten eritziak naste aundiangoetan sartuta, “Tradizio-Zale edo Lengo Zaleen Elkartasunean” biurtu zana.

(1) Ordaintzeko geratzen zan zatia, erria ta erritarren bearrezkoas bete ondoren. (3) Uriarte´tar Pedro Luis dala, Ongundearren Erkidetasuna eroaten dauana = Que hoy es Pedro Luis Uriarte quien lleva esa Comunidad del Concierto. (3) EUSTAT = Instituto Vasco de Estadística. (4) Igorri = invertir, gastar dinero en Euskadi. (5) Euslari edo gordetzailleakaz = conservador, liberal conservador. Godetzaillea = conservadores de derechas. (1) Naita susmoa, Bartzelonan egon ziran denboran, Kataluña-
ra erbesteratuta egon zan Urduñaño apaiz batenak izan. Baiña Tolosako Garmendia anai urgazle edo laguntzaillearen esanak artzen ba doguz, Koldobika, Galiziako La Guardian bere eskutik abertzaletu egin zala onartu bear dogu.

2. 9. (20) *Arana ta Goiri'tar Koldobika, Sabino, eta Juan.*

1.880-1.881eko ikas-urtea bete eban bakarrik, Aranatar Koldobikak, Pontebredako Laguardian, ez zalako egon maixu-biderik, eta Madrillera joan bear izan eban bere etxegillearen ikasketetan aurrera egiteko.

1.881eko Bagillan Aranatar Sabino, Urduñako ikasketak amaituz egoala gaisotu zan, il zorian geratu arte, bizitzaren askeneko Sakramentuak ille orren 16ko Gorputz egunean artuta. A ta guzti: 19an física arloaren azterketak bete ebazan; 20an fisiología eta osasunbideko arloak azterkatu ebazan; eta 21 ta 22ko gauerditik aurrera, biztuten asita, askeneko azterketak ogean egin ebazan. Eta 1.881eko urtean Bagillaren 30ean artu eban, Batxillegoko jabetasunen agiria. Baiña ez eban indar asko euki aurrera egiteko, eta Abandoko etxera joanda, urte bitan egon zan ezer ikasi barik, arik eta indarrak berrezkuratu arte.

1.881eko urtean Abandon egon zan Pi eta Margall'tar Franzizkok aitatu eban, 17urte eukezan gazte baten bulerrean egoan askatasunaren sua:

“ARANA TA GOIRITAR SABINO” IZAN ZAN GAZTE AU.

1.882ko urtean Koldobika Galiziaren Laguardiako ikasketatik etorrita egoala, ez dakigu inork noren bidetik(4), Euskalerraren egoera politikoagaitik arduratuta, jakin eban zein zan Euskalerraren egizko arazoa, eta Sabino 17 urtegeaz oraindiño bere osasuna berrezkuratzeko eriondoko aldian ogean egoala, Luisek jakin ebezanak, Sabinoren ezauntzan ipini ebazan, eta egun bereinkatu orretan onek, ziñez itz emon eutson, bera indar guztiekin arduratuko zala **“EUSKALERRIAREN ARAZOAGAZ, ETA EZ ZALA GELDITUKO, ARIK ETA ARAZOAREN AZKENEKO ARRAZOLAK JAKIN ARTE.**

1.882ko urtean Euskalerraren zorigaitzezko gora beragaitik, Arana ta Goiri'tar Sabino bere anai Luisekin Albiako lorategian alkartuta, auxe esan eutson Sabino'k Koldobika'ri: *“Yo no conocia aún bien nuestra Patria, pero tú encauzaste mi inteligencia con tu palabra. Finalmente te dije lo pensaré, te lo prometo”.*

Sabinok, egun orreitan eta Koldobikaren aotik jakin eban: *“Bizkaia, Euskalerra osoa lez, ez zala espainitarren lurralde bat, ez nortasunaren izatezko bidetik ezer, ez bereztasunaren, ez eritzizko bidetik eta gitxiago edestiaren aldetik, eta berba oneik esan ebazan”:*

“BEREINKATUA IZAN DAITELA NIRE ABERRIA EZAGUTU NEBAN EGUNA, ETA BETIRAKO ESKER ONAK, ERBESTETASUNEZKO LAIÑU BALTZETATIK ATARA NINDUANAI”.

Bat, izan ziran anai biak ortik aurrera Euskalerraren arazoetan, Luisek bere anai Sabinok euken ulertze aundiagoari, beti erkidetuta lagundu eutsolako argibidezko arazoetan agertzen ziranak.

1.882ko urtean Dagonillaren 11n, 1.851ko Epaillaren 30ean jaio zan Arana ta Goiri'tar Juan, euren irugarrenengo anaia il jakien, etxeko sendi guztiaren miñ edo oiñaze andienagaz, bere aita Santiago ta Paskuala amak, itxaropen aundiak euki ebezalako, beren itsas ontziaren egille izateko ikasketakaz.

1.883ko urtean Bagillaren 24an euren aita, Aranatar Santiago, karlistek, gudan uts egin ebenetik, oso minduta gaisotu zan, eta Euskalerra espainitarrengandik menperatuz geratu zanean, geiegizko larritasunean sartuta, San Juan egun onetan, gabeko 11etan il jakien.



1.883ko urtean amak, Koldobika ta Sabino Bartzelonara eroan ebazan, Eraman Ona⁽¹⁾, Lege jakintza⁽²⁾, eta Elertia⁽³⁾ ikasteko, bai bitartean Arturo Kanpionek atara berri eban “Gramátika Baskongada”rekin euskerea ikasi be, len gaisorik egon zanean “Ban Eys” olandarraren iztegi ta gramatikarekin egin eban lez.

1.884ko urtean, Sabinok 19 urte eukezala, saio bat egin eban, euskerea, legez idazteko gora berarengaitik.

1.885eko urtean Sabinok 20 urte eukezala, eta naizta 1.888ko urtean argitara emona izan, “Gramática Elemental del Euskera Bizkaino”, 200 orrialdekoa osotu eban.

1.886ko urtean Sabinok, ainbat politika arloko idaz lan edo artikulu idatzi ebazan, euskaldunen enda edo leiñuaren gora beragaitik. Eta idazki oneik, ez ziran argitaratu inungo aldizkarietan, adibidez: “Noticiero Bilbaino, La Unión Vasco Navarra, eta Euskal-Errián”, Unamunotar Migelek “Noticario Bilbaino” idazten ebazanen aurka ziralako. Unamunok euskaldunen izakereagaitik idazten ebazanek, ergeltasunez idazten ebalako.

1.886ko urtean Uztaillaren 15ean Sabinok bere idaz lan “Basco edo Vasco” argitaratu eban “Vizkaia’ko” albistarian, Unamunok idatzi eban eritzi baten aurka.

1.887ko urtean. Euskerazko Itz-Sorkun edo Itz-Etorkiren(1) 21 orriko liburutxo bat idatzi eban.

1.888ko urtean, 38 orri euki ebazan, Euskera zaleen liburutxoa, idatzi eban.

1.888ko urtean Jorraillaren 7an Sabinok Bartzelonan, 1.886ko urtean Unamunoren aurkako ez ziran argitaratu idazkiak, emen argitaratzen dauz, edesti politikoan idazten dauazan 14 orri eukan leen liburuzko alea idatzita, Euskalerrriaren ikerketa bat egiñez.

1.888ko urtean Otsaillaren 11n, gabeko 4retan il zan Goiri ta Atxatar Paskuala, Sabin ta Koldobikaren ama, eta ortik aurrera Sabinok 23 urte eukezala, ez ebazan legezko ikasketak aurrera eroan nai, aita ta amaren esanak bertan utziaz.

Beren gogapenak alde batetik sendagillarenak izan ziralako, eta beste aldetik, euskerea ikasten biotz guztiagaz ibili zalako.

1.888ko urtearen Uztaillan Bilbora etorri ziran Koldobika ta Sabin anai biok, eta ortik aurrera il arte, ikaragarritzko lana egin euskun lumaz ta mingaiñez.

1.888ko urtean Epaillaren 4an espainitarrak, Euskalerrriko meategiren Foru legeak ezereztuteko gogoak eukinda, XVIIIn legezko atalean leen idazpuruko araudian agertu ebena, txantxa edo izeka lez, auxe esaten eban: “Que no se saque vena para reinos extraños”.

1.889ko urtean Edesti politikoaren, 24 orriko bigarren liburutxoa idatzi eban.

1.890eko urtean Sabino k esaten dau: bere anai Koldobikari Madrilleko bidai baten egoala, Kantabro⁽⁴⁾ batek ikusita, papar egala baten Foruaren ezaugarri bat eroala, itaundu au eutsola: “Pues mira, eso es lo que no entiendo bien. Si los vizcaínos sois españoles y vuestra Patria es España, no sé como quereis gozar de unos fueros que los demás españoles no tienen y eludir obligaciones que a todos los españoles deben comprender por igual ante la Patria común. Gozando de los fueros no servís en el ejército español, ni contribuis con dinero al tesoro de la patria. No sois buenos españoles. . . .” Admitiendo como gran verdad lo manifestado por el santanderino, Luis se cuestionó si era español o sólo Vizcaíno, considerando que su opción era la segunda”.

1.892ko urtean, euskerazko paper orrien, 24 orriko liburutxoa.

(1) Eraman-ona = Filosofia. (2) Lege Jakintza = abogacia. (3) Elertia = humanidades, letras humanas, o, literatura. (4) Kantabroak = Bizkaitar Euskaldunak ziralako, Enkarterriko Kastro Urdialesekoak be egon ziran 1.452ko urtean Foruak idatzi ziranen batzar orreitan, bai ta 1.526ko urtean ostera zuzendu egin ziranen be, orregaitik daukie euren ikurriña, Gernikako Arbolaren irudiagaz edertuta.

1.892ko urtean, 141eko orri eukan liburua, "Bizkaia beren Askatasunagaitik". Lau Aberriko Zoriontasunezko borrokak ekarten ebanak, Arrigorriaga 888ko urtean Padurako guda, Gordexola eta Otxandio 1.355ko urtean, eta 1.470eko urtean Mungian egin ziran borrokak aipatuz.

1.893ko urtean Garagarrillaren 3an Sabinok, Larrazabalen emoneko bere garrantzi aundienetarako itzaldia. Larrazabaleko Ziñezpena lez ezagutzen dana.

Eta Itsas ontizien egille zan De La Sota tar Ramonegaitik asita, Sabino bakarrik itzi eben bere lagun guztiak alde eginda, Giard tar Teofilo izan ezik.

1.893ko urtean, 16 orri eukazan liburua "Larrazabaleko Aldarrikapena" argitaratu eban. Emen esan eban berak: "Bere aberriagaitik alboratu ebazala, aita eta amak agindu eutsoezan ikasketak".

1.893ko urtean Garagarrillaren 6an, Bizkaitarra aldizkaria argitaratzen dau, 12 zenbakiraiño eldu zana.

1.893ko urtean Uztaillaren 31n Abertzaleen bizitasuna, politiku biurtu zan, Bizkaian jaiota.

1.893ko urtean, Gernikako Sanrrokada.

1.893ko urtean Dagonillaren 16an, espainitar diru zain ministruak, Napar Foruen diruak bir-aztertu edo ta ikusi gura ebazan, Napartar eritziaren aurka.

Eta itzaldi onen bidex Gernikan, San Roke egunean omenaldi bat ospatu zan "orfeón Pamplones" en buruz, leenengo eta goizetik Gernikako Arbolari omenaldi bat egin ondoren, eguerdian, bazkari eder bat egin eben, Fuerista, karlista, Bizkaitarrak, eta Unio ko Katalamisten artean.

Gernikako liberalaren "Gernikako Alkarte" ta "Tradizio zaleen Alkarteko balkoitik" espainitarren ikurriñak egon ziran dindilizka.

Gero bazkaltzen egon ziranean, "Abajo la preponderancia de Castilla" eta "Viva la autonomia de las regiones" entzun ziran, karlista batzuk aurka urtenda.

Asarre orretan "Muera España" entzun zan, eta fuerista ta karlistak alde egin eben bazkal toki orretatik.

Arratzalderuntz euskal aberkide batzuk, liberaltarren begira tokian egon ziran espainitar ikurriñak, erre egin ebazan, "Muera España" ta "Viva Euskeria Independiente" aldarrikatuz.

Gertakizun au, euskal abertzalearen, leen oiartzun lez agertzen da.

1.893-1.898ko urte bitartean Sabinok, bere bilbakuntza bidetik, aukera batzuk aipatzen dauz ustebageko karlistaren oiñarritik asi ta Bizkaitar askatasuneraiño, "Jaungoicoa eta Foruac" "Jaun-Goikua eta Lagi Zarragaitik" aldatuz. Kondaira legez,

Larrazabalaren politikako agiritik agertzen dala, uste da.

1.894ko urtean Otsaillaren 18an Kastejonen ainbat lagunekin "Gamazada" ospatu zan. Eta euren artean ainbat Sabinoren lagunak egon ziran Borgoñako ikurriñaren antzekoa zan, San Andres en Gurutz Gorria, azpian oiñarri lez margo zuriagaz, Irujo ta Aranzadi tar Juanak, Sabin eta Koldobika Arana anaiak egin eben zirri-borrotik artuta, egin eban ikurriñagaz.

Ikurriñ orren ostean eta izki gorriekaz idatzita, "Jaungoikua eta Lagi Zarrakin", Bizkaitarrak euren anai Napartarrai agurtzen ebazala. Orrez gain Bizkaitarrak, Aritz en orriak eroaten ebazan bulerrean, oiñarri lez margo zurien gainean korapillotutako oial gorri bategaz edertuta, biotzaren aldean eroaten ebazala.



Gamazada onen erantzun lez, errigizartea alkartuta Nafarroan egin zan erakustaldi edo agertaldi aundienean, asi ziran euren arrazoiak aldarrikatzen eta izenpetasunak baztzen, 120.000 izenpe denbora gitzian batuta. Orregaitik Espainitar Gamazo ministrua kendu eben bere aginduzko lekutik, eta erritarren eskaerak aurrera egin eben.

*1.894ko urtean Uztaillaren 14an Sabinok, "Euskaldun Batzokija" sortu eban. Eta urrengo egunean, emen, leenengoz goratu zan gure ikurriña. Bizkaiko ikurriñaren gorri margoaz oiñarri lez, San Andres gurutzze edo beso-zabal orlegi margoan eukezala, Gernikako Arbola-
ren irudiz, eta Gurutz zuriaren margoagaz, Kristautasun sinismena erakusten.*

1.894ko urtean Uztaillaren 15ean Ikurriña goratu zanean, Begoñako baselizan Meza Santua ospatu zan, ta Batzokira joanda, batzar nagusi bat ospatu zan, Sabino Lendakari lez aukeratuta. Egun onetan sortzen da "Euskaldun Batzokija".

*Amaitu ziranean batzorde orren zeregiñak, txistulari elkarte bat urten eban begira to-
kira, an egon zan jendetza nabarmendu ebana⁽¹⁾, euren ustez, Bilbaoko eres-taldeen joaldi bat itxaroten ebelako.*

Jaialdia, gaberaño luzatu zan, eta gaur egun, Inazio Deunaren egunean ospatzen da egun ori.

*Ez zan amaitu bakez jai-aldia, auzoko batek, espainitar gobernari edo agintariai sala-
tu eutsolako, zarata asko egitearren. Eta gobernariak zigor lez 500 pestagaz beartu ebazan, abestu, txistua jo, eta solairu baten anakakaz zarata asko ataraten zalako.*

*Jai-aldia salatu ebanari Sabinok, Bizkaitarren aldizkarian, lotsagarritu eban, eta au
mindu ta asarre, ostera salatu eban. Eta salatasunezko ekintza oneik izan ziran Sabino
leenengoz baitu edo espexera eroan ebana.*

*1.894ko urtean, Azaroko illean Sabinok, zazpi bazkide botaten dauz alkartetik, beste
ainbeste urtenda, urtea amaitu baiño len.*

*1.895eko urtean Otsaillaren 3an Euskeldun Batzokijan Azkue´tar Resurrezion M´ari
omenaldia egin eutsoen, "Vizcaitik Bizkaira"ko antzerkia egin ebalako, eta aurreko egu-
naren 2an leen aldiz emon ebenagaitik.*

1.895eko urtean 50 asierako sortzaille bazkideetatik, 30 urten eben, geienak botakuak izan zirenak.

*Eta urte orretan, araudiak aldatuten dabex, ordurako 120 bazkide izanda. Araudietan
ipinten dabe: Euskaldun Batzokijak ez daukola zer ikusirik Baserritarra aldizkariagaz,
izparrangi politikua izan zalako, eta Euskal Batzokija, jostagarriariko bakarrik.*

*1.895eko urtean Otsaillaren 17an, espainitar gobernukoak 200 pestagaz zigortu eben
Euskeldun Batzokija, 20 pertsuna baiño geiago egon zirelako antzerkiaren ekitaldian, eu-
rengandik baimena eskatu barik.*

*1.895eko urtean Epaillaren 16an Euskal Batzokiaren Alkartea batuta, ez eben onartu Az-
kuen omenaldirako, karlistek egin eben asmo agertzea, lenago artu ebazan diru zigorrak naikoak
izan zirelako gogoz azetzeko. Bai euskal katoliko taldea ta Euskalerra elkarreak, omenaldi orren
antolatzaillle ziranak, Tradizio edo Antziñatarrezko zaleak, espainitar lez artu ebazalako.*

*1.895eko urtean Epaillaren 19an, Bermeoko Aketxe Balandra itsas-ontzian edo euki
eban masta-bakarrean, Euskal Ikurriña ipini zan leenengoz. Eta au izan zan, Ikurriña
leenengoz ipinten zana Euskal Batzokitik kanpo.*

*1.895eko urtean Jorraillaren 21ean, Euskeldun Batzokikoak alkartuta erabagi eben, ez
aurkeztea urbil egon ziran auteskundetan.*

(1) Nabarmendu ebana = se destacó, distinguirse.

1.895eko urtean Jorraillaren 24an, 25 zenbakiko Bizkaitarra aldikaria agertzen da, espainitar fiskalak salatu ebena, agirietan, “ellos y nosotros” eta “La bandera española”ren aurka idatzita etorten zalako. Espainitar gobernariak 500 pestako zigorra ipinita Sabinori. Ostera baiña, itzuli eutsonea, salatu ori epaiketara eroanda egon zalako. Asken baten, dana geratu zan, ezerezean.

1.895eko urtean Jorraillaren 26an, Euskal Batzokiaren Batzar barria aukeratzen da, eta onartzen dira askeneko araudiaren legeak. Arana ta Goiri tar Sabino eta Llodio tar Ziriako aukeratu ziran barriro, lendakari ta lendakari ordezeko lez.

1.895eko urtean Uztaillaren 31ko San Inazio egunean, Euskal Batzokijan erabagiten da, Lenengo E.B.B.rra Euskadi Buru Batzar lez, Sabino ren lendakaritzapean, eta Koldobikaren lendakari ordetzaren arduradunetan.

1.895eko urtean Dagonillaren 2an, Sabino salatu eben Bizkaitarra aldizkariaren lendakari lez. Aldizkariak idatzita ekarten ebazalako espainitarren aurkako agiri batzuk, adibidez: Jaunso ro tar Anjel ek “Abolición y Reconquista”, “Neu” eta “Vengan Escobas”, Aranzadi tar Engraziok idatzi ebazanek “Basa Jaun” ez-izen aurrealdeagaz.

1.895eko urtean Dagonillaren 28an Sabino ri, Soltura tar Filomenoren aurka idatzitakoagaitik, Euskal Batzokija salatu ta gertakizun auk Bizkaitarra aldizkarian agertzen ebazalako, 11 illabete ta egun batera zigortuta bialdu eben Larrinagako espetxera.

1.895eko urtean Iraillaren 5ean, eta Aranzadi tar Engraziok idatzi eban “La invasión Maketa en Gipuzkoa” agiri bategaitik Basa-Jaun en izen ordeagaz: Erri tar Gobernari ta Gudarako gobernari en salaketak⁽¹⁾ euki ebazan.

1.895eko urtean Iraillaren 12an, agiri orregaitik, Madrilleko gobernuaren aginduz, sarratu eben “Euskal Batzokija”, zuzendariak, ez ebalako zaintzen alkartea, eukezan araudiekaz: “Zer su Círculo perenne de rebelión, y un peligro para la nación” beste salaketaren artean.

1.895eko urtean Iraillaren 13an, Batzorde osoa baitu edo espetxeratu eben espainitar agintariak, Sabino aurrean dala, ta onek danari barkatuz. Eta Sabino, “Baso-Jaun” en guzur izena ez esatearren, 1.896ko Urtarrillaren erdi ingururarte espetxean euki eben.

1.895eko urtean Iraillaren 25ean Sabinok, bakarrik geratzen da espetxean, bestien diru zergak ordainduta, Euskeldun Batzokikoak zirenak, askatu ebezalako.

1.895eko urtean Urrillaren 8an Sabinori, Soltura tar Filomenoren aurka euki eban zigorra amaitu jakon. Ez eban espetxetik urten baiña, matxintasunaren salaketa euki ebalako.

1.895eko urtearen Azillan, espainitarren gobernuak, ezereztu egin eben aldizkari “Bizkaitarra”.

Sabinok Bizkaitarrarekin, EZILKORTASUNA⁽²⁾ irabazi eban. Aldizkari onekin geiago izan zalako, espainitar laterri ta Kanobas del Castillo baiño, eurak eta euren buruak garaitu eziñekoak zirelako euren ustez. Eta Eusko Alberdi Jeltzalea andik aurrera, orren ekintzagaitik, BIZKAITARRA deitu zan.

1.895eko urtean Euskerazko abizenaren, “Itz-sorkundearen ongundea” 128 orriko liburutxo argitaratu eban.

1.896ko urtean, “Bizkaitar Euskerazko Idazkeraren Irakaspenak”, 306ko orri daukan liburua agertu eban.

1.896ko Urtarrillaren 13an, Sabinoren zigorra amaitu zan, eta epailleak ontzat artu eban 5.000 pestako Sabinoren diru zigorra kentzea, ta egun orretan, arratsaldeko 2bietan askatu eban.

(1) Erri ta Gudako salaketak euki ebazan = tuvo dos procesos Civil y Militar. (2) Ezilkortasuna irabazi eban = que con el periódico BIZKAITARRA ganó la eternidad, o lo que es su igual “la inmortalidad”.

1.896ko urtean Urtarrillaren 26an, Sabinoren askatasunagaitik, jai bat antolatzea erabagi eben Txatxarramendi ugarteian, guarda zibillen zainpean, ta maia bereinkatzeko altzau ziranean, Guarda-zibil orreik, fusilamendu keiñuak egin eutsoezan mai inguruan egon ziranai. Erki jaurlari edo guda jaurlari orrek, Kanobasen agindua euki ebalako, zeozer esaten ba eben espainitarren aurka, danak bertan afusilatzeke.

1.896ko urtean Azaroaren 18an Sabino, epaille guztien baimenarekin askatu eben, espainitarrak salatuta euken, Baserritarra izparrangian “abolición y Reconquista” y “¡Ven-gan Escobas!”eko idaz lanakin, matxinatzeko alegiñak egin ebazalako zigorpetik.

1.896ko urtean Sabinok, “Aldian eroateko Egutegia” 48 orri eukan Takoa argitaratu eban.

Bai ta 1.896ko urte onetan Arana´tar anaiak, leenengo Euskal Argitaldariko Etxea irasi be⁽¹⁾: “Bizkaya´ren Edestija ta Izkera-Pizkundia”ren izen buruak euki zituzenak.

1.897ko urtean Urtarrillaren 17an B.B.B. barria aukeratu zan, eta Sabino ta Luis au-keratu ebazan lendakari eta lendakari orde lez.

1.897ko urtean Otsaillaren 20an, “Euskal ta Nafar Foruak, eta Karlisten Alderdia”, idaz orriak argitaratzen dabe Bizkaitar abertzaleak, karlistarekin euki ebazan ezberdineko eritziak argitzen. 27 orriak bete ebazanak. Karlista alderdiari ikaragarritzko zartada emonaz: Bizkaian 10.000 eta Gipuzkoan 5.000 ale eginda, Euskadik Ego aldean daukazan lau lurraldeetan bananduz.

1.897ko urtean Epailaren 31n, izen buru ta gai bardiñegaz argitaratzen dabe beste “Orri” bat, karlista eritzikoaren artean zabaltzeko. Baserritarren artean oiartzun aundiena euki ebana.

1.897ko urtean Loraillaren 2an, bigarren “Baserritarra” asteroko aldizkaria argitara-tzen dabe, Guiard´tar Teofilok bideratu ebena 3.000 izparrangiko kopuruan zabaldu zana. 18 ale ezberdiñ argitu ziran. Eta espainitarrak Dagonillan, ertzitu edo sarratu egin ebena.

Arantzadik diño: 1.897ko urtean Uztaillaren 11n eta 11n zenbakian, iru orri aldeko idaz-lan bat argitaratu ebanagaz, “Eraso Aldiaren Ondorioak”⁽²⁾, naikoa izan zala Ba-serritarra aldizkaria betikoratzeko⁽³⁾, ararte argitaratu ziran idaz-lan guztiak, politika-ren-esaerako arloa baiño, eskoz geiago izan zalako.

Eta emen, Koldobikak Aranzadi´tar Ingartziri idatzi eutson eskuritzan, esaten ebana: -“Aberri au atzerritarragaitik zapalduta dagoana”.

-“Aberri au, gaur egun ibili bear dan lez, zartada garbian izartu dagian”.

-“Bere lo-aldi, abereen antzeko lo-aldia dalako”⁽⁴⁾, “berezkoa dala ezin leike ezan, gai-soa baiño”.

Pizkunde egunean Euskalerrian, Fuerista Egunkaria, espainitarren tradizio zale izan zana-ri, izena aldatzea lortu eben, eta “Jaungoikua ta Lege Zarra”ren izena ipini eutsoen nabarmenduko iragarkiakaz⁽⁵⁾. Egunkari barri orrek, Kubako gerra dala-ta, eriotza bear zituenak, espainitar go-goak jazar-arazi⁽⁶⁾ ebelako. 20 egun bakarrik iraun eban, bere bide barrian ipini zanetik aurrera.

1.897ko urtean Dagonillaren 8an, Euskeldun Batzokiaren kideengaitik, elkarte eze-reztuten dabe, bost egun ariñago espainitar epailleak zarratzeko ipini eutsoezan ertzape-neko edo silluzko loturak, kendu ebezalako.

1.897ko urtean Dagonillaren 29an, Bizkatarra aldizkariaren asken zenbakia ager-tzen da, espainitar agintariak salatu ebelako, Sabinok idatzi eban “Catalanismo” eta Be-laustegigoitia´tar Federikok “Nuestras Ideas”, Federiko, espetxean sartuta.

(1) Euskal Argitaldariko Etxea irasi be, Bizkaya´ren Edestia ta Izkera-Pizkundiaren izenak euki zitu-zenak = crearon una editorial para el renacimiento de la lengua e historia de Bizkaia. (2) Erasos Aldiaren Ondorioak = efectos de la invasión. (3) Betikoratzeko = inmortalizar. (4) Aberearen lo-aldi = brutal. (5) Ipini eutsoen nabarmenduko iragarkiakaz = destacados caracteres. (6) Jazar-arazi = soliviantar.

1.897ko urtean Urrillaren 31n Gipuzkoako Donostin “Fuerista” aldizkaria argitaratu eban, ordurarte Gipuzkoako zintzoak edo integristen tresneri zanak, agerkai bat argituz izen buru lez, “Nuestra Bandera”, alegiñ guztiagaz, laguntza emon gure ebelako Euskal Aberkideetasunari “Jaun Goikua eta Lege Zarra”ren izenean.

1.897ko urtean Abenduaren 29an, Bizkaiko Buru Batzarrak = B.B.B., onartzen dau “El Fuerista”ren aberkideetasuna.

1.897ko urtean, “Umiaren lenengo aizkidia” 80 orri daukan liburutxo argitaratu eban.

1.898ko urtean Jorraillaren 24an, eta espainitarrek Amerikako Estatu Batueri guda aurkeztu eutselako, Arana ta Goiri tar anaiak Bilbon euki eban etxea arrikatu egiten dabe.

1.898ko urtean Loraillaren 8an De La Sota tar Ramonek bere lagunakaz, kontrolatuz eukan Euskalerra elkarte, “Euskalduna” aldizkari bidez, azterkatu edo gaitz-etsi egiten dabe, alkarteak espainitarren alde zabaldu eban diru batzeko arpidetzari, espainitarren gudako kalteak ordaintzeko. Ekintza onek, sotistak asarratu ebazan, eta Sabino ren taldera aldatu ziran.

1.898ko urtean Loraillaren 10ean, “El Fuerista” aldizkaria, askeneko alea argitaratu eban, ariñauko egunean Gipuzkoa, guda-legepean dagoela zabaldu egin ebelako.

1.898ko urtean Uztaillaren 28an, 1.895eko urtean Iraillaren 16an espainitarrek “Euskeldun Batzokijaren” buru zirenaren aurka, matxinatuak zirenaren salaketagaz euki ebezanak, ezereztu ebazan salaketa orreik eta aske itzi ebazan.

1.898ko urtean Iraillaren 11n Sabino, Bizkaiko probintziaren diputadu aukeratu eban Bilbaoko erri-aldetik, 4.545eko bozka edo autarkiekin. Auteskunde leialdeko igaro-aldi guztian, Sabinoren diputadu gaitasunak, Sotaren laguntasuna euki eban bere “Euskalduna” izparrangiagaz.

1.898ko urtean Azaroaren 24an Sabinok diputadu lez, egigai bat aurkeztu eban, Ego-Euskalerraren lau lurraldekez osotuta egongo zan “Eusko Lurraldearen Aolkularitza” deituko zana⁽¹⁾.

1.898ko urtean “Leenengo Egutegi-tako Bizkaitarra” 365eko orri eukazanak.

1.899ko urtean Jorraillaren 23an Sabino ta Luisek “Euskal Gune” edo alkarte irasi eban, “Euskal Batzokijak” euki eban abertzaletasunezko eritzi zarratua baiño, zabalagoa izan zedin, eta beren legeak ezarri ostan zabaldua, “Euskeldun Batzokija”, “Euskalerra ta Alkartasunaren leen kide zarrak, beste kide barriekaz batu ebazan, Arriaga tar Emilia-noren lendakaritzapean.

1.899ko urtean Jorraillaren 30ean Sabinok egin ebazan legediakaz zabaltzen da “Bermioko Batzokija”, Goitia tar Benanzioaren lendakaritzapean.

1.899ko urtean Loraillaren 14an, Erri-Udalaren auteskundeak ospatzen dira, Eusko Alderdi Jeltzalearen leen zinegotziak aukeratuta: Bilbotik 5, Bermiotik beste 5, beste batzuk Arteagan, eta Mundakan, Eusko Alherdi Jeltzalearen leenengo alkatea.

1.899ko urtean Bagillaren 4an, leen “Pais Vasco” eta gero “El Correo Vasco” deituko zan leenengo egunkaria agertzen da. 103 aldizkari argitaratu ebazanak.

Sabinok aldizkari oneri buruz esaten eban: “Abertzalea izando zala, belarria erakutsi barik baiña”.

Ez eban ezertxo be balio beragaz ipinitako ardua guztiak, espainitarren gobernuak orko urteko Iraillan ain zuzen, sarratu egiten dabelako. Bere ala eta 1.901eko urtean, beste aldizkari bat argitaratu eban “Euzkadi”ren izena euki ebena.

(1)Eusko Lurraldearen Aolkularitza = “Consejo Regional Vasco”.



1.899ko urtean Iraillaren 6an Arana ta Goiri'tar Koldobika, Paulina eta Sabinok "Sabin Etxea" erosi eben. Denbora gitzi barru zaldu egingo zana, Arana ta Goiri'tarrak Euskalerriko abertzaletasunarentzat bear ebazan diruakaz ordaintzeko.

1.899ko urtean Iraillaren 12an espainitarrak eta batez be, Le Bielleuse'tar Silbela leen ministrua bere gobernuagaz guztiz arduratuta, Udaleko auteskondeetan Bizkaiko euskal abertzaletasunak, atara ebazan emaitzarekin, Euskalerriko abertzaletasunaren aurka atara eban agindu gogor bat, agindu orregaz, Bilbaoko "Euskal Alkartea" ta, "Orfeón Euskaria", Bermion "Batzokija", Barakaldoko "Euskalduna Alkartea", "Correo Vasco" Iraillaren 15ean azkeneko zenbakia atara ebana, eta "Euskalduna" astekaria zarratu ebazalako.

Euren bidex Bizkaiak bear ebazan konstituziozko baikuntzak edo babesak, ezereztuten ebazanak.

1.900eko urtean Otsaillaren 2an Sabino, 25 urte eukezan Atxikallende'tar Nikole'kin ezkontzen da. Eta Lourdeseko eztai-bialdian Sabino 35 urte eukezala, gaizki gaisotu zan.

Adi-erazi merezitakoa da emen, berari egin eutsezan gaitz-etsiak⁽¹⁾, eta berak egin eban babesa Bizkaitar seme-xeegaitik⁽²⁾.

1.900eko urtean Jorraillaren 13an Arana ta Goiri'tar Luis, Iparraldera joan zan bizitzen, euskal zeregin guztiak, yeregin edo itzi ondoren. Eta urte onetan "Sabin Etxea" saldu ebenean, Sabino. Sukarrietara aldatu zan.

1.900eko urtearen Uztaillako azkenetan, Bizkaiko erki-jaurliak⁽³⁾ Iraillan, ertzitu edo sarratzeko agindu ebazan elkarte ta Batzokijak, ostera zabaltzeko baimena emon eban, "Euskalduna" astekaria be agertuz.

1.901eko urtean Urtarrillaren 10ean, B.B.B.ko zuzendaritza berriztu egiten da, Sabino ostera lendakari lez aukeratuta, eta leenengoz, Zabala'tar Anjel, lendakari orde lez.

1.901eko urtearen Epaillan, "Euzkadi" politikaren arloko barriakaz, edo ta kultur maillakoan, jakintza, arte eder, ta izki'ren gaiakaz osotzen zan, iru illabeteko aldizkotasunean agertuko zan albistaria, irasi zan.

Irakas-bide bat asmatu, eta Baserritarra'ren idaz-lan oberenak batu ta argitaratu be, ebazan. Lau aldizkari atara ebazan.

1.901eko urtean Urrillaren 27an, "La Patria"ren asteroko aldizkariaren leenengo zenbakia agertu zan. Sabino izan zan bere laguntzaillea, arik eta gaisotasunak itzi eutson arte.

Bertatik emongo dauz bere asken mezuak abertzaletasunari, bai ta bertatik, danak agurtu be.

Eta nai berak neka-ezin egimenagaz, Euskerea desagertu ditekenaren estutasuna sar-tzen jako, eta izkuntzagaz batera, enda-lez, erri-lez.

1.901eko urtean eta larritasun au agertzen jakonean, Arantzaditar Ingartzi'ri idazten dautson eskutitzan: "Olan asten naizenean burua erabiltzen, Euskerean, ta nai endaren arloan argi ikusten dot, gurea ba-joakula, asi dan gizaldi au amaitu orduko.

Aukera bakarra, diruan dago, eta au ez da aurkitzen.

Sabinoren buruz, eskutitz onetan ikusten dogu: Ez zala ameslari bat. Ondo baiño obeto ezagutzen ebazalako, erri ezberdiñak euki ebazan il-biziko arazo larriak, bai ta bere erriaren izkuntzazko etorkisunaren bizitza be.

(1) Gaitz-etsiak = críticas, censuras. (2) Seme-xeegaitik = pueblo llano. (3) Bizkaiko erki-jaurliaria = gobernador civil de Bizkaia

*Orregaitik Sabinok, etorkisunagaitik arduratuta, Ego aldeko lau lurraldearen idazke-
ra bateratu gura dauz.*

*1.901eko urtearen Azillan, euskal gazteentzako "Eusko Gaztedi" alkartea sortu zan,
gero eta bere bidetik, Bilbaoko "Juventud Vasca"ko alkartea sortuko ebena.*

*1.901eko urtean Azillaren 10ean, Udalaren auteskundeak ospatzen dira ostera, Bilbon
Eusko Alberdi Jeltzaleko alderditik 6 zinegotzi geiago atarata, ta eureka 11raño eldu zi-
ranak. Bermion iru geiago atara ebazan, eurokaz 8 zinegotzi izanda.*

*1.901-1.903ko urte bitartean, "Aberri"ko astekaria, 88 ale atara zituzen, eta 1.903ko
urtean, 6 zenbaki.*

*1.902ko urtean Loraillaren 2an, espainitar aberkidearen aldetik, urtero, Bilbori egin
eutsoen azkeneko ingurutasunaren askatasuna ospatzen zan agerkundetik⁽¹⁾, gudari mor-
do bat urten eta "Centro Vasco"n sartu ziranean, arrapau eben guztia apurtu eban.*

*1.902ko urtean Loraillaren 25ean Sabinok, idatz mezu bat bialdu eutson bere lagun
eta kide Grijalba tar Pedro ri, urrutizkin bidez, Estatu Batuetako lendakari izan zan
Rooselbet Theodoro ri zoriontasuneko mezu ori bialdu dagion, Kubako askatasunaren alde
emon eban laguntzagaitik. Urrutizkiñeko idazlarien gaillutik⁽²⁾ ez zan bialdu ezerezetako
mezurik, eta urrenge egunean Sabino salatu eben.*

*1.902ko urtean Loraillaren 30ean, eta 25eko egunean Sabinok Urrutizkiñeko mezu
orregaitik euki eban salaketaren bidez, Larrinagako espetxean sartu eben egun onetan.
Azaroaren 8an, askatu arte.*

*1.902ko urtean Bagillaren 18an erki-jaurliariak Bilbon, Eusko Alberdi Jeltzalearen
alde egon ziran Udaleko zinegotziak kendu ebazan uren lekutik, amairu egun ariñago, on
etorriko mezua bialdu eutzelako, Argentinako izena eukan Injiman⁽³⁾ itsasontziko koman-
dante Faustino⁽⁴⁾ agintariai, Bilbora etorri zalako.*

*1.902ko urtean Bagillaren 22an, izenpe barik agertu zan "Grave y transcendental"
idaz lana, "La Patria" aldizkarian, Sabinok idatzi eban.*

*Bertan esanda, zelako eten bageko eraso aldi gogorak, egiten eutsoezan espainitar go-
bernuak, euskal abertzaletasunari, eta batez be, berak oraingoan irasi gure eban, askata-
sunbageko Alberdi barriari. Askenez, bertan itzi eban montio barri orren asmoari.*

*1.902ko urtean Urrillaren 14an espainitar gobernuko ministruren aolkularitzak, ja-
ramonik ez egitea erabagi eben, euren espainiako lendakari Sagasta ta Praxedes tar Ma-
teori, 9.000 izenpeakaz euskaldunak, aurkeztu eutsoen eskariari, Sabino askatu dagian
eskatzen ebena, "Addison"⁽⁵⁾ gaitzaldi larriagaz gaiso egon zalako.*

*1.902ko urtean Azillaren 8an amaitu jakozan Sabinori, salaketatik eukezan zigorrak,
Amerikako Estatu Batuaren lendakariari bialdutako zorioneko mezua Kubaren askatasu-
nari lagundu eutsolako, gutziz aske urten da.*

*Espainitar Diputaduen lendakaria zan Moret tar Sejismundok esan da: "Será más gallardo
que muera en la carcel; además la tranquilidad de España, bien vale la vida de un hombre".*

*1.902ko urtean Azillaren 20an Sabino bada ezbadan, eta gaitzari aurea artzeko, fiskalak
epaillari egin eutson ostera, Sabino atzera epaitzeko, eta onek zer zan jakin orduko, Luzaidetik
muga aldatu eban, bere lagun miña Oiartzun tar Prantzizko rekin, Frantzian kokatzeko.*

(1) Agerkundetik = de la manifestación. (2) Urrutizkiñiko gallua = telégrafo. (3) Injiman = buque grande llamado Argentina. (4) 1.811-1.888urte artean bizi zana. (5) Addison éko gaisoa = enfermedad que lleva el nombre del médico Addison Thomas descubridor de esa enfermedad, concierne al estudio de la tuberculosis de las cápsulas suprarrenales, que se caracteriza, por un color bronceado de la piel.



Sabino, erria desagertzeko arriskuan egoalako, gogoetari agertzen da, ta espainitartu gure dau berak irasitako Eusko Alberdi Jeltzalea, ia orko bidetik al bazan Euskerea eta erriaren indarra sendotzea. Nai ta berak espainitarrakaz, ezer jakin gura ez arren.

Asmo orren gogapena izkutuan eukinaz, alderdikideai berak ainbat bider eskatuta, euren uste-osoan, berari emon arte.

Zoritxarrez, oso gitxi baiño ez eutsoen ulertzen. Eta ez eban eskatzen besterik, gaur garana baiño, nai ta espainitarren konstituzioa onartu ez arren.

Kanobasek, arrazoia euki eban, Sabinok urriñ ikusten ebalan esanaz.

Orduko denboratan Sabinok ikusten ebalako nire ustez, espataren arrazoia amaitu bear zala noz edo noz. Begitu or bestela, Frankok indarraren askeneko alegiñak egin eta gero, gaur argi geratzen dana, "arrazoiaren egiak, egi bidetik arrazoitu egin bear dirala", Goiko-Jaungoikuak bereztutako legeak, alan eskatzen dabelako.

1.902ko urtean Abenduaren 1ean, "Irrintzi" izparagiaren agerkeria sortzen da Buenos Airesen, Ameriketara, leenengo Euskal izparrangi abertzalea izango zana.

1.903ko urtearen Urtarrillan Sabino, oso txarto egoalako berak eukan gaisoagaz, ostera Sukarrietara itzultzen da.

1.903ko urtean Otsaillaren 13an, Euskao Alberdi Jeltzaleak Urkijotar Jase Mariagaz, erabagi batera eltzen da, urrengo auteskundeetan Urkijori bultzatzeko, gorteetako diputadua izan zedin.

1.903ko urtearen Epaillan Sabinori, Bizkaitar diputaduaren agintaritzan amaitzen jako, eta Txalbod´tar Pedro aukeratu eben Bilbaoko lurraldetik, Zabala´tar Anjel, Gotzon edo Aingeruk, Gernikako lurraldeagaitik urten da.

1.903ko urtearen Jorraitillan "Libe" eres-antzerkiko liburutxoan argitaratzen dau.

1.903ko urtean Jorraitillaren 26an, Urkijo´tar Jose Mari, Bilbotik urten eban diputadu Euskal Jeltzaleko Alderdiaren laguntzarekin.

1.903ko urtean Dagonillaren 14an, Ondarrun irasten da, abertzaletasunezko "Euskal Lagun Arteko" taldea.

1.903ko urtean Iraillaren 30ean Sabinok, oso gaisorik egoalako, Euskal Alderdiaren Lendakaritza izten dau, eta Zabala´tar Anjel aukeratzen dabe lendakari lez.

1.903ko urtean Azillaren 8an Eusko Alberdi Jeltzalekoak, 5 zinegotzi ataraten dabe Bilbaoko lurraldetik.

1.903ko urtean Azaroaren 25ean, Sukarrietan goizeko seirak zirala, Arana ta Goiri´tar Sabino il zan 38 urte eukazala.

Sabino ilda gero, beren lanak Bizkaiko diputadu bidetik, eta bai olerkien bidetik, ainbat lan argitaratu ziran, "Sabino de Arana Goiri´ren Osotasunezko lanetan"⁽¹⁾.

2. 10. (21) *Arana ta Goiri´tar Sabinoren buruz, aipamen batzuk.*

Euskalerria, oso zaarra da, gaztea be, bere beti berriko demokraziaren askatasunezko etorkizunean. Baiña burutapen edo gogamen⁽²⁾ guztien antzera, nai edestiko etorkizunean guk gaur agertzeko, nai gure garaiko denboraren ondorengoarentzat, gure betiko lege zaarrak Goiko Jaungoikuari begira bete bear doguz, daukagun berezko edo milla urte askoren obekuntzan lortutako baita Euskal Nortasun lez, argi ta garbi agertu zedin, Munduko beste Nortasunen aurrean.

(1) "Sabino de Arana Goiri" osotasunezko lanetan = "Sabino de Arana Goiri" "Obras Completas".

(2) Burutapen edo gogamen = intuición, objeto, juicio, concepto, idea.

Erri zaarra izateagaitik, oitura edo ekanduaren arloetako neurrian, oso zuur edo zentzun aundiagaz ibili bear izan eben gure arbasoak, adibidez: izaeraren itxuran; Nortasunaren izkuntzan, beste Nortasunen aurrean izateko daukien eragipenezko indarra erakusteko; bai indarrean be, bestien erasoetatik babesteko; eta Jaungoikuaren billa, errigizartearen berezko ardurak ondo beteaz.

Guazan begitzen baiña, edesti aldetik zer gertatu jakun, ain makal agertzeko, askeneko denboraldi oneitan.

Omo Sapiens Afrikatik zabaldu zanetik, batzuk Eguzkiko Ekialderantza zabaldu ziran eta, Eufrates ta Tigris'eko ibai bitartean kokatu ziran. Beste batzuk alderantziz, Europako Mendebalaren izoztutako lurraldeetara.

Guk, Europako Mendebalean lortu gendun daukagun Euskal Nortasuna milla urte askoren denboratan, Eskoziatik Kadizeraíño, eta Atlant Itsasotik Alemaniaren lurralde-taraíño zabalduz.

On Joxe Miel Barandiaranek esaten eban, K.a.30.000-20.000 urte, eurak sortuta-ko euskerea, izkuntzaren izen-buru lez artuta, Nortasundu ziralako Euskaldunak, orduan gaurko giza lez agertuz, euren batzar demokratikoaren bidez.

Iñork, ez zan etorri geiago, Europako Mendebal onetara, eukan giroa, gogorra izan zalako, arik eta K.a. 2.000 urte, Ekialdetik Sargonidas menperatzailezko jaurgo zaleak, bizitza larritasunean ipinita, Keltiarrak alderrai, Alemaniako lurraldera etorri arte.

Keltiarrak, ez ziran zabaltzen asi, K.a. 800 urte arte, Franko keltiar leñuak Normandipean kokatuz, eta zabaldu ziran neurrian, onartuak izan ziran, eurak ekarri ebelako burdiña, nekazariak goldatzeko bear eben tresneria, eta bai ta gurpil edo burdin-txirrika, guk baiño 3.000 urte aurreratuta egon ziralako.

Denbora ontararte Europako Mendebal onetan, Eskoziatik Kadizeraíño, eta Atlant Itsasotik Alemaniaraíño, ez ziran egon, Euskaldunak baiño beste nortasunezko leiñurik.

Arik eta K.a. 753ko urtearen ariñantik, itsasoari begira, Italian kokatuta egon ziran Etruskoak, Lur-Arteko Itxasotatik zabaltzen ebazan merkantillezko Uriak babesteko, euren gudalozteak antolatu arte, K.a. 500 urte baiña, gudalozte orreik euren erromatar kaisartzaren asmoakin asi ziran, eta etrusko eurak be, menperatu ebazan.

Europa osoa menperatu eben erromatarrak, eta nai ta I Konstantinogaz, erromatar kaisertza zabalkera aundienean egon, maldabera aundienean ikusi eban I Konstantinok erroma ori, eta Kristauen I Silvestre Aita Santu eta Kordobako Osio gotzaiñagaz alkartuz, Mundu osoa, katolikotasun aberritasunean batzangotzea erabagi eben, ekintza ori aurrera eroateko asmatu ebazan lege guztiak, danak ziñeskintzatuzko⁽¹⁾ aginduagaz ezarrita.

K.o. 409ko urtean, Godoak, menperatu eben erromatarren kaisertza, eta Leovigildo arrianoen erlijioakoak, bere seme Ermenegildo katolikua il ondoren, berak esan eutson beste seme Rekaeredori, katolikotasuna besarkatu egiela, ta K.o. 587ko urtean arrianoen erlijioa bastartu ondoren eta katolikotasuna besarkatuz, Toledoko Uria, godoen kaisar toki lez artuta, 589ko IIIIn eleiz batzarraren urtetik asi ziran eleiz katolikoan kaisarrezko batzarretan, katolikotasunezko erlijioa, itsutasunen sinismenera bideratu ebena gaurko denboretaraíño.

(1) Danak Ziñeskintzatuzko aginduaz ezarrita = todos estigmatizados o obligados con o por mandato o imperativo dogmático.

711ko urtean agertu ziran mauritarrak, eta asmo guzti orreik, pikutara joan ziran 1.492ko urterarte. Bitartean, katolikotasunezko erlijaren gora beragaitik, euskal lurra naastuten asita, katoliko orreine⁽¹⁾ legea, danean ezarri gura ebelako.

Eta katolikotasunaren aberkuntzazko faxizta orren zabalkeraren neurritz, asi giñan Euskaldunak, baitatuz euki gendun demokrazi eder eta sendoagaz, "Nortasunezko II Larrian".

Il-bizi orretan gagozala, Frantzian, 1.879ko urtearen iraultza sortu zan, errigizarteak ezin ebelako itsutasunezko lege orreikaz, ez atzera ez aurrera egin, eta legeak bereztasunezko lekura eroan barik, Europa eta Mundu guztiko erriak nastekatu ebazan "Laterri" barriak⁽²⁾ sortuz, eta gogortuta euren sasi-jainkoaren izenean, menpetasunezko giza arlo orreik, gure erria il zori-zorian geratu arte.

Il bizi orreitan gagozela, euskal seme guztien artean, bat agertu jakun indartsu, biotz guztiagaz esaten ebena: "Ez da egia ori", "Euskadi dalako Euskaldunen Aberria".

Eta Euskaldunen artean, dan pare-bageko seme ta gizon onegaz, mintzatuko gara orain emen:

Leen: Abertzale bezela.

Bigarren: Kristau lez.

Iruharren: Sabino ren Nortasuna ta Nafarroa.

Laugarren: Erri gizon bezela, Euskaldun legez.

Bostgarren: Erri gizon bezela.

2. 11. (22) Sabino, Abertzale bezela.

Emen abertzaletasuna aipatzen dot, karlistasunezko izena alboratuz, gaur egunean oraindiño dagozan zalantzak, andiak diralako estabaida onen gora beran, batzuk orain be, argitu barik daukielako zer dan karlistea, edo ta Euskal abertzale izatea.

Zalantza orreik alde batetik, jakintzaren utsun aundiak diralako. Eta bestetik, gure etsaiak uts orren jakiñean, jakinduriz⁽³⁾, eten barik ziri posoitsuak sartzan dozkuelako, gure arteko zalantzaren suak, iraun egin dagiezan, ezereen gel-erazle barik.

Urten bearra daukagu orko zillotik, len bait len. Eta bide ori argitzeko, zer obe jakiñtea baiño: Fueristak zergaitik garan, eta karlistakin zergaitik izan giñan. Orregaitik, noiz arte Furistak, eta zenbat denboran karlistak.

Foruen ekandua⁽⁴⁾, bakarrik esan gura dabena: "Erri baten etorkizunetik, azturan edo ta jendekuntz lez, datoza Demokrazizko Zor-Ordezkaritzaren Oitura Zaarrak, bere Nortasunaren ardurakoak direla, bera dalako bere jendekuntzaren arduradun bakarra, edo Jabea.

Orregaitik, "Erria Bera dala Tituludun, edo Foru izen buru orren esanguraren jabea. Bere Ekanduzko Zor-Ordezkaritzaren ardurak diralako.

Eta Nortasunaren eskubideak ikusita, erreza dalako jakitea, zergaitik ez garan, ez espainitarrik, ez espainitar karlistarik.

(1) Katoliko orreine legea = orduko denboratan eta 325ean Nizearen eleiz Batzarretik, dan guztiak geratu giñan katolikotasunezko aberkideitasunaren menpean, nai ta euskaldunak gure Lege Zaarrakaz aurrera egin danoren aurka, Euskaldunaren askatasunezko demokrazia euki dabelako Europako Mendebal onetan bakarrik aurkari, gaurko lurralde txikerrean kokatu arte. Eta ortze gagoz gaur: "azagarria, beti danik ollotoki barruan sartuta daukagula", ez dogulako gure artean Goiko Jainkoaren gurketatik iñor, nai ta "katolikotasunaren aberkidekidetasunezko tzezor ori, urrezkoa izan arren. (2) Laterri barriak = estados de nuevo cuño, carentes de toda ética natural o concerniente a ésta naturalización. (3) Jakinduriz = sabiamente. (4) Foruen ekandua = moral, costumbre o conciencia de un pueblo a regirse a si mismo, como responsabilidad de sus propios actos en su crecimiento cultural.

1.700eko urtean *V. Felipe*’k, espainitarren erregetza borroka bidez artu ebenetik aurrera, gureak ia eginda egon ziran erri lez, ez gendulako jakin: “euren gudalozteko indarrak nola menperatu”, eta “euren zapaltzailezko arau legeak gure aurka, zelan alboratu”.

Nai ta gure erriak borrokaren bidez batzuetan, eta jakituriz besteetan, alegiñ asko egin arren, ikuspen baltzak argitzen ziran 1.823ko urtearen eskeroztik.

1.830eko urtean eta *VII*n Fernando il zorian geratu zanetik, moztu eutsoezan bere anai *Vn* Karlos Maria Isidro’ri errege izateko eukazan eskubideak, bere alaba *II*n Isabeleri zabalduta bidea, erregiña izateko.

1.832ko urtean *Vn* Karlos Maria Isidro, *VII*n Fernandoren anaiak, bakesko bide guztiak amaituta, guda aurkeztu eutson bere koiñata ta bere loba *II*n Isabel’eri.

Eta guk, gure Foru Legearen larritasuna ikusi ondoren, laguntza eskatu geuntson *Vn* Karlos Maria Isidro, *VII*n Fernandoren espainitar erregeen anaiari, euren Laterritutako espainitar jaurgo ta lege barrien eritziekin, gure Foru Legeak zapaldu egiten ebazalako, euren morroiak izateko alegiñakin.

Or amaitzen ziran gure karlisten izateak, karlistak eta Isabelinoak, espainitarrak izan zirelako.

Gu Euskaldunak alderantziz, ezer ikusirik ez daukagunak katoliko aberkide batzango zaleekin, edo espainitar fazizta menperatzaileekin.

2. 12. (23). Oar txiki bat emen.

325eko urtean Nizeako Batzarrean Kristauak, ziñezkintzatutako katolikotasunen aberkuntzara aldatu ziranean, Europaren ta Mundu osoaren goitik berako erlijio orretan batzangotzeko, 1.789ko urteraiño edo Frantziaren iraultzaraiño eldu zan, zentzunezko jaurkintzaren ezin geiagoan, Europa osoko gizartearen jaurkintzazko burdi ori ezinean, zurruburu⁽¹⁾ edo ta karraxkako⁽²⁾ zaratarekin asi zalako.

Eta ainbeste borroka ta il ondoren, lengo eritzi ori aurrera eroateko, kaisarezko zapaltzailetasun legeekin aurrera egin eben, Europa ta Mundu osoa lurralde andietan laterrituta, Jaungoiko Irasleak gai oneri ipini eutsoezan Lege guztiaren aurka, eta espainitarrak gudaloztearen izkilluak ezereen lotsa edo begirun barik ibilita.

1.693ko onen erdi-mendeko urtetan ibili dira espata ta gudaloztearen indar guztiagaz, Sasi-jainkoaren ordezeko lez izan gurean, eta gaur, baragarri lez agertu arren, bardiñ gure dabe aurrera egin.

Zer egiteko eta noiz arte?

Beti ibili dira kaizar katoliko aberkide aueak, menperatzailetasunezko eritzi ta tresneriekin gaur arte, Jaungoikuaren bereztasunezko bideak zeintzuk diran, inork konturatu edo asmatu ez egiezan.

Orregaitik egiten dot itaun au Sabinoren buruz: “Konturatuko, edo jakingo eban gure Sabino’k, katolikotasunaren aberkidetzazko gora beran zeozer, gu Euskal Aberritarrak izanda, “Eusko Alderdi Jeltzalea” espainitarren erakunde artean, ain sinis bete betean, beste Alberdi bat bezala irasteko ?.

Nizean, Mundu au batzangotuta bideratzeko artu zan Katolikotasunean aberkidetzeko erabagia, Erroma-Godo’tar kaisertzazko erakundearen, ainbeste gogortasunezkoa izan zan, eta

(1) Zurruburu = ruido confuso. (2) Karraxka’ko = ruido estridente.



®

Frantzian porrot egin zanetik eta gero, Europa ta Mundua Laterritzeko artu zan erabagia, oso gogorra ta guzur aundikoa izan bear zan, erri guztiak, gudaloztearen indarrakaz, beartu ziralako.

Argi dago, asieratik indarragaz alminduta egon ziranak, bizitz au euren eritzira bideratzeko, Frantziko iraultzaren ostetik be, bardin bardiñ egin ebela, eta kostako jakula, bere zetzu-nezko bidera eroaten, menperatzailetasuneko indarrean zaldikatutako oituran dagoezalako.

Bizitzeko daukagun Mundu onen jaurkintzazko antolamendua, lapurkeriaren eritzizkoa bada, edo ta Jaungoikuak ipinitako legearen aurkakoa izanda baiña, guzur edo okerezko antolaren ekintzagaitik, guztiz ankaz gora daukagu, ia alango denbora baten, Berak, naikoa dala esan arte, guzur artean igeri gabizelako, ta urbizi edo ur lasterren aurka gaiñera.

Jakintsu orreik, nik uste dot konturatuko direla, edo ta kontuan jausi bearko leukiela, "bereztasuneko legearen aurka egiteak, bere zigorra daukala", argi ikusten dalako, Mundu onetan betirako, ez dala ezer.

Zalantza aundiak daukadazelako, bere lekura eldu baiño arinago, itaun au egiten dot.

Sabinoren bizitza Euskalerriko edestiaren jarraigaz edo lojikagaz batera erakusteko: Sabino lez, edo alangoko gizonak, derriorean jakin bear ebela, katolikotasunaren aberkidetasuneko guzur aundi au zelangoa zan, eta ez ba ebela argitzen, kalteak, aundiagoak izango zirelako, zala.

XVIII gizaldetan, eurak izan diralako, Mundu onen kontrola eroan egin dabenak.

Bai ta orain be, Munduko indar aundiak eukin arren, ekarten dabexan asmo zar eta betiko guzurak, urriñetik ikusten doguz gero ta argiago, nundik nora, eta zelan betiko zapaltzailezko asmoakin etorten dirala.

2. 13. (24). *Sabino'ren Abertzaletasunari ostera ebatuz.*

1.808ko urtean Napoleonen aginduko asken denborak zirala, aberri barri bateko espainitar zaleak, eleiz katolikoan agindu edo aolku bidetik, Baionan egin eben gorteko batzarrean asi ziran asmatzen, jaurpide barri bat egin bear zala, Europa osoa Laterrizko aberritasunaren jaurkintzatan biurtzeko, bai ta Erdiugarte onentzat, Portugal izan ezik.

1.810eko urtean Iraillaren 24an, gobernuaren orokorrezko batzarren deia zabaldu zan, Leongo⁽¹⁾ ugaratean ospatuko zan batzarrerako. Eta askatasuneko⁽²⁾ batzar político orreik 1.810eko Abenduaren ospatuz, erregearen aldeko diputadu oneik aukeratu ziran: Gutierrez de Huerta, Pérez, Valiente, Cañedo, Rodríguez de la Bárcena, Rich, Jáuregui, Mendiola. Eta liberalaren aldetik: Muñoz Torrero, Argüelles, Espiga y Gadea, Oliveros, Perez de Castro, y Fernandez de Leiba. Bai ta, alderdi bageko Morales diputadua.

1.811ko urtean Dagonillaren 18an, orokorrezko batzarretan egin ziran legeak, irakurri ebezan aukeratuko diputadu oneik, jaurgo barri orren leenengo zati biak, eta laugarren ta askeneko zatia, Abenduaren 26an irakurrita.

1.811ko urtean Dagonillaren 25ean asi ziran lege barri orrein onartzeko burrukaldi edo eztabaidak, 1.812ko urtean Urtarrillaren 23an amaituta konstituzio edo jaurgo barri orren legeak, Euskal-Katalan eta Galiziako aberrien gainetik edo eurak kontuan artu bari egin ziranak, danak naastuz zorro baten sartzeko.

1.812ko urtean Epaillaren 8an menperatzailetasuneko jaurgo barri orren legeak, diputaduagaitik izenpetu ta argitaratzeko, VIIen Fernando erregeen agindu, eritzi ta borondatearen aurka, itz-aurre onekaz ezagutzara emon eben:

(1) Leon'go Ugarte = Erdiugarte onen Ego-Mendebalean dagozan Ugarte bi dira: Kadiz eta Fernando Santuarena, areazko lurrekin bat eginda dagozenak, eta Pietro actuaren itsas-besangarekin zubi bi daukazela. (2) Askatasuneko batzarrak = nuevas juntas por la independencia de los españoles, del acoso napoleónico francés.

“Goiko Jaungoikuaren esker onagaitik VIIIn Don Fernando errege, eta espainitar erregearen konstituzio onegaz, erregearen zaindaria urrun-aldi edo espetxean egoteagaitik, Orokorrezko eta oiz besteko gorteak izendatu ondoren, ikusi ta ulertzen dozuen guztiak jakin bear dozue: “.....”.

1.812ko urtean Epailaren 18an diputaduak izenpetu, eta 1.812ko urtean Epailaren 19an diputadu ta erregearen ordezkoko orreik, ziñez itz emon eutsoen jaurgo edo konstituzio barri orreri.

1.814ko urtean VIIIn Fernandok ezereztu ebena.

1.820ko urtean VIIIn Fernando berak, ostera onartu bear izan ebena.

1.823ko urtean VIIIn Fernando erregeen osotasunezko agintea ostera berrezkuratuz konstituziori ostera ezereztu ebena.

1.823ko urte orretan VIIIn Fernandok, konstituziori ostera ziñatzera beartu eutsoenean, amaituta geratuko jakozan beste alegiñik egitea.

Eta 1.836-1.837ko urte bitartean, ostera azten dira bitarteko eztabaidakin, arik eta 1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergaran, azpikerizko besarkada zikin baten bidez, konstituzio barri ori legezten eben, Euskalerrri, Kataluña ta Galiziarentzat au esaten ebena: “Se confirman los fueros de las provincias vaskongadas y Navarra”. Atzean eta urren, bezte geigarri bat ipiniatz: “Sin perjuicio constitucional de la monarquía”.

Lege onekaz, debekatu egiten euskulako, gure erriak nortasun aldetik euki ebazan eskubide osoak, gure Jaun Zuzentzailleak aukeratu edo autatzeko.

1.839ko urtean Iraillaren 14an Bergarako besarkada zikin bategaz amaitu zana, Vn Karlos Frantzira erbezteratu zanean.

1.872-1.876ko urte bitartean egin zan bigarren karlistada, eta galdu zanetik karlisten bigarren aukera au, euskaldunak ez gendun zergaitik eroan karlisten izenik, eta gitziago arrazoirik.

“Sabinok, 11 urte euki ebazan denbora onetan”.

Zori txarrez baiña, ainbat iraun eben karlisten eta erreketearen izenezko bidetik, eta batzuk Palanjista biurturik, bezteak or dabiz Madrilletik aginduta, zer diran jakin barik.

Jaurgo edo konstituzio barri orren bidez, espainitarrak edo ta espainitar karlistak, erregetzako erakundea euki eben alosokerizko erakunde lez, nai gero Vn Karlos eta VIIIn Karlos'ek porrot egin da gero, konstituzionalista barri orreik, alosokerizko agintaritzza kenduz, erregetza, biltzarreko edo jaurgo barrien errege biurtu.

Orregaitik zentzuzko arloetan, iñondik begituta be, ez daukan zuzentasunezko arrazoirik, konstituziozko txebera edo sare-arte au ipini euskuen, gizaren eskubide guztien gainetik: “La monarkia comprende la suprema soberania política, y por ello representa la unidad constitutiva de España. Pues la monarquía personifica la unidad nacional”

Noren Aberria ?.

Neurea ez, ni Euskalduna nazelako.

Espainitar barri onentzat, sagarrak, madariak, mallukiak, izkuntza guztiak eta abar, bardiñak ote dira ?.

Bai?.

Euren guzurrezko bideetan sartzen gaitue sasijainko asmamen baragarri orreikaz, eta ez-jakiñeko bide orretatik agertzen dira: “illuntasunezko ez-jakiñak, alkar ikusi eziña, bo-rroka latzak eta abar.

Orain, Sabino'ren abertzaletasuna ezagutzeko, 1883ko urtera joan bear dogu.



Amak, aitaren aginduak, edo bien arteko aleginak, seme/alabeen ikasketak maila nagusian beteteko; nai, aita urte bat arinago il zan-arren, Bartzelonara eroan zutuan Koldobika eta Sabino.

Bartzelonan ikasten dabiltzala eta 1888'urterarte, Koldobikak sartu eutson Sabinori abertzaleatasunaren indarra. Sabinok orrez gain, baten baino geiagotan, Euskalerriko leenengo abertzalea Koldobika zala esaten eban; naita onek, beti esan: "aintza oro Sabin'entzat".

Koldobika, Sabino baino urte bi zarragoa izan zan, eta onek sinist-arazi eutson Sabino'ri: Bizkaia ta Euskalerrriak esku-bide osoa euki ebala politika arloan, euskal erriaren jabetasun osoa eskatzeko; 1839'an gerla osteko legezapaltzailleak esaten ebana, gu "espainiako errikoak garela" ezereztuaz.

Sabinok, oldozmen ori gogoan erabilita, sakon aztertuaz, eta Euskalerrriko edestia, bai esku-bideak be ondo jakiñaz zñ egiten dau: "bere bizitz osoa emongo dauela, Euskalerrriaren eskubideak, espainitarren menpetik bir-eskuratu arte".

Eta JAUNGOIKUA'ri: bera izan zan osoa eta euki eben guztia ezkaini eutson. "Eun bider ipiniko neban samia marrauza'ren⁽¹⁾ azpian Euskalerrriagaitik, nire izeneko oroime-naren naia erakutsi bage", esanda.

Jakiteko, pare-gabeko abertzale baten buruko mina noraino eltzen zan, artu daigun espetxetik bigaldutako eskutitz au Arantzadi'tar Ingartzi-ri 1895'an Iraillako 14an.

Neure biotzeko gogaidea (correligionario): Ispaniako nekaitza gogorragotzen dabil. Kanobas konturatu da, eta Robledo'tar Romerok, lagundu ta kiñatu egiten dau.

Gobernariagaz, bai espainitarrak daukan Euskalerrrian fiskalekin be, itz egin dabe, eta esan eutsie: bearrezkoa dala nai ta nai ez BIZKAITAR aldizkaria eta EUSKALDUN BATZOKIA ezereztutea, kostala ala kostala, eta eurak eskuartean daukien indar guztiekin, neu deuseztutea!

BIZKAITARRA'ren 32'ko zenbakia salatuta; 12'an BATZOKIA sarratuta; eta 13'an batzordea giltzapean baitu ondoren: baztartuta dagoz, ni nauen antzera emen sartu nintzanetik. Danari banan bana, aitorpena eskatu dauzkue. Amar gara.

Uztailaren 21eko zenbakien orrez gain, gaur birritan auzipetu egin nabe, oingo, bostgarrenengo zenbakiagaitik: leenengo, guda-agintariak, eta gero, gizarteko legedun bidez.

Gudako agintarien aldetik, oso illun ikusten dot. Ez daukat ardurarik, Jainkoa'ren ardurapean itxiten dot ori. Gizarteko-leggedunen aldetik, esan leike, betirako gura dabela ni amen egotea, 5.000 pezeta eskatzen dauztielako askatasunagaitik, eta 2.000 pezeta epaiketaren erabakiagaitik; nik, ez daukat diru ori.

Orañ arte, ez dautset esan berorri ezer, zein dan gaurko gauza.

Jakin-arazian berori ipintea da, jarraipenean doana: Guda-epaileen aurrean aitortu egin dot, BASO-JAUN'en izena ezin dotela agert-arazi; Donostikoa dala eta bertan bizi dala⁽²⁾; laguntzailea dala eta orregaitik ez dagoala arpidedunen zerrendan; eta onei, nire anaiak bigaltzen dautsiela aldizkaria, arduraduna bera dalako; eta laguntzaileari neuk bigaltzen dautzietela utsaren ordean, euren zerrendarik euki-gabe. Koldobikak bardin aitortu dau, erakutsiaz nire uztez, arpidedun zerrenda.

Adi egon, ze ... : idatz lanen egillea aurkitzen dabiltz, lumatik zakurrak, eizaren astarnak artu egiten dauan antzera; eta loditu egingo direz aurkitzen ba dabe, katamotzak egiten dauan beren arrapetakoakin'en antzera.

Esan leike, emengo Koronelak, BIZKAITARRAren ale bat artu dauela, ta kilikagarri,

(1) Marrauza'ren azpian = debajo de la espada, machete, navajote, etc. (2) Ugerrezko espatien esaera ez daiten Espainiako gudalozte osoari ezarri, ortik egurazten dabiltz gudari-buru batzueri izan ezik.

bai irangarri izenbageko orri bat, guda-jaurlariak. Geure etsai gixatxar, baten batek bigaldu eutsoz.

10ean gabaz guda buruak, gure elkarte oldartzeko asmoa euki eben. Guda jaurlariak, Bedian egonda bera, gabeko ordu bietan etorri bear zeuen, urrut-idazkintzatik⁽¹⁾ deituta. Orrek arindu eban elkartearen itxitura⁽²⁾.

Baleiteke ona deitzea, orko arpidedun guztiari, euren galdeketak egiteko, egarritz dagozelako, ia nor dan BASO-JAUN ori.

Jainkoagaitik ez ditezela agertu, emengo guda agintariak oso asarratuta dagozelako; eta goiko aginduak oso gogorrak daukiezelako.

Emen, ez BIZKAITARRA, ez EUSKALDUN BATZOKIJA be, ez dogu arriskuan sartu.

Eriotza emoten badautsie be, Espainolaren, legeen gainetik eta onen gogoen aurka izango da.

Euren asarre aldiak neure ganean botako dabez. Baina uste dot Jainkoa neugaz egongo dala, naikoa eta soberan daukat Beragaz.

Irakurri eiozu eskutitz au Zabalo´ri, eta aolkua emoten dautsut, berarekin batera egin dizuezan itunketak, ia ze egikerak bear diran, Espainol-agintariak, aztarnak gal-erazteko⁽³⁾.

Batera esan eiozu bere eskutitza artu nabela, eta bera irakurtea gozagarria izan dala neurentzat.

Arineketan idazten dot au. Baztartuta nauan lez, ez da izango erreza eskutitz au bigaltzea.

AGUR!! SABIN

2. 14. (25). Oar txiki bat emen.

Lengo denbora guztiak eta gaurkoak ikusten dogun lez, bardin antzekoak dira, gogortasunean izan ezik. Guzurrezko tresneriak erinduz, dana dalako, euskaldunak eta Mundu onek daukazan erri ezberdiñeko nortasunari, bear dauazan jabetasunak ez emotea. Eurak azpikeriz, ostuteko dabiltzan guzurrezko maltzur Joko orreik ostondu ta Munduko giza aurrean SASI-KAIZAR-JAUN-LEZ agertzeko.

Len egin leikien zapaltza ori, espataren indarraz neurtzen zalako arrazoia.

Baina gaur, espata ori, jokoz-kanpo geratu da!, eta AMAREN ta SABINO´renak, seme alperrak izango gara, ez badogu Euskalerrriaren askatasuna ondo bideratzen, laster, Euskadiren demokrazizko argi ta egia irabazteko.

Berak, beti esaten eban: Europa, Amerika eta ludi onen erri guztiak ezagutu bear dauzkuela, gaur, etenbako lana erreztu daiten, jabetasunaren billa.

Ori lortzeko gaur, batera joan bear dogu, espatak eta arpeleko indarrak alboratuaz.

Gaur, arrazoia bear dalako ludi ontan askatasuna lortzeko. Eta arrazoia daukagun nortasunagaitik, gurea dalako. Ori da ikusi bear dabena gure inguruko erriak!.

Begitu bestela Sabino noraiño eldu zan bideak aurkitzeko. Berak esate eban, dirua eskeratu bear dogula, Euskerea egon zan zulotik atarateko, eta orretarako: nekazaritza aberastu, lan-tokiak ugaritu eta abar; ikastolak ugari, jarraian, eta aldun guztiko abiadan ipinteko.

(1) Urrutizkiñatik bialduta = enviado por telégrafo. (2) Elkartearen itxidura = el cierre de la sociedad.

(3) Aztarnak galerazteko = hacer perder las pistas.

Ez ori bakarrik, zergaitik katolikotasunean aberkidetu, edo bardiña dana, espainitartu gure eban, berak sortutako "Eusko Jeltzaleen Alderdia" euren artean lanean ipinteko Alberdi barri lez ?.

Europa ta Mundu onen giza guztiak, Jaungoikoaren Sorraldiko Legearen aurka, "Judu Erromatar Godo Mercantil Aberri Katolikotasunean Batzangotu gura ebezalako, edo Sabino jakin arazian euki ebalako, IVn gizaldiko Nizeatik, Izadi onen giza guztientzako, Jaungoikuaren aurkako eritzi orreik ipini gura ebazala, edo bidean gagozela, konturatu zalako ?.

Izadi onen ukatu ezinezko legea da, eraiki bear diran gauza guztiak, euren oiñarririk asita eraiki bear direla, ez dogulako beste almenik. Orregaitik urten bear dogu Sasi Jainkoen asmakerietatik.

Konturatu gaitex ba, Kanobasek esaten eben antzera, Sabino gaurko egoera ber bera ez ba ebela ikusten, urbil egoala.

Guk gaur eta len be, ez dautsagu baietzko ziñ egin konstituzioari, eta berak be, ez eban egingo. Eta egingo ba eutson, larrialdiko zillotik atara arte izango zan.

Beren eskutizetatik agertzen dan ulermen bakarra, abertzaletasun oso aberatz bat da.

Eta badauka bai, Sabino zalantzan ipini ebanak, edo ipini eben elkarteak gaurko denboratan: "nai, beren euskerazko arloan, nai beren gogapenengo arloan, nungo parkamena eskatu, lan zakar oiek, egin dabezenak".

Sabino, gure arrigarrizko argian biurtu zan, eta gaur, gure izar nagusia izan bear leuke, norkeri uztelak, etzaien ziri-pozoitzuak, arrotzasunetik sartzen jakuzan guzurrezko asmoakin, gurekin ez daukienak zer ikusirik, bastartuaz.

Sabino, etxekoa zan, eta beren senitarteko etxe nagusiagaitik bizitz osoa eman ebana.

Gitxi baino ez direnak eltzen, alangoko lan eta gogomaillako arloetan.

Orregaitik ba, "AINTZA ORO BETI, ARANA ta GOIRI-tar SABIN entzat".

2. 15. (26). *Arana ta Goiri tar Sabino, kristau bezela.*

Ez dot uste ezertxo be esan bear danik, Euskalerrian orduko denboratan egon zan kristau giro sakonagaitik, eta Sabinoren senitarte inguruetatik, gitxiago.

Bere bizitzak erakusten dauskuna, fede aundiko gizona zala, bai bere izatean, bai bere ekintzetan.

- Leen: Bere Nortasunagaz, JAINKOA'ri begira dago beti, ortik artzen dauelako beren argitasun osoa.

JAUNGOIKUA Sabino'rentzat, Nortasun osokoa⁽¹⁾, eta BEREN ardurapekoa⁽²⁾ da.

Begitu daigun bestela, aita Maurok idatzi eban liburutik, Sabino, zer esaten dauan Larrazabaleko Itzaldian. Ba., ikusten dogunagaitik itzaldi bat baino geiago, esan bear da, bere oinarrizko kristau fedearen aitortza dala:

- "Nere erriarentzat, katolikuntzaren adierazpena egiten dot, bere aojakintza⁽³⁾, bere izatea gizartean⁽⁴⁾ eta politikoa, katolikuak diralako. Nire erriak baiña, katolikuntzari aurka egingo ba leuzkio, uko egingo neban neure abendatik, JAINKOA'rik gabe, ez dogulako gura ezer !.

(1) Nortasun osokoa = personal. (2) Beren ardurapekoa = providencial. (3) Aojakintza = tradiccion.

(4) Bere izatea gizartean = civil. (3) Gizona eta beren Bidea, 46-47-ko orrietan datorrena.

Badago beste atal-bat, Sabino´ren kristautasun fede sakona argitzen dauana; eta onen aitorraldia, monsiñore Pierolak emon eban, orduan Gazteizko gotzaina izan da(3).

Ego Ameriketatik etorritako erlijiozko erkidego talde bat, Gernika inguruan ezarri ziran. Eta gure Erriaren oiturarik ez eben ezagutzen lez; onein gogamenetan uste eben, ondartzara joan leikezala askatasun guztiaz.

Baina askatasun orrek, bertako baserritarren gogaeragaz topo egite eban, eta ez ziren adostasunean egon.

Sabino, baserritarren urduritasunaz arduratu zan, kristau aldizkari baten bidez gertakizun ori zabalduz.

Baina, Gazteizko gotzainak, txixt egin eutson Sabino´ri eskutitz baten bitartez, ez zabalteko aldizkaritan galdu-bide orreik: “Ezagutzen dodaz zure katolikotasun garbi ta zuzentasunezkoak, esaten eutson, baina berorreri eskatzen dausat, aurrerantzean ez ibilteko olako galbiderik”.

Sabinok, lotsagizun aundiko eskutitz baten bidez erantzun eutson: “fede aundiko kristaua zala bera, JAUNGOIKOAREN iturburuko zerbitzuan, eta eleizen nagusitzan”.

Baina, ez eben ontzat artu, edo naikoa ez ziralta beren azalpenak, eta Sabino bera aurreratu zan Gazteizko gotzaintegira, bertan egon ziran guda gizon ta eleiz-gizonen aurrean.

“Bai, esan eutson gotzainak, niregana etorri bear izan eban berorrek; nik artuko nebazalako neurri egokiak, galdubide ori ebagitzeko”.

Sabinok, lotsagizun aundiaz entzun eban gotzainaren oarkizuna, ta gotzaibarruti-koen oarpideakaz arduratuko zala andik aurrera esan eutson.

Sabinok urten ebanean, gotzaiak, bertan egon ziran gudal gizon ta eleiz-gizonai esan eutsoen: “Ori da, eleiz-barrutian daukadan kristaurik onena”.

Eleiz gizonen artean, Mujika´tar Mateo, Gazteizko gotzaina izango zana egon zan, eta berak esan eutson On Joxe Miel Barandiarani gertakizun orreik.

Sabino gaurkoratu egin bear dogu, katolikotasunezko eritziaren kanpotik, beren oiñarizko esandakoak eta egindakoak gaurkoak diralako.

JAUNGOIKOArri ezkeini eutsolako bere bizitz osoa, eta orrek bakarrik, naikoa esan gura dabela uste dot nik.

Ez da alabearrezko edo ustegabeko gauza, IVn gizalditik eta Nizeako eleiz katoliko batzarrean zinezkintzatu ziran okerrak, zuzentzen ibili ondoren, ainbesteko lan egin ostean, oraindiño IVn gizaldiko arazoarekin egotea, Jaungoikuaren egira urbidu barik.

Orregaitik, ez da arritzekoa, giro ontan, ezi ta azia izan dala gure Eusko Alderdi Jeltzalea, Izadi onen Jaungoiko Sortarazleen jarratzaille izateko; orrela jaio zan kristau demokraziaren ekintzetan be, European ondo sarturik egonda, egiten ebazan orokorrezko billeratan.

Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio´ren gobernua, Europako beste gobernuen kide batzukaz be, eta P.N.V.´ren izenagaz, ainbeste billera nagusi egin ebexanak, kristau demokrazizko alderdia sortzeko beste Europar kideekin batera, arik eta katoliko aberkide faziztak, menperatzailetasunezko indarra ta eleiz katolikuaren sakratuzko aberkidetzan batzangozkeo, kurutzadaren alegiñ gogorak erakutsiz, kanpora bota egin ebexan arte.

Zer esanik ez, azko arduratu ziralta kristauzko demokraziari, indar edo arnaza emoten, edestitik txarto eginekoak kentzeko, eta Europa aberastuteko benetako Jaungoikuak emoneko eskubideekin.



Ⓔ

Katoliko aberkuntza onen mami aundiko gai au, ikerlarien esku arteko zuzentasunetan dago. Gaur, inoz baino geiago.

Nabaritzen da, gaurkoratu egin bear dala Eusko jator zaleen artean be, ekintza auxe ber bera.

2. 16. (27) *Sabino´ren Nortasuna eta Nafarroa.*

Sabino´lako gizon baten Nortasunagaitik zeozter esateko, asko jakin bear da beren bizitzazko aztura bidetik: ikas bidetik gitxi gora beragoko jakinaren neurriak, erlijioaren aldetik bere sinismena, erri gizontasuna ta abertzaletasunezko arloetatik bere sinismen ta borondatearen emankortasunak, eta abar. Eta orainarte ikusi dogunagaitik, danak goi maillakuak izan dira.

Baita argi ta garbi dago, edesti guztiko denboraratan, euskal nortasunaren egi ta askatasunaren demokrazizko maillak, andienetarikoak izanda, eta bere inguruko erri guztiekaz, begirun andiko edertasunezkoak izanda, auzotar guztiekin lotsazko arduza aundienean bizi giñela, arik eta katolikotasunezko aberkidetzan batzangotzeko eritzia, kolonizatuko maillan ipinita, erromatar eleiz katolikua gudaloztearen laguntza osoagaz, Europa osoa egitik urrundu eta euren katolikotasunezko aberkuntzan batzangotzeko, gogor ta zitalez, IVn gizalditik, etenbageko eraso alegiñetan asi arte.

Sabino, 1865eko urtean Urtarrillako 26an jaio zanetik, 1.903ko urtean Azillaren 3an goizeko seiretan il zan arte, ta baita gero be, Euskalerrian bizi-bizi ziran menperatuaren ta kolonizatzeke zigor alegiñak, ta 1839an leen karlistaren gerla galdu egin gendunetik espainitar gudaloztearen aurka, jakin gendulako, espainitar talde biak, gogo beroko itxaropenekin antolatzen ibili zirala alegin aundiakaz 1872-76ko bigarren gerlarako bear ebezanak.

Sabino jaio zanean, Euskalerria il-zoriko larritasunean bete-betea egoan. Aberriko giza barneko uts oso baten.

Begitu noraino izango zan Aberriko giza barne gabeko ori, Sabinoren jaiotzatik eta bere gazte denboran, politika arloan zortzi talde egoteko: Katolikuak iru talde: Karlistak, Integristak eta Fueristak. Monarkiko liberalak talde bi: Gordetzailleak, Fusionistak edo Batzango zaleak. Eta iru errepublika zaleak: Radikala, Federala eta Posibilistak.

Bat bera esanda be, ez zan Euskalduna, danak espainitarrak ziralako.

Sabino, orren giroan asi zan Euskalerriko gazte lez, baina ez bere etxeko sendi lez, beren aitite amama eta guraso aldetik euki zituzen "ERLIJIOA eta FORUEN" elburuak abertzaleak izan ziralako.

Beren aita, guztiz beartuta egon zan karlistai laguntzen, etxerako kalte aundiak ekarri arren.

Ikusten dan lez, etxeko arnasa obiagoa ezin izan, eta or berarentzat ta sendi osoarentzat, erro zintzo ta sakonak, nai kristau lez nai abertzale lez.

Au da aurrez aurre, Sabinok euki eban ikuskizuna, bere jaio eta gazte denboran: Nortasun arloan, bizia emon bear jakon eremutartutako erriari.

Euskalerraren burutapenak Sabinori, Euskaltasuna indartzera beartzen dau, aaztu barik, bere irabazpidearen askatasunagaitik Euskeraz berba egitea sarritan, barregarri agertzen bazan be, Euskeraren birbaliotasunezko laguntza onekin indartuteagaz, bere erabilketa garatu edo ugaritzen zala.

Erri orren borondateak mugatzen dauz burutakizun orreik, eta apurka apurka zeazkatzen dauz, beren erakundeen gogoa daukolako eta beren barruko batasuna erakutsi nai daualako.

Gernika da, Erri orren Nortasuna, ondoen ikusten dan lekua agerkerako izatean, bere millaka urte azko daukiezan erakundeetan. Eta Gernikako Arbola da, Euskalerrriak daukan Nortasunetzko jabetasunenaren leialtasunetzko esangurean, bizi biziko dirdiran.

Sabinok on artzen dau, Euskalerrriean Euskal il zoriko giza barrena nola dagoan. Barru barruan Sabinok, erri guztiaren zatia izaten dakielako, eta askenerarte gura dau baieztu, beren zerbitzuaren alde esandakoa.

Egizale aundi bat da Sabino, eta onartzen dau dan burutakizuna, bere erria aurkitzen eta azaltzen dan mail buruan, zazpi izatearekin osotuta eta zazpiak bat izendatzen jakonari, eta or azita goratzen dau Euskal sendi guztiaren azalkuntza⁽¹⁾.

Sortzezkoa da oldozmen au, eta Sabinorekin dauka beren asiera. Gai onetan eskua sartu baino arinago, Euskal politika, espainitar izaera baten lan egiten dau, eta orren zentzutik ibiltzen joango da, karlismo tradizio zaleagaz, gutxi gora beran lotuta dagoana.

Lanaren egin era au, guztiz garrantzidunetzkoa da, erri txikerraren azkerari balio jakolako. Orregaitik ausartzen naz Latxaga'tar Joxe Mari'ren laguntza euki nebanagaz, "ERRITARGO'en AITA, SABINO'ri deitzea"

"Euskalerrirentzat gaur, Sabinoren ardura aundienetakoa da zalantzarik gabe".

"Eta naita naiez berrezkuratu egin bear dogu gaur, Euskalerrriaren osasun onerako, Sabinoren bidea".

Eta gerlako aleginak galduta, Sabinoren ardurak, Nortasunaren argiak biztutzea zan, Euskalerrriko gizon/emakurdeen borondate onakaz, izatasunetzko arrazoiaren borroka naguzia irabazteko.

Bartzelonan ikasten egon zanean, eskutu eskutuan Ikasi bear izan ebazan bere erriaren eskubideak zeintzuk eta nolakoak ziran, eta egoerazko aukera orrek bakarrik esaten aduana, "ez gendula jakin gure nortasun aldetik ezertxo be, edo gauza gutxi baino beintzat, gure Euskalerrri maite onen eskubidea, Euskaldunen ardurapean edo jabetasunean ezartzeko".

A ta guzti gure Sabinok, eta gure euskalerrri maite au, bere il zorian egon zanean: Biotz guztiagaz aldarrikatu eban, "gure espainitar izatea ez zala egia", "EUSKADI ZALAKO EUSKALDUNEN ABERRIA".

Eta au ikusteko, artu daigun beste azkoren artean, 1895eko urtean Iraillako 14an Arantzadi'tar Ingartzi'ri idaxten dautson eta goian argituta daukagun eskutitzatik zati-au: "Guda'ko agintarien aldetik, oso illun ikusten dot. Ez daukat ardurarik, JAINKOA'ren ardurapean izten dot ori".

Ikusten dogu lez, Sabino bere Nortasun osoarekin egiten ebazan gauza guztiak, JAINKOA'ren izenean egiten ebalu, ez daualako ikusten bizitz au, JAINKORIK bage. Eta ortik artzen dauelako indar guztia.

Sabinok, gizon bezela be, erakusten dau beste garrantzizko gauza bat, bere adiskide ta sendiekin agertzen dauan samurtasunagaz, Ingartziri idaxten dautson 1.896ko urtean Otsailaren 7ko eskutitzan:

"Nire arimako lagun mina eta gogaide bikaina".

"Berorrekin, zenbat biderrez gogoratu naz !".

"Nere bizitzako lagun mina, zure orduz kanpoko aitortua, zenbat gaiztotu nau !".

Eta alderantsiz, eurak euki eben Sabinogaitik arridura. Adibidez, Arriandiagak Arantzadiri 1902ko urtean Agorrillaren 22ko eskutitzan idaxten dautson lez:

(1) Azalkuntza = explicación, exposición, explanación, exégesis, comentario, desarrollo.



“Ezin diteke, ain ezin obeko gizatsua, ain abertzale aundia eta ulermen gain gainekoa, Eusko Alderdi Jeltzalearen aita, beren bizitzagaitik berea ondatu dauena ezin bestean”, eta abar. “GUZTIZKO ta GARRANTZIDUN”⁽¹⁾, idatz lanaren gora beragaitik.

A, nolako begirune alde bietatik.

Sabino, endakeriaren zalea izan zan?⁽²⁾

-XIXgarrenengo gizaldian jaioten da endakeria⁽³⁾.

-Giza iztianren⁽⁴⁾ *bidetik, eta indar aundiagaz esan bear da.*

-Europa guztian endakeria, giza iztiaren ikaskundeko fruitua dalako, eta giza-izti fisikatik geien.

-Eta gizaren nortasunezko berezitasunak asten danean ikasten.

-Erazo-aldi azko bota dabez gure erriaren aurka, gure Euskalerra maite au bizi ez daiten, edo gure erriaren eriotzea gura dabenak, gure lur ontako ondasunak, eurenak izan daitezcan, edo eurak kaisar-lez agintzeko.

Nor da or, endakerien zaletasunezkoa ?

Sabino, zekula!; inoiz ez zan bere barnean endakeriaren zaletasunezkoa, beren Aberriaz arduratutakoa baiño. Bakoitzak bere etxearen ardurea zaintzen dauan antzera, eta EUSKAL ABERRIA gure etxe nagusia da!

Gainera esan bear da, itz-berri orren asiera edo oinarria, espainitar ta Alamandar kaisal erri auek, euren arrano aundia armarri ta ikurriñetan daukienak, dirala itz orren gurasoak.

Goazen itaunakaz baiña:

Sabinok, inoiz esan eban maketoak bota! egin bear direla?.

-Nik dakidanez, inoiz ez eban esan alakorik:

-Begitu daigun bestela, Larrinagako espetxean, Sabinok, euki eutsen amorrua ta gorrotoa gaztelarrai, Huertas il-tzaillaren gizakian⁽⁵⁾.

-Sabinok ez eban bakarrik Huertas biotzez damututa aitortzea lortu, beste abade biren laguntzaz, bai beren ilgarrietatik askatu be.

-Endakerietan dabillen baten-batek, emongo leuke alango laguntzarik?.

Ez dot uzte !.

Baten-batek esan dau Sabinok auxe esan abala!: gu geu izateko, gure artean dagozan beste erribatekoak il egin bear dirala.

-Sekula ez !, ez dau esan alangorik, Sabinok. JAUNGOIKO zale eta Kristau aundia izan zan, bai ta lotsakizun aundikoa zikinkeri orreik esan eta egiteko.

Onek besteok bai, izan ziran gai, eta orretarako egilleak: Hitler, Mussolini, Franco, Milosevik, Indonesia-ko Yusuf Habbie eta abar, euren armarrietan ta ikurriñetan arrano aundiak daukiezanak.

Lotsakizunaz artu bear dira, gure artean bizi diran arrotzak?.

-Bai! benetan, eta begirun aundiagaz gainera, JAINKOA'k Bere berezitasundutako Legeakin aginduten dauzkun lez.

Baina, zer egin gure artean, gure etxe barruan, gu ez izateko eraso larrian aurka egiten dauzkunai?.

-Aurka! nai-ta naiez, erasoan datozenai.

(1) Guztizko eta garrantzidun = Grave y transcendental. (2) Sabino, endakerien zalea izan zan ? = era Sabino racista ?. (3) Endakeria = racismo. (4) Giza-Iztia = antropologia. (5) Gizona ta bere bidea, 43 orri-aldian = el hombre y su trayectoria de Aita Mauro, pg, 43

Nola?

Sabinok, beti esan eban, Aberriaren, Nortasunezko giza barrena osatu egin bear dogula erri bat izateko. Eta orretarako ez da bear borrokarik, ardurak zainduz, izatean, arrazoiak euki baino bestetik ez.

Or ez dago zalantzarik, Sabinok esaten eban lez, erri bat izan ezker eta izaera orretan jokatu ezgero, edozein etsaien arrazoiak nun geratzen dira ?

Nork, gure artean eta arrotzen artean esan dau, Sabino ez dala gaur egunekoa?.

Sabino gaurkoa, eta bai biardamu edo etzikoa, beti izango da. Goiko Jainkoaren betiko oinarriak diralako, berak ibiltzen ebazanak.

Bestela Jauregi´tar Kanobas´eri itaun, zer gura eban esan, Bizkaiko Aldundiaren ordezkariari esan eutsoen orduan: “Ese, ve mucho y muy lejos”.

RH´en gora beran, azaldu bear dana, Euskaldunak sekula ez dogula erabili zertzelada ori endakeri lez.

Guk, beti esan doguna: berezitasun ori, Euskalerrian aundia izateagaitik, eta gure artera etorri diran arrotzak, euren berezitasunak itxi arren, oraindino geien daukana Euskalerria dala. Eta berezitasunezko guztiori, erri bat, bai zarrena be Europan garella, etsaiari esateko. Besterik ez !.

Erri guztiak daukaguzan berezitasunak, jakintzaren ikerketarako dira, Ludi onen gizakiak, derrigorrezko antolamendu berezi bat bear dabelako, ta orren antolamenduzko lotsagizunean zainduz, bakotza edo erri bakotza dancen artean, bakean bizitzeko.

Gaur ez gara bizi orrela, gaur, idaz lan bat artu ta izki guztiak, eskuekaz zirriborrotu ondoren bezela, edo iñork, oiñarrizko idazki orrek zer esan bear dauan, jakin bage eta edozer gauza esanda, bizi garelako.

Begitu orduan, nortzuk dira RH´ko endakerietan eta beste bereizkeriakaz jokatzen dabenak, eta zertarako.

Sabino´k, beti dauka arrazoiak, Euskalerriko bizitzaren gora beran berba egiten dauanean. Gaurkoa dalako.

“OR ! ABERTZALETASUNAREN, PARE BAGEKO BIZI BAT”.

Badago bitxi bat emen, aita Maurok bikain argitzen dauana. Sabino 19 urte il zanetik zan, bere lagun min bateri egindako alkar ikuste baten bidez.

Onak, berri idazlearen itaunari erantzuten eutson: “Sabino, biotz osokoa izan zala”.

Bizkaitar aldizkarian agertutako idatz lan bategaitik, Sabinoren etsaiak esaten eban, maketoak Sabinorentzat, ikus ezinezkoak zirala. Laguntzarik, ez dakiela emon bear inundi inora be, esaten ebala. Eta Euskalerritik, bota egin bear zirala, ta abar.

Jakin al dau berorrek, nolako gizon eta benetako kristaua izan zan Sabino ?

Martxan ipini daigun ba, Sabinok maketoagaitik euki eban gorroto zital ori: Sabino, Larrinagako espetxean egon zanean, beragaz batera maketo bat egon zan, “Huertas” abizen lez euki ebana.

Bere zigorra, eriotzea zan, Lekeitioko euskaldun bat il ebalako, diruen lapurketa gaitik. Biotz gabekoa izan zalako, iñork ezin eban lortu, azkoren alegiña izan arren, espetxeko abadeaz autortzea.

Eta begitu nundik nora agertzen dan Sabino bere ondoan⁽¹⁾, berari erlijiozko egiak irakasten.

(1) Sabino = batzuen ustez maketoagaitik gorroto eukena, eta or ikusten dozue bere etsai aundienagaz janari ta ardoa bion artean banatzen.

Berentzat, etxetik eroandako baskari bereziak maketoari emoten. Ardoa⁽¹⁾. Eta bai ke belarra⁽²⁾, berarekin denbora guztia berbetan emonda.

Sabinok, beste abade biren laguntzaz, ez eban bakarrik, Huertas biotzez damututa aitortzea lortu, beren barkamena irabazi be bai. Beragaitik, zekula ez ebana egingo.

Sabino'k, Huertas'en biotza, oso osoan irabazi eban, eta begitu noraino izango ziran maketoaren esker onak, beren aitari baiño geiago maite ebala esateko.

Bai Larrinagatik atara ebenean Zeuta edo Melilla'ko espexera bigaltzeko, Sabinori agurtzerakoan esanda: "igez egiten dodanean Sabino jauna, eta ziur egon zaitez, espexetik igez egingo dodala, danerako, berorren naierara ipiniko zala".

Andik iru illabete orduko, Ego Ameriketatik idatzi eutson, agindukoa ostera be, berriztatzen.

Gure solas lagunari esan geuntson, gertaldi ori ezagutzen gendula, ainbeste xetasun barik. Eta gertakizun orrek bakarrik erakusten dau, Sabino, biotz oso osokua zala.

Bigarrena Nolako ardurarekin entzuten eutsen gizon jakintsuai. Adibidez: Beren etxe-ko gurazo, anai/arreba ta senideai.

Olandar ban Eys'en iztegi ta gramatika, Kanpiontar Arturo'ren gramatika baskonga-darekin, eta, ikas bidean eukindako maizu guztiakin.

Bere anai Koldobika'ri, Euskalerriko arazoak dirala ta.

Irujotar Daniel'en aolkuari.

Beren denborako Azkue, Unamuno eta kideak zirenai.

Euskalerriko etsai nagusien esanak; Jauregiko Kanobas eta beren mallakuak zirenai ta abar .

Eta dan guzti ori ziurtatzeko, ez da begitu baino bear, jakintzako arlo guztietan, nolako mailla artu eban.

On artzean, nai damu aundia euki arren, beren kideak, bidea moztu egin eben orduan, kable-idazkiren bidez bigaldu eutson mezua Ingalaterra'ko erregeari, Afrika'ko gerla amaitzeagaitik. Espetxean eta gaisorik egon zalako, len Roosevelt Amerika'ko lendakariari bigaldu eutson mezua gaitik, ezkerak emoten, Kuba'ri askatasuna emon eutzelako eta abar.

Sabino, bai sendimen eta bai ulermenean, mailla aundikoa zan, eta orregaitik buru argiaren begi zorrotzekoa. Bere denboran bizi ziran gizon aundiaren aolku-mezuak, eta era ezberdiñean goimallako jakintzaren arloan, ta baita bakotxaren jakite ta izateagaitik, ardua aundiekin, entzun eta aintzakotzat artzen ebazan, egiaren astarnarekin oso zintzoa zalako, ta eskuarte bikaiñakaz lege barruan, goimallako ulermenean jokatzeke.

Gogo aundiko gizona izan zalako, Nola asten ebazan gauzak eta amaitu.

Eta au ziurtatzeko, begitu baino ez da bear, berak egin eban lan guztiari.

Ondo ikusten dan bidetik, argitaratu ebazan aldizkarien bidetik da: espainiako jaurkintzatik debekatuak izaten zirenean be, laster atarako eban beste bat, edo izena aldatuaz, Euskal erritarrai mezua emateko. Arrigarritzko lan bikaina erakusten dausku, arlo onek bakarrik.

Euskeraren arloan bardin: nolako lan bikaina itzi euskun oso gazte azita, ba, ez ebazan euki 20 urte baño: "Bizkaiko Euskeraren Gramatika osotu ebanean, beste lan batzuen artean 1888an argitaratua izan arren.

(1) Baskari bakotxagaitik pinterdi bat = pequeña cantidad de vino. (2) Ke belarra = y compartiendo el tabaco.

Emen, inondik inora okerrik egin gabe esan leike, bere bizi laburrean baina luzea ekin-tzan, ez ebala galdu denboraren unetxo bat bera esanda be, nai ikasbidean nai bizitzako ekin-tzan, ain denbora gutxian, ainbeste goi mallako lan egiteko.

Zuzentasuna bere adizkirekin, edertasun aundikoa izan zan asieratik amaierarte, eta orretarako begitzea baino ez da bear gure gurasoai, nolako maitasuna eta fedea euki eutsoen Sabinori, eta berak egin eban lan guztiari Eusko Alderdi Jeltzalearen bitartez. Nolako fede zintzo ta indartsua !!, guk, apur-bat baino geiago galdu doguna.

Laburpen baten bidez, gizaldi aldetik agertzen jakuzan alderdi argitsuak izar dirdira-tsu lez, oneik dira: "Xamurtasun goztoa arremanetan".

"Neurri gabeko ardurak, giza jakintsuen mezuak ezagutzeko. Gauza asiak amaitzen Ikasi".

"Danex gain zuzentasuna, nai adizkidetasunaren beste-aldetik asiak izan".

"Goi mallako lanetan, egindako astarna kementsuak".

"Eta, ori da azken baten, gizon aundien ulermenari neurria artzeko tresnerik onena".

2. 17. (28) *Sabino, Gizon bezela.*

Alango Aberkide eta Nortasun aundiko gizonagaitik berba egiteko, zeozer jakin bear da bere ulertze eta esagutzaren arloetan: sendimen eta samurkoitasunean⁽¹⁾, gaitasun edo trebetasunean⁽²⁾, ekanduzko oituran edo etikan⁽³⁾, eta onen balioa gai guztietan, bere bizi denborako garaian.

Nik, irakur eta gizon jakintsuen bidetik beren buruz dakitenagaz, esango neuke: "oarmeneko sendimenean, goi maillakua izan zala; eta ezagutzean edo ta ulermeneko arloan, bardin".

Orreri gainerratu ezker, Euskalerrriak Kristautasunezko erlijio arlo sakoenean⁽⁴⁾, euki eban sinismen itsu ta sutsua⁽⁵⁾, bai ta batera, Nortasunezko izaerean il-biziko egoereagaitik, gudan bete betean sartuta, gure Nortasunezko larritasunak askatasunera bideratzeko, berez agertzen dabe arimako borondate onak aleginduta, alango Nortasun aundi bateko gizonen indarrak, lotuta egon ba ziran lez, garaiaren ekanduzko gora berak, bultzatuz.

"Ulermena", "Trebetasuna", eta bai "Oiturazko edo ta Ekanduzko arloetan", bereztasunaren zentzun andiko zuzentasuna eskatzen dogu. Guzti orreri "Aldi-Ona"⁽⁶⁾ gainerraturuz.

Nik ez dot sinisten "Aldi Ona" edo "Aldi-Txar" orretan. Bai, bereztasunaren ekanduzko ardura onenetan baizik, bizi onetako denbora guztiak, bardiñak diralako, eta edestitik zear, gure ardura bardiñean sartuta gagozelako. "Izadi onek daukazan Berezko legeakin arduratu bear gara, Demokrazizko Askatasunaren ekanduzko ardura onetan lortzen diralako bizit-zan, eskubidearen bardiñezko egokitasunak".

Euskalerrrian, goi maillako sendi eta ulermen andiko gizon emakume asko euki doguz 1.693ko urteen etorkizunezko edestian, bai ta alper asko be, mundu onetan etsaiekaz alkartzuz, ondo bizi al izateko⁽⁷⁾, alegiñetan ibiltzen direnak. Len, urrezko zekorra aipatu dot, eta ez da guzurra, or dagolako.

Arazo guzti onen aurrean, itaun bat agertu jakon Aberriaren gora beran, gure Sabinori: "Jaioko nintzan ni, Zeure II-Orduban Eltzeko ?.

Laster baiña, beren erantzuna: "Bereinkatua izan daitela, nire Aberria ezagutu neban Eguna, eta betiko esker onak, arrotzasunezko illuntasunetik atara nebenai".

(1) Oarmen edo sendimen eta samurkoitasunean = sensibilidad, sentimientos y en su calidad de enternecimiento. (2) Gaitasun edo trebetasunean = en su capacidad. (3) Ekanduzko oituran edo etikan = en la costumbre de moralizar nuestros actos de acuerdo a las más estrictas leyes de ésta naturalización. (4) Emen ez dot aipatuko katolikotasunik oraindiño, Kristau eta katolikotasunaren bitarteko zalantzak nire ustez, gero agertzen diralako. (5) Sinismen itsu ta sutsua = fe ciega y fogosa. (6) Aldi ona = suerte. (7) Mundu onetan etsaien aberastasunak azkartzuz, ondo bizi al izateko = en éste Mundo, arimados ala riqueza del enemigo para vivir mejor.

Orregaitik bere sinis betea Jaungoikua ta Lege Zarraren bidez: "Gu Euskadirentzat eta Euskadi Goiko Jaungoikoarentzat" "Euskadik bere ekintz osorako, askatasunaren ikurragaz Izadi osoan zabalduz daukan Demokrazizko Nortasuna", "Euskaldun Aberria dalako".

Garbi ta argi ikusten da, Jaungoikuari, eskeiñi eutsela beren bizitz osoa Erri bidetik.

Or, erri baten, bere goiko maitaleak.

Kontuan eukiten dituenak, bizitz au ez dala bakarrik jaio ta eriotzea. Artean, zeozertarako agertu gariela baizik. "Eta joko ori gatx ulertzen da, gure bear bearrezko Demokrazia-aren arloetako ekintzan, "Ekanduaren neurri oneko ordezkari-tan, jokatu ezik".

1.844ko Azaroaren 23an ezkondu ziran Sabino´ren aita, Arana ta Ansotegi´tar Santiago, eta ama, Goiri ta Atxa´tar Paskuala. Zortzi alaba seme euki zituen: bost neska, eta iru mutil. Sabino izan zan danetatik asken jaio zana, eta bera bakarrik, Albia´ko etxe-bizitz ederrean, gaur "Sabin Etxea" deritsona 1.865eko urtean Urtarrillaren 26tik bizi zana.

Jakin degun, Arana ta Goiritar etxearen abertzaletasunezko giroa nolakoa zan, euren seme alabak, ain sakonezko euskal arnasa eukiteko, Sabino´ren arreba Paulinarengana joan gaitezana, ia zer esaten dozkun bere oroimenezko idatz lanetan, iru edo lau gauza artuaz:

"Nire aitak karlisten matxinadarako, asko lagundu eban".

"Denbora gitxi barruan, itzi eban itsas untzien egiteari".

"Bere etxean euki eban ostonduta Uribarri jenerala, arik eta karlisten gudalozteetan, bere agintaritzza artu arte".

"Aita joan zan Ingelesen errira izkilluak eroatera, eta bere zarpeletik 50.000 ogerleko ipi-ni ebazan karlisten borrokarako".

"Zelan zabaldu zan, sendi osoa atzerrira joan giñela, etxetik urten barik egon giñelako. Egun ospatsuetan bakarrik urtetan gendun, otoiz egitera leenengo mezatan".

"Aita, Abandoko alkatea zan, Eta Gernikako Batzarretan eskubidedun bertatik".

Ikusten dan lez, etxearen aberkidetasunezko arnasa obiagorik ezin izan, eta or berentzat erro zintzo ta sakonak, nai kristau lez, eta bai abertzale lez.

Goian aipatu doguz bere ikasketako bideak, ama il jakon arte, eta ortik aurrera, ikaragarri-rrizko lana egin euskun, lumaz eta mingaiñez.

Euki eban Sabinok beste arlotxo bat be, maitetasun aundian euki ebana, "Eiza" zan.

1.889ko urtean, eiz-izkillu on bat erosi eban Paris´en, bere arreba Paulinak esaten dauan lez: "Ondo zainduta euki ebana". Eta bere lagun onakaz: Amoroto´ko Matias⁽¹⁾, Gernika´ko Urberuaga´tar Agustin, Lekeitio´ko Guillermo, eta Amoroto´ko beste batekin, askotan joaten ziralara neguko denboratan, basurdea´ren eizara.

Paulinak esaten dau: Eizatik etorri ta, bereala deitzen ebala, abere iltzaille baten bateri, basurdearen aragiak baseritarren artean banatzeko.

Paulinak, bere osasun aldetik esaten dau: "Otz aundienakaz be, eta ain goizetik urtenda, otzaldi edo ozberri txikiena⁽²⁾ be ez ebala artzen".

2. 12 (23) Sabino Erri-gizon bezela.

1898ko urtean Bizkaian, ordurarte espainitar zaleak ziran Aldundiko 20 ordezkariak, ezertxo be ez eben egiten Bizkaitarrak euki eben euren izatasunezko larrialdiagaitik.

(1) Amoroto´ko Matiaz = txakur zaiña. (2) Otzaldi, ozberri, postoma edo bularreko-estutasuna = catarro.

Eta urte orretan, Aldundi´ak berak ukeratu bear izan ebazan 8 ordezkari: lau Bilbokoak eta beste laurak Bizkaiko lurraldeetatik. Bilboko auteskundeen irabazleentzat iru ordezkari ziran eta bat aurkakoentzat.

Iru urte ariñago sortu eban Eusko Alderdi Jeltzalea Sabino´k, eta Bizkaitar aldizkariaren bitartez, orko autoeskundeetarako abertzal gogo giroa berotzen ibili zan, ordua zalako, euskal abertzale-tasunaren politikazko inguru begian agertu zedin, Bizkaiko Aldundian, bere ordezkaritza agertuaz.

1898ko urtean Iraillako 11an egin ziran auteskundeak, eta Sabino autarki askorekin aukeratua izan zan.

1898ko urtean Azillaren 3´an osotu zan Aldundiko jaurkintza.

Espainitarren aldekoak, begi bistan beintzat, liberalak ziran, eta aurkakoak karlistak izan bear ziran, baina gero ikusiko dogun lez, ez zan izan olan, danak batera Sabino´ren aurka jokatu ebalako. Danak Espainolak zirelako.

Konturatu gaitez ba, nolako giro edo aukera zitala agertzen zan Sabino´rentzat, ta nolako gizontasuna euki bear izan eban danon aurka egiteko. Ainbesteko urduritasuna euren artean sartzen ebalako⁽¹⁾.

Sabino´k, leenengo egunetik argi itzi gura eban, Aldundi ura, ez zala antzinako Foru aldundi lakoa, arbasoaren jaurkintza, Bizkaikoa ta Bizkaitararentzat zalako bakarrik. Eta Madrillekin, ez ebalako zer ikusirik, Aldundi ori, orregaitik ez zala izan, antzinako Bizkaitarren batzar orokorretako oiñordezkoa⁽²⁾.

Egoera larri ori ikusita, begitu edo jakin bear doguna da: zeintzuk ziran Sabinoren buruko minak.

a) Ego Euskalerrian lau Foru-Aldundiak, ararte, bakotzak Madrillekin euki eben artu emon bakarra, aurrerantzean, lau lurraldeen artean artu emon estuagoak sortuaz, Euskalerriko onura⁽³⁾ zendotu daiten.

Orretarako 1895eko urtean Azillaren 24an, leenengo batzarra egin zanean Sabinok, lau lurraldeetako aolku batzar bat adierazi eban, lau lurralde bakotxatik ordezkari bat izendatuaz, eta itaun batzar⁽⁴⁾ bat lez lan egin dagian, Madrillekin nolako arremanak euki bear zituen, Euskal zaletasuna indartzeko.

Adierazpen ori ez zan autatu, aztartzeko itzi zalako, eta urte bat ta erdi geroago, 1900eko Udabarrian ain zuzen, ez zan onartu⁽⁵⁾.

Sabinok, orren anaitasuneko lanarekin, argi dago Euskalerriak, Euskal Aberriaren itxura artu dagian gura ebala. Eta eurak konturatu ziralta be bai, nozki !.

b) Lan bidetik: Aldundiak, norgeiagora atara egiten eban lana, ordain bardinean, Bizkaian jaiotako gurasoen erriko semeen diranentzat, gura eban izan daitela.

Zaintza bidetik: Miñoiak, 1839ko urtea baino arinago, Foruzain ziranak, gudalozteen aginpetik askatuta gura ebazan. Alde batetik, Miñoien agintariak espainitar agintariak zirelako. Eta bestetik, Euskalerriko lurraldeakaitik ordainduta egon ba ziran be, Madrilleko gobernuaren, bai erki jaurlari eta guda jaurlarien aginduagaz bakarrik betetan ebazalako euren ardurak.

Sabinok, espainitarren agindupetik kendu gura ebazan Miñoiak, eta Aldundiaren agindupean ipini, baina ez eben ontzat artu.

Iru urte geroago, Aldundiko lendakariak adierazpen bera egin eban, eta onartua izan zan, nai ta denbora gutxirako izan, ostera be, espainitar gudaloztepean ipini ebelako.

(1) Gizona eta Beren Bidea 71 orrialdean. (2) Bizkaitar Batzarren orokorrezko oiñordea = heredero. (3) Euskalerriko anura zendotu daiten = fortalecer el interes. (4) Itaun Batzar lez = junta consultiva. (5) Gizona eta Beren Bidea 72-73 orrialdean datorrena.



Ⓔ

Sabinok, espainitarren gudaloztearen menpetik askatu gura eban Euskalerrria. Baina laster ipinten eben osterabe espatea, Euskalerrriaren buru gainean.

d) Omenaldi aldetik Sabinok, erizpen⁽¹⁾ gogorak egiten ebazan Bizkaiko Aldundian, diru asko ordaintzen zalako omenaldietan. Etorten ziran espainitar agintariai, errege alabai, Emilio Kastelarren omenaldirako, ta abar, diru larregi bialtzen ebalako Bizkaiko Aldundiak Madrillera.

Laterriaren ogipekoak zirenai emen eta an, ainbeste diru ordainduaz gure menperatzaillaren aintzarako.

Batera, ardura larregi geratzen zalako laguntzarik bage Bizkaiko nekazaritzarenzat, arrantzaleai, bai Baseleizatan eta abar, bear bearrezkoak zirenak, Bizkaiko erritarren buruzpiderako⁽²⁾.

Sabinok, erizpen gogorak egiten ebazan, ez goian esan dogunagaitik bakarrik, bai garrantzizko arduraren aurka egiten zanagaitik, beste ardurabako edo berak alan deitzen eutsoenari beintzat: “gaiztotzailleko akasdun apainkerietan ordaintzen zanari” Antzerki, zezen tokiak, eta abar⁽³⁾.

Danak arritu egiten ziran, Sabino berbetan asten zanean: inork ezin eutsolako beren lojikazko arrazoiari geiago egin, benetako egizale ta oso jakintsua izan zalako.

Sabino, Aldundiko lanetan ordezkari lez eta danon aurka bakarrik esan leike: unetxo baten be, ez ebalu galduko beren ozkarbitasuna, egiten eban lana, sakona ta eten bako aundia izan zalako, eta orretarako aita Maurok daukaz batuta⁽⁴⁾.

Kazetariak esandakoak, Sabinok sortutako “El Correo Vasco” aldizkaritik, Sabinoren ekintza gogorretan:

“Arana jaunak, lendakaritzari berbea eskatzen dautso “MINDU EZINAZ”.

“Arana jaunak, LASAITASUN GUZTLAZ ESATEN DAU.....”.

“Arana jaunak, BETIKO BARATASUNAZ.....”.

“Arana jaunak, BARETASUN GUZTLAZ.....”.

Eta Sabinoren erizpen gogorrenetako baten, Emilio Kastelarre, Bizkaiko lurraldeko AITA izendatu gure ebenean Bizkaiko Aldundi aldetik, “El Correo Vaskok” esaten ebala:

“BEREN BERBA EGITEA, GOZOA IZAN ZALA”

Orregaitik, len errikoen ikus entzun lekua utsirik egoten bazan, Sabinogaz gero ta beteago agertzen zan. Eta nolako sendimenarekin entzuten eban erriko ikus entzuleak jakiteko, badago bai erakuskin bat: 1899ko urtean Uztaillako 2’an asita, Eulalia errege alabak Euskalerritik egin eban jostaketako ibilbidea, eta Bizkaiko Aldundiak egin eutson koipatsu adiguriagaitik.

1899ko urtean Uztaillako 12an Sabinok, eskutiz bat idatzi eutson Aldundiko Lendakariari. Eskutitz au, aldizkarietan agertu zan, eta orregaitik Aldundiko Lendakariak, neurriz gaineke batzar bat agindu eben.

Sabinok, beren txanda amaitu ebenean, “Kruzeño jaunaren esanak, beren lekuan itxita”, entzuten egon ziran ikusleak batera esan eben “Oso Ondo !”⁽⁵⁾ eta Aldundiko Lendakariak “ikus-entzuleak, danok kanpora !”⁽⁶⁾.

(1) Omenaldi aldetik Sabinok, erizpen gogorak egiten ebazan = que Sabino hacia duras críticas al apartado de los homenajes. (2) Buruzpiderako = economía. (3) Antzerki, zezen tokiak eta abar = gastos en el teatro, corridas de toros y lujos de esa magnitud, para derrochar dineros que no eran suyos, sino vascos. (4) Aita Mauro ren Gizona eta Beren Bidea 75-91 orri aldean. (5) Oso ondo = muy bien. (6) Eta espainitar Aldundiko lendakariak IKUS ENTZULEAK, DANOK KANPORA ¡¡ = “desalojen el salón de público !!”.

e) Zergaitik gure eban Eusko Alderdi Jeltzalea askatasun osokoa elburu lez izan da, espainitarren menpeko biurtzea ?.

Sabinorentzat mirari aundia zan, gure erria nola eldu dan gaur arte bizirik.

Euskalerraren il zoriko larritasunak alegintzen dautso Sabinori, bizitzaren joko onetan, ikaragarritzko mailla politikako arloetan erakustea, esku izanda, axa edo enbido aundi ori joteko. Eusko Alderdi Jeltzalea, espainitarren jokuan sartuta biurtzeko.

Nik uste dot, iñoz egia izan badala, katolikotasunetzko oldozmen ori ezagutzen asi zala, emen asi bearko leukela katolikoaren aberkidetasunean batzangotzeko gogo ori ezagutzen.

Laugarren gizaldiaren asieratik idatzita dagoelako, zelan dan Mundu osoarentzat katolikotasunetzko aberkuntz ori, ta bere lana ez dalako egun bateko fruitua, bere etenbageko azterkuntza ori ondo auznartutako gogamenean beteteko baiño.

Euskalerrri ta berezko erri guztiak ortik aurrera, Nortasun barik izten dabazelako, katolikotasunaren aberrikotasunetzko asmakizun orrek.

“A la orduan, oraindiño egoan sinismenitsuagaitik izango ote zan?. Baliteke ori be izatea, baiña ni neuk, nere zalantzak dauka-daz.

Eta ori ikusteko, artu daigun aita Maurok idatzitako, “Erritargoen ALTA” bigarren liburitik eta 378 orrialdetik, Arantzaditar Igartziri esaten dautsozenakaz.

1901ko urtean Urtarrillako 5an idaxten dautson eskutitzetik, garrantzi aundienetako leerroak idaxten dautsoz, ausnartze sakon oneik azaltzeko.

Sabinok ikusten dauelako emen, aberkideen itxitasunaren alako bat, edo abertzaleen artean biotz galdu edo kikiltasun antzeko bat: “Gogoratzen asten nazenean onetaz, edo endaren gora beran, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizaldi au amaitu orduko”.

“Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, ta asarregarria da !”⁽¹⁾.

“Aukera bakarria diruan dago, eta au ez da aurkitzen”. Baserritarrak geiegi dakie, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari. Zuzenbide bakarria ba, lantokiak sortuaz da, baserriak erosi, lagun arteko ontzigintzari eutsi, langintzako ta trebetasunetzko elkarteak antolatu, anai-arteko ongilleak eta arrantzaleentzako elkartasunak⁽²⁾, nekazaritzarako, abel azikerarako, ibilbideak zabaldu edo jabetuz... bizitzan, eskutarteko guztiak legez erritaratuaz⁽³⁾, Euskereak zeozertarako balio dagian ta naita naiezkoa izan daitela eurakaz, artukizuna eukitea.

JAINKOA Aundia, Aalduna ta Bakarria da zuzendu leikena! Bearrezkoa da, euskerea naikoa izan dedilla, eta gertatzen dana da, ez dauala balio nekazaritzako egintzaren izketarako baino.

Bizkaian bear doguzan liburuak be ez daukaguz, azibidea burutzeko, guztia ez, baizik erlijiozko oituraren azibidea, bear bearrezkoa dana emakume gaztea, sendi baten ama izateko be. Ai nere laguna !. Au baserriaren barruko bizitzan sartzeko asten danean, nork berak argi ikusten dau, eta gauza bat bakarrik oartzen dau⁽⁴⁾: “biotzak negar egiten dauala, eta negar egiten dau zuzenbideak aurkitu barik, “Gure aurrekoak zer egin dabe?”

Zer egin dau Eleizak ?, elizkideen amak?.

Gizaldi asko dira gure erria laguntzarik gabe dagoala: Euskera berberan dago orren ezaugarria.

Egiazko mirari aundia da, gure zoritxarreko erri au, asierako biderik eta apaizak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baina ardura gitxikoa.

(1) Asarregarria da = es para estar cabreados. (2) Arrantzaleentzako Alkartasunak = asociaciones, compañías, mutualidades etc. (3) Eskutarteko guztiak legez erritaruaz, Euskereak zeozertarako balio dagian = para que nacionalizando las posibilidades que andamos entre manos, el euskera balga para algo. (4) Oartzen dau = experimentar.

Euskalerrria gaur arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik araso aldia, beren duintasuna, bere lotsagizuna eta zintzotasunak izan dira.

Alan ba, bera begituten badogu, erri ber bera, esan leike nai ta nai ez, iltzeko bidean dagoela, baina JAINKOA-ren eskuari begitzen badautsagu, Bera da eutsi dautsona. Nor berak itauna egiten dau: "izango ote da JAINKOA, gura ez aduana, au desagertzea ?"

Emen garbi ikusten dana da: "ez dala amezlari bat. Anakak ondo ezarrita euki ebazala lur gainean. Eta gitxiago zoratuta.

Sabinok, ondo ikusi eta ikasi ebana zan, espainitarrek euki eben espatearen indarren aurka joatea, orma aundi baten aurka buruagaz jotea bezela zala, eta orregaitik asmatzen dau 1901ko urte barruan, Arriandiakak zeatzen dauan lez⁽¹⁾, berari esan eutsola, espetxean lau illabete sartu orduko⁽²⁾, Sabinok, biribilduta euki ebala espainitar aldaketa ori, gero Arantzadik ziurtu ebana, berari Sabinok idatzi eutson eskutitzetik.

JAINKOAK laguntzen badausku, gizaldi onen asieran ikusiko doguzan barritasunak, aundiak izango dira Aberriarentzat: Alderdiaren zabalkuntza. Bizkaian, bere antolarnendua.

Gipuzkoan eta Nafarroan be, euren antolarnendua. Erri nagusiari mezua emon. Katalanekin, artu emonak sakondu, bion elburuari buruz. Galizian, Aragoian, Balentzian, eta abar, hurraldean zaletasuna bizkortu, espaini guztian, alkar zaletasun⁽³⁾ aundi bat sortuaz, bide orretatik edo askatasun bidetik, danagaitik onartua izango dana, Euskalerrriaren giza barrena osatu zedin.

1902ko urtean Bagillako 22-an, "La Patria" aldizkari abertzalean, "Guxtizko eta Garrantzidun" idatz lana argitaratzen dau. Baina illabete arinago, bere abertzaletasuna erakusten dau, 1902an Orrillako 25ean Roosevelt-eri bialtzen dautson urrutiko idazkitik mezua, zorionak emoten Kubari askatasuna emoteagaitik.

Orregaitik espetxeratua izan zan 1902ko urtean Orrillako 30ean; eta bertatik Ingelesen, Salisburi leenengo mininstruari, zorionak emoten, Boersen aurkako gerla amaitzeagaitik. Bai, argi itxi be, bera espainitarra ez dala, sagar bat, oliarana ez dan antzera.

Sabinok, Euskalerrriaren bizitasunean, giza barrena osatuaz, Euskal Nortasuna irabazi gura eban, eta orregaitik, Euskalerrria il zoriko larritasun aundi baten egonda, berarentzat ez dauka ardura aundirik, zein era izan bear zan, bere erriak jokatu bear ebena.

Berak, estratejia utsa edo, euskal giza, orokorrezko trebetasun guztiekin jokatu bear ebela uste eban, baekielako egiazko edo gudako borrokaren bidez, ezinezkoa zala: "Bakarrik eskatzen dautsuet, neugaz itxaropentzu zaitzezela". "Aberriak, buru ukatze ori eskatzen dauskulako", eskatzen eban, Euskalerrriak, alako egoeratik urten dagian, alderdi guztiak ondo eta benganan jokatu ezkerro, orretarako argitzen diran arauakaz.

Or dago, zergaitik gure dauan espainolaren jokoan sartu, Euskalerrriaren arnasa, biotzeko taupadak eta bizitasuna osatu arte. Ze, beragandik aldendu baginan, orren izateagaitik, zer egingo gendun gaur ?.

Egoera bardinak dira, baina len, bera bakarrik izanda, erri guztia eraikitzen ipini eban, eta bide onean osasunaren billa iraun dagian: "guk alper-zamarrak ez doguna egiten ainbeste izanda".

Osatu barik daukagu erria, zati aundi baten beintzat, eta orrek bakarrik, urduritasun apur bat sartu bear leuskuela uste dot, gure giza barrenean.

(1) Espainitarrek ikusten dabelako euren katolikotasuneko aberritasuna, edo aberriaren osotasuna arriskuan dagoala, espataren arrazoia ezartzeko. (2) Gizona eta Beren Bidea 99-100 orrialdian. (3) Alkar zaletasuna = federal, federalismo.

Eta or !, berak asmatu eban bide barri Joko ortan sartuta gagoz gure nai ez.

Orrek bakarrik esan gura dau: SABINO, EUSKALERRIAREN AITA DALA, eta berezko errien arazo bardinak diran lez, aita Maurori tsixt egiten dautson esanak "ERRITARGO'en AITA" dala dudarik gabe.

- "Sabinok, lau lurraldeko Aldundi artean, arreman estu estuak gura ebazan ezarri, Euskalerrriak erri baten itxura artu dagian".

- "Nolako indarraz errotu jakon Abertzaletasuna, Euskalerrriari bizitza eta ondasunak ezkeini eta oso osoan emoteko".

- "Sabinok, Bizkaiari eta Bizkaitarrentzat Bizkaiko Aldundian egin eban ulermen aundiko erizpidea⁽¹⁾, Euskalerrriarentzat onena gura ebalako zan, eta bide batez, apurka, apurka, Euskaldunen giza barreneko Nortasuna irabazteko".

- "Bera da lendabizi Euskaldun bakotzari esaten dautsona: "EUSKALERRRIA, ZURE ABERRIA DA". "EUSKALERRIAREN AITA !! ZALANTZARIK GABE "

"SABINO, ERRI GIZON AUNDIA ta PARE BAGEKO EUSKAL GIZONA izan zan".

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.019ko urtean Otsaillaren 8an



(1) Ulermen aundiko erizpidea = criterio, critica, o norma de juicio muy grande.



Euskeraren Erri Akademia
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com
www.euskerazaintza.org